


**INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN
LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN HIRUGARREN ZIRRIBORROA**

2021-10-08

ZIOEN AZALPENA	8
I. TITULUA-XEDAPEN OROKORRAK	24
1. artikulua.- Xedea	24
2. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren definizioa eta egitura	24
3. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren printzipioak	24
4. artikulua.- Arreta-eredua	25
5. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren osagaiak	25
6. artikulua.- Prestazio ekonomikoak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak	26
7. artikulua.- Lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuak	26
8. artikulua.- Titularrak, onuradunak eta jasotzaileak	26
9. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio, laguntza, tresna eta zerbitzuen titular eta onuradunen eskubideak	27
II. TITULUA- INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIO EKONOMIKOAK ETA LAGUNTZAK	28
I. KAPITULUA-XEDAPEN OROKORRAK	28
10. artikulua.- Prestazio ekonomikoen eta laguntzen izaera	28
11. artikulua.- Prestazio ekonomikoen ezaugarriak	28
12. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomiko eta laguntzen bateragarritasuna	28
13. artikulua.- Inklusiorako zerbitzuekin lotzea	29
14. artikulua.- Bizilekua	29
II. KAPITULUA - DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA	29
1. ATALA - DEFINIZIOA, TITULARRAK ETA ONURADUNAK	29
15. artikulua.- Definizioa	29
16. artikulua.- Titular izateko betekizun orokorrak	30

17. Artikulua.- Errefuxiatuen, gizakien salerosketaren, genero-indarkeriaren, sexu-esplotazioaren edo etxeko indarkeriaren biktimen, eta adingabeak babesteko eta arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon direnen edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu dutenen betekizunak.	30
18. artikulua.- Terrorismoaren biktimen eta euskal gizataldeetako kideen titular izateko betekizunak	31
19. artikulua.- Erabateko zurtzen, ezohiko bizikidetza-unitateetako kideen, desgaitasuna duten pertsonen ezkontza edo antzeko loturaren bidez lotutako pertsonen eta 18 eta 23 urte bitarteko pertsonen titular izateko betekizunak.	32
20. artikulua.- Titular izateko betekizunak egiaztatzeko data eta modua	32
21. artikulua.- Ezkontzaren edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez lotutako titularren bizilekua.	32
22. artikulua.- Titularren konkurrentzia	33
23. artikulua.- Titularrak aldatzea	33
24. artikulua.- Onuradun izateko betekizunak	33
2. ATALA-BIZIKIDETZA-UNITATEAK	33
25. artikulua.- Bizikidetza-unitateak	34
26. artikulua.- Ezohiko bizikidetza-unitateak	34
27. artikulua.- Ezkontzaren antzeko harremana	35
3. ATALA-TITULARREN ETA ONURADUNEN BETEBEHARRAK	35
28. artikulua.- Titularren eta onuradunen betebeharra	35
29. artikulua.- Agertzeko betebeharra	36
4. ATALA-ZENBATEKOA ZEHAZTEA	37
31. artikulua.- Gehieneko errenta bermatua	37
32. artikulua.- Oinarrizko zenbatekoa	38
33. artikulua.- Osagarri indibidualak eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak	38
34. artikulua.- Zenbatekoa zehaztea	38
35. artikulua.- Indize zuzentzailea	39
36. artikulua.- Baliabideak osorik kontuan hartzea	39
37. artikulua.- Premia ekonomikoko egoera	39
38. artikulua.- Etekinak zehaztea	40
39. artikulua.- Ondarea zehaztea	40
40. artikulua.- Enplegurako pizgarriak	40
5. ATALA-ESKUBIDEA ETETEA ETA AZKENTZEA	41
41. artikulua.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea	41



42. artikulua.- Etetea, prestazioa aitortzeko eskatutako baldintzak aldi baterako galtzeagatik	41
43. artikulua.- Etetea, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo benetan bizitzeagatik	41
44. artikulua.- Etetea, osorik funts publikoekin finantzatutako egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario bateko plaza bat aldi baterako okupatzeagatik.	41
45. artikulua.- Betebeharrak ez betetzeagatik kontratua etetea	42
46. artikulua.- Etetearen ondorioak.....	42
47. artikulua.- Prestazioa kautelaz etetea.....	43
48. artikulua.- Prestazioa azkentzea	44
49.-artikulua.- Azkentzearen ondorioak.....	45
50. artikulua.- Prestazioa azkentzearen ondorioak pertsona adingabeak barne hartzen dituzten bizikidetza-unitateetan	45
III. KAPITULUA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	46
51. artikulua.- Definizioa	46
52. artikulua.- Ezaugarriak eta etxebizitza-gastuetarako prestazio ekonomikoarekiko bateragarritasuna	47
53. artikulua.- Eskuratzeko betekizunak.....	47
54. artikulua.- Prestazioen eta onuradunen konkurrentzia	48
55. artikulua.- Onuradunen betebeharrak	48
56. artikulua.- Erreferentziazko balio ekonomikoa	48
57. artikulua.- Zenbatekoa zehaztea	49
58. artikulua.- Laguntzak ematea.....	49
59. artikulua.- Aldizkako berrikuspenak	49
IV. KAPITULUA - INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIO EKONOMIKOEN ETA LAGUNTZEN ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	50
60. artikulua.- Prestazio ekonomikoetarako eskubidea eta prestazioen ordainketa.....	50
61. artikulua.- Gizarte-larrialdietarako laguntzen ordainketa.....	50
62. artikulua.- Iraungitzea	50
63. artikulua.- Prestazio eta laguntza ekonomikoen muga ekonomikoa	50
64. artikulua.- Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoak eta laguntzak itzultzea	51
65. artikulua.- Preskripzioa	51
I. KAPITULUA-XEDAPEN OROKORRAK	52
66. artikulua.- Eskumena	52
67. artikulua.- Oinarrizko printzipioak	52
68. artikulua.- Pertsonen eskubideak.....	52



69. artikulua.- Harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubidea.....	53
70. artikulua.- Bitarteko elektronikoen bidezko izapidetzea	54
71. artikulua.- Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak eta jakinarazpenak	54
II. KAPITULUA – PRESTAZIO EKONOMIKOEN AITORPENA.....	55
1. ATALA-PROZEDURA.....	55
72. artikulua.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko prozeduraren hasiera	55
73. artikulua.- Zuzenketa.....	55
74. artikulua.- Instrukzioa	55
75.- Ebazpena	56
76. artikulua.- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren aitortpena.....	56
77. artikulua.- Eskaera-eredu normalizatuak.....	56
2. ATALA -ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK	57
78. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenak diru-sarrerak bermatzeko errentan	57
79. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenaren ondorioak	57
80. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenak bizitzeko gutxieneko diru-sarreran	57
III. KAPITULUA-ZENBATEKOAREN EGUNERATZEA ETA PRESTAZIO EKONOMIKOEN KONTROLA.....	58
81. artikulua.- Zenbatekoaren eguneratzea	58
82. artikulua.- Kontrol-prozeduraren xedea eta hasiera.....	58
83. artikulua.- Kontrol-prozeduraren amaiera.....	59
84. artikulua.- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kontrola	59
85. artikulua.- Adimen artifizialeko sistemen erabilera prestazio ekonomikoen kontrolean	60
IV. KAPITULUA-DATU PERTSONALAK BABESTEA ETA INFORMAZIOA EMATEA	60
86. artikulua.- Datuen babesa eta konfidentzialtasuna	60
87. artikulua.- Sektore publikoko erakundeek informazioa emateko betebeharra	61
88. artikulua.- Pertsona fisiko edo juridiko pribatuek eta nortasunik gabeko erakundeek informazioa emateko betebeharra.....	62
I. KAPITULUA-IKUSKATZEKO AHALA	63
89. artikulua.- Ikuskatzeko ahala baliatzea	63
90. artikulua.- Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-plana.	63
91. artikulua.- Ikuskapen-jarduera.....	64
92. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzailatza.....	64

93. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzaitzaren funtzioak.....	64
94. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzaitzaren ahalmenak	65
95. artikulua.- Ikuskapen-lanerako laguntza.....	65
II. KAPITULUA-ZEHATZEKO AHALA.....	66
96. artikulua.- Arau-haustek	66
97. artikulua.- Erantzukizunak.....	66
98. artikulua.- Arau-hauste arinak.....	67
99. artikulua.- Arau-hauste astunak.....	67
100. artikulua.- Arau-hauste oso astunak	67
101. artikulua.- Zehapenak	68
102. artikulua.- Adingabeentzako zehapenak	69
103. artikulua.- Zehapenen graduazioa.....	69
104. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.....	69
I. KAPITULUA-XEDAPEN OROKORRAK	70
105. artikulua.- Lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuak.....	70
106. artikulua.- Eskuratzeko betekizunak	70
107. artikulua.- Erreferentziazko profesionala	71
108. artikulua.- Datuen konfidentzialtasuna eta babesa	71
109. artikulua.- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen parte-hartzea	71
II. KAPITULUA- GIZARTE- ETA LAN-DIAGNOSTIKOA EGITEKO TRESNAK	71
110. artikulua.- Egoeraren eta beharren hasierako balorazioa	71
111. artikulua.- Balorazioa eta gizarte-diagnostikoa	72
112. artikulua.- Lan-diagnostikoa	72
III. KAPITULUA-INKLUSIORAKO PROGRAMA INTEGRATU ETA PERTSONALA.....	72
113. artikulua.- Definizioa eta iraupena	72
114. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen arteko erlazioa	73
115. artikulua.- Esku hartzen duten alderdiak	73
116. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren edukia	73
117. artikulua.- Erreferentziazko profesionala	73
118. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala sinatzea	74

119. artikulua.- Esku hartzen duten alderdien betebeharrak	74
120. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren jarraipena eta ebaluazioa.....	75
121. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren etetea.....	75
122. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala suntsiarazteko arrazoiak	75
123. artikulua.- Informazio-trukea	76
IV. KAPITULUA-LANERATZEKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK	76
124. artikulua.- Enplegararritasuna hobetzeko laguntza-zerbitzuak jasotzeko eskubidea	76
125. artikulua.- Euskal administrazio publikoen programa eta zerbitzu lan- eta gizarte-inklusiara bideratuak.....	76
VI. TITULUA-INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA	77
126. artikulua.- Xedapen orokorrak.....	77
127. artikulua.- Plangintzaren printzipioak	78
128. artikulua.- Inklusiorako Euskal Plana.....	78
129. artikulua.- Inklusiorako programak.....	79
130. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako tresna tekniko komunak	79
131. artikulua.- Profesionalen prestakuntza eta ikerketa.....	79
VII. TITULUA-INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN ESKUMEN-ARAUBIDEA ETA FINANTZAKETA	79
I. KAPITULUA-ESKUMEN-ARAUBIDEA	79
132. artikulua.- Eusko Jaurlaritzaren eskumenak.....	79
133. artikulua.- Foru-aldundien eskumenak	80
134. artikulua.- Udalen eskumenak.....	81
135. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumenak.....	81
II. KAPITULUA- INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN FINANTZAKETA	81
136. artikulua.- Finantzaketa-iturriak	81
VIII. TITULUA-LANKIDETZA, KOORDINAZIOA ETA PARTE-HARTZEA	82
137. artikulua.- Administrazio publikoen artean lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko betebeharra	82
139. artikulua.- Inklusiorako Erakundearteko Batzordearen funtzioak...	83
II. KAPITULUA-KONTSULTA ETA PARTE-HARTZEA	83
140. artikulua.- Inklusiorako Euskal Kontseilua	84
141. artikulua.- Inklusiorako Euskal Kontseiluaren funtzioak	84

IX. TITULUA-INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN EBALUAZIOA ETA INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOA	84
I. KAPITULUA - EBALUAZIOA	84
142. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa	84
II. KAPITULUA-INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOA	85
143. artikulua.- Sorkuntza eta araubide juridikoa	85
144. artikulua.- Independentzia	85
145. artikulua.- Funtzioak	85
146. artikulua.- Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularren estatutu pertsonala	86
147. artikulua.- Baliabide pertsonalak eta materialak	87
Lehenengo xedapen gehigarria.- Oinarrizko zenbatekoa lege hau indarrean jartzen den egunean.	87
Bigarren xedapen gehigarria.- Diru-sarrerak bermatzeko sistemen eta gizarte-zerbitzuen sistemen elkarreragingarritasuna eta elkarren arteko konexioa.	87
Hirugarren xedapen gehigarria.- Triage-tresna	87
Laugarren xedapen gehigarria.- Politika fiskalak eta diru-sarrerak bermatzeko politikak.	88
Bosgarren xedapen gehigarria.- Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren jardueraren hasiera.	88
Seigarren xedapen gehigarria.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko kontsignatutako kredituak udalerrien artean banatzea.	88
Zazpigarren xedapen gehigarria.- Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako esleitutako zenbatekoak foru-aldundiei edo udalaz gaindiko erakundeei zuzenean eskualdatzea.	88
Lehenengo xedapen iragankorra.- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaeren araubide iragankorra. ..	88
Bigarren xedapen iragankorra.- Etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarriaren araubide iragankorra.	88
Hirugarren xedapen iragankorra.- Enplegurako pizgarrien araubide iragankorra.	89
Laugarren xedapen iragankorra.- Inklusiorako Erakundearteko Batzordearen araubide iragankorra	89
Bosgarren xedapen iragankorra.- Inklusiorako Euskal Kontseiluaren araubide iragankorra	89
Seigarren xedapen iragankorra.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funttsaren araubide iragankorra	89

Xedapen indargabetzailea.....	89
Azken xedapenetatik lehenengoa.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legea aldatzea	90
Azken xedapenetako bigarrena.- Erregelamenduzko garapena.....	90
Azken xedapenetatik hirugarrena.- Deslegeztatzea	90
Azken xedapenetatik laugarrena.– Indarrean jartzea.....	90

ZIOEN AZALPENA

I

Europar Batasuneko ia herrialde guztiek dituzte diru-sarrerak bermatzeko sistemak, adin aktiboan dauden eta beraien eta beren familien beharrei erantzuteko behar besteko diru-sarrerarik jasotzen ez duten pertsonentzat. Sistema horiek dira Europar Batasuneko ongizate-estatuaren ezaugarri bereizgarrietako bat, eta Europako eredu sozialaren muinaren parte ere. Izan ere, inklusiorako errenta garatzea izan zen Europar Batasunak estatu kideei egin zien gomendioetako bat, 2008ko finantza-krisiaren ondorioei aurre egiteko, inklusio aktiboaren paradigman esparruan. Hartara, Batzordearen 2008ko urriaren 3ko 2008/867/EE Gomendioaren bidez, Batzordeak estatu kideei eskatu zien aitortu eta aplika zezatela pertsonen baliabide eta gizarte-laguntza nahikoa izateko duten eskubidea, gizarte-bazterketari aurre egiteko baliabide global eta koherente baten parte gisa.

Gomendia, gainera, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunarekin lotzen da. Gutun horrek gizarte-laguntza eta etxebizitzarako laguntza jasotzeko eskubidea ezartzen du, behar besteko baliabiderik ez duten guztiei bizimodu duina bermatzeko.

Berrikiago, Europako Batzordearen 2017ko apirilaren 26ko 2017/761 (EB) Gomendioak, Gizarte Eskubideen Europako Zutabeari buruzkoak, honako hau ezartzen du, gizarte-babesaren Europako ereduari buruzko beste alderdi batzuen artean: “Baliabide nahikorik ez duen pertsona orok gutxieneko errentako prestazio egokiak jasotzeko eskubidea du, bizitzaren etapa guztietan bizitza duina izatea eta gaikuntza-ondasun eta -zerbitzuak eskuratzea bermatzeko. Lan egin dezaketen pertsonentzat —gehitzen du Deklarazioak—, gutxieneko errentaren prestazioak lan-merkatuan (berriz) sartzeko pizgarriekin konbinatu behar dira”.

Bermatutako errentak, beraz, Europako gizarte-babeseko ereduaren funtsezko zati bat dira, eta Europako herrialde gehienek horrelako neurriak dituzte. Ezin da esan errenta bermatuak gai izan direnik pobrezia eta gizarte-bazterketaren arazoa osorik desagerrarazteko Europan. Hala ere, ukalezina da eragin positiboa dutela, bai pobrezia murrizteko —batez ere pobrezia larria—, bai errenta bermatu horiek jasotzen dituzten familien bizi-baldintzak hobetzeko. Askorentzat azken segurtasun-sarea izateaz gainera, eta lan-inklusioko eta gizarte-inklusioko lorbidea izateaz gainera, errenta bermatuek inpaktu makroekonomiko handia dute, lagungarriak izan baitira krisialdiaren ondorioak arintzeko, ekonomia egonkortzeko eta hazkunde ekonomiko gehigarria sortzeko.

Izan ere, pobrezia eta murrizketaren gainean duten inpaktuaz haratago edo ekonomiaren mekanismo egonkortzaile eta antizikliko gisa duten eraginaz haratago, adierazi beharra dago prestazio horiek oso ondorio positiboak dituztela onuradunen ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin lotutako beste alderdi askotan. Alde horretatik, hainbat azterlanek agerian utzi dute

zuzeneko lotura dagoela prestazio horiek jasotzearen eta bizi-kalitatearen, gizarte-harremanen, osasun-egoeraren eta, are, hilkortasunaren adierazleen artean.

Testuinguru horretan, diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua guztiz koherentea da Europako erakundeek emandako orientabideekin eta Europar Batasuneko herrialde nagusiek garatzen dituzten politikekin. Frantzia edo Erresuma Batuan pobrezia-aren aurka egiten ziren politiketan oinarrituta neurri batean, III. Legegintzaldiaren amaieran sortu zen errenta bermatuen euskal sistema, Eusko Jaurlaritzak Pobrezia-aren aurka Borrokatzeko Plan Integrala onartzearekin batera. Plan horrek —lehen aldiz Espainian— gutxieneko baliabideak bermatzeko sistema bat ezarri zuen, garai hartan “gizarte-soldata” gisa ezagutu zenaren ezarpenean oinarrituta. Pobrezia-aren aurka Borrokatzeko Plana garatu zen, hasiera batean, Gutxieneko Familia-sarrerari buruzko otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuaren bidez eta Gizarteko Larrialdi-egoeretarako Dirulaguntzak arautu zituen martxoaren 21eko 64/1989 Dekretuaren bidez. Urtebete geroago, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko arlo horretako lehen legea onartu zuen: 2/1990 Legea, maiatzaren 3koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa.

Familiaren gutxieneko diru-sarrerarekin hasitako bidea arian-arian urratzen joan zen hainbat erreforma-neurriren bidez. Neurri horiek, oro har, premia-egoeretan emandako arreta hobetzea hartu zuten oinarri. Ibilbide hori Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez iritsi da gaur egungo prestazio publikoen sistemara, honako hauetan oinarrituta: diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO), gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) eta azaroaren 24ko 4/2011 Legeak prestazio horretan egindako aldaketa —lege horren bidez, diru-sarreraren bermearen kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku uzten da—.

II

Hogeita hamar urtetik gora garatzen joan ondoren, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema euskal autogobernuaren bereizgarri nagusietako bat bihurtu da, arrakasta kolektibo bat eta erreferente bat gure mugetatik kanpo. Gure inguruko herrialdeetan dauden horrelako sistemen gastu publikoaren eta babes-ahalmenaren antzekoekin, diru-sarrerak bermatzeko euskal prestazioek pobrezia larritik babesten dituzte horiek jasotzen dituzten pertsona gehien-gehienak, eta nabarmen murrizten dituzte pobrezia-aren eta gizarte-bazterketaren maila orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoan.

Illo horretatik, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioek eta analisiek funtsezko bi elementu uzten dituzte agerian.

Alde batetik, sisteman jasotako prestazioek pobrezia murrizteko gaitasuna dute. Zehazki, pobrezia-tasa orokorrak % 35 eta % 40 artean murriztu dituzte aztertutako urte guztietan: 2020an, 182.000 lagun, EAEko biztanleriaren % 8,4 DSBErik ez balego, benetako pobrezia-egoeran egongo lirateke —beren diru-sarrera propioak eta Estatuko gizarte-babeseko sistemetatik lortzen direnak soilik kontuan hartzen badira—. DSBEa jaso ondoren, pobrezia-tasa horiek heren bat murrizten dira (benetako pobrezia-tasa % 33,3, aipatutako urtean), eta, batez ere, nabarmen murrizten da familia horiek jasaten duten pobrezia-aren intentsitatea, hau da, biztanleria onuradunaren benetako diru-sarreraren eta pobrezia definitzen duten muga ekonomikoen arteko aldea (benetako pobrezia-aren intentsitatea % 76,2 aztertutako aldi berean).

Bestalde, ez dago ondorio kaltegarririk jarduerarik ezari pizgarriak emateari dagokionez. Egindako azterlanen arabera, DSBEak ez du atzeratzen edo geldiarazten hura jasotzen dutenek lana lortzea. Hain zuzen ere, kolektibo horri berariaz bideratutako aktibazio-neurriak eraginkorrak dira prestaziotik enplegurako trantsizioa bizkortzeko.

Beraz, esan daiteke diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua gai izan dela Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia-aren eta desberdinkeria-aren hazkundera prebenitzeko eta geldiarazteko, euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta enplegua sortzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe, eta premia-egoeran dagoen biztanleria erakartzeko ondorio gehigarriak sortu gabe. Alde horretatik,

diru-sarrerak bermatzeko politikari esker, krisialdian zehar Euskal Autonomia Erkidegoan eragina izan duen beheranzko mugikortasun-prozesuak ez ditu nabarmen areagotu pobrezia-egoera larrienak. Euskal Autonomia Erkidegoaren etorkizuna arriskuan jartzetik urrun, prestazioen euskal sistema da euskal komunitatearen egoera sozioekonomiko konparatu hobeazaltzen duen faktoreetako bat, ongizaterako bidean aurrera egiten jarraitzeko gaitasunarekin batera.

Ildo horretatik, Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestako datuek agerian uzten dute, krisiak Europa hegoaldeko herrialdeetan izandako eragin diferentzialaren ondorioz egoera sozioekonomikoak okerrera egin arren, EAEko pobrezia larriaren tasa EB-28koa eta euroaren 18 herrialdeetakoa baino txikiagoa dela 2018an (% 5,1, Europako % 6ren aldean).

Gizarte-bazterketako egoerei eta gizarteratze-egoerei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko bazterketaren eta garapen sozialaren inguruan FOESSA fundazioak egindako azken txostenak agerian uzten du bazterketa-tasak baxuagoak direla Euskal Autonomia Erkidegoan Espainia osoan baino, EAEk duen gastu sozial handiagoarekin eta pobrezia-, langabezia- eta desberdinkeria-tasa txikiagoekin bat etorritik. Izan ere, Euskadi, iparraldeko eta Kantauri itsasoko gainerako erkidegoekin batera, bazterketa-tasa txikiak dituzten erkidegoen artean dago (% 56, eta Espainian, aldiz, % 48,4, batez beste). Gainera, erabat gizarteratuta dagoen biztanleriaren ehunekoa nabarmen handiagoa da, eta, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoa da erabateko gizarteratze-tasarik handienak dituzten autonomia-erkidegoetako bat.

Hala ere, 2008ko finantza-krisiaren ondorengo hazkunde ekonomikoak ez du eragotzi pobrezia eta gizarte-bazterketak gora egitea Euskal Autonomia Erkidegoan. Pobreziaren hazkundera azaltzen duen efektua, baita oparoaldietan ere, errenta-taldearen diru-sarreraren hazkunde desberdinarekin eta horren ondoriozko pobrezia-atalaseen hazkundearekin lotuta dago. Hazkunde ekonomikoak bera —errenta-talde guztien artean modu uniformean banatzen ez denez— neurri batean pobreziaren hazkundera eragiten ari da, termino erlatibotan neurtuta.

Termino orokorragoetan, honako hauek dira babes behar duten pertsona gehiago izatea ekarri duten faktoreen adibide batzuk: langabeziak gora egitea, iraupen luzeko langabeen kopurua igotzea, migranteek baliabiderik ez izatea, bazterketa-arriskua feminizatzea, desgaitasuna, edo baliabide ekonomiko urriak dituzten pentsiodunen egoera. Soldata txikiak dituzten pertsonen laguntza saiaterazten den sistema baten testuinguruan, errealitate hori areagotzen ari da enplegu-modu prekarioenak hazi direlako, bai aldi baterako kontratazioari dagokionez, bai denbora partzialeko kontratazioari dagokionez. Horiek nabarmen eragiten diote kualifikazio txikieneko biztanleriari.

III

Bestalde, deskribatu berri den egoera erabat aldatu da COVID-19aren pandemiak eragindako krisi soziosanitarioaren eta sozioekonomikoaren ondorioz. Hain zuzen ere, birusa ez transmititzeko hartutako neurriengatik jarduerak ekonomikoak bat-batean behera egiteak berekin ekarri du langabezia-tasa orokorrak nabarmen igotzea, enpresa ugari desagertzea eta, zalantzarik gabe, pobrezia- eta bazterketa-tasak ere areagotzea. Gainera, nabarmen aldatu dira eragindako pertsonen profila eta integrazioetik bazterketara daramaten bizi-ibilbideak, eta alderantziz. Aurrerago adierazten denez, lege honetan aurreko arau-esparruarekin lotuta planteatzen diren aldaketen helburua da, hain zuzen ere, aldaketa horietara egokitzea.

COVID-19ak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eraginari buruzko txostenaren arabera —Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak berriki argitaratu du—, krisi honen eragin ekonomikoak ez du aurrekaririk, eta nazioarteko shock bat eragin du, bai eskaintzari dagokionez, bai eskariari dagokionez, eta ziurgabetasun handiko ingurunea ekarri du.

Krisi soziosanitarioak eta sozioekonomikoak eragindako aldaketa sozioekonomikoei gehitu behar zaizkie maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua onartzearen ondoriozko aldaketak. Errege lege-dekretu horrek bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen du. Diru-sarrera hori Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa sortzen da, kotizazio gabeko modalitatean,

helburu nagusi honekin: gutxieneko baldintza materialak betez, herritar guztiek bizitza sozialean eta ekonomikoan bete-betean parte har dezaten bermatzea, egiturazko baliabiderik ez izatearen eta pertsonen lan-, hezkuntza- edo gizarte-esparruetan aukerarik ez izatearen arteko lotura hautsiz.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) onartzeak behartu egiten du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema berriro planteatu eta diseinatzera, funtsezko bi arrazoiengatik.

Alde batetik, BGDSa “zoru-prestazio” gisa planteatzen da, gutxieneko erkide gisa, eta aukera ematen du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bere babesa Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duten eta premia-egoeran dauden pertsona guztiei zabaltzeko.

Bestalde, BGDSaren kudeaketari dagokionez, 20/2020 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak aurreikusten du prestazio hori kudeatzeko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegora transferitzea, foru-ogasunak izateak dakarren espezifikotasuna dela-eta. BGDSaren kudeaketaren transferentzia horri esker, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bildutako prestazio ekonomiko guztien kudeaketa integratua egin ahal izango da, herritarren beharrei hobeto erantzuteko.

Aldi berean, ordea, Autonomia Erkidegoak bi prestazioak kudeatzeak —eta prestazio horien onuradunek behar ditzaketen enplegu-politika aktiboak eta gizarte-zerbitzuak garatzen jarraitu beharrak— nahitaez dakar doikuntza garrantzitsu bat egitea araudi-, finantza- eta antolamendu-mailan. Hain zuzen ere, lege honetan jasotako xedapenetako asko bideratuta daude aipatutako sistemaren kudeaketa eraginkorragoa, arinagoa eta arrazionalagoa erraztera, sistema horretan biltzen baitira, alde batetik, estatu-mailako konfigurazioa duen prestazio bat eta, bestetik, benetan autonomikoa den beste bat, betekizun, betebehar eta sartzeko irizpide propioak dituen.

IV

Horrenbestez, beharrezkoa da gizarte-babeserako, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako neurriak egokitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 10. artikulua babesean; izan ere, artikulua horrek Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio gizarte-laguntzaren arloko eskumen eskusiboa, eta eskumen-titulu horrek legitimatzen du lege hau onartzea, eta haren esparruan txertatzen dira legearen eduki guztiak.

Helburua da, alde batetik, hobetzea diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen estaldura eta eskuragarritasuna eta, bestetik, lan- eta gizarte-bizitzan moldatzeko zailtasunak dituzten euskal herritarrei eskurago jartzea kalitateko gizarte- eta enplegu-zerbitzuak. Horretarako, lege honen helburu nagusia da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osoaren funtzionamendua eta, oso bereziki, sistema horretan jasotako prestazio ekonomikoen funtzionamendua egokitzea indarrean dagoen esparru arauemailea onartu zenetik gizartean izan diren aldaketa sakonetara.

Autonomia Estatutuak, 10. artikuluan, eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte-laguntzaren arloan. Eskumen-titulu horrek legitimatzen du lege hau onartzea, eta eskumen horren esparruan sartzen dira lege honen eduki guztiak.

Lege hau prestatzeko prozesua, neurri handi batean, aurreko legegintzaldian egindako lanean oinarritu da. Lan horren helburua zen 2018an Eusko Legebiltzarrean aurkeztea Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Legearen proposamena. Ildo berean, lege honek lege-proposamen hartan sartu ziren elementu gehienak jasotzen ditu, baita erreforma-prozesu haren esparruan egindako dokumentu teknikoetan planteatutako irizpideak, argudioak eta proposamenak ere. Lege honek jaso egiten ditu DSBEa erreformatzeko Batzorde Teknikoak prestatutako txostenak —Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari 2016ko maiatzan aurkeztu zitzaion— eta Sailak berak 2017ko maiatzan prestatutako DSBEa erreformatzeko Oinarrien Dokumentuak jasotako elementuetako batzuk.

Hortaz, aipatutako dokumentuetan planteatzen zenez, 80ko hamarkadako krisiaren ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarritako erdua babestu eta hobetu behar da, datozen urteetan haren legitimitate soziala eta jasangarritasun ekonomikoa bermatuta. Abiapuntu horrekin, lege hau prestatzeko, oinarritzko irizpide hauei jarraitu zaie:

- Diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren haurtzaroarekiko ikuspegi familiarra eta lagunkoia sakonago aplikatzea, haurren pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren belaunaldi arteko transmisioari aurre egiteko ahalmena areagotuta.
- Bizikidetzaren unitatearen kontzeptua argitzea. Horretarako, bermatzea etxebizitza berean bizi diren bizikidetzaren unitate guztiek prestazioak jasotzeko aukera izan dezatela eta, aldi berean, mekanismo egokiak ezartzea, kontuan hartuko dituztenak familia-unitate batek baino gehiagok etxebizitza bera partekatzen dutenean sortzen diren eskalako ekonomiak eta sustatuko dutenak familia-loturarik gabeko pertsonak pertsona anitzeko unitateetan elkar daitezten.
- Prestazioa kalkulatzeko sistema doitzea, bermatutako zenbatekoen nahikotasuna eta arrazionalizazioa ziurtatuta, batez ere familia handien kasuan.
- Gaur egun estaldura egokia ez duten premia eta taldeentzako arreta hobetzea, sistemara sartzeko garaian desberdintasunak saihestuta.
- Prestazioen kudeaketa eraginkorragoa erraztea: erabiltzaileek bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko duten eskubidea aitortzea, erantzukizunpeko adierazpenen bitartez sarbidea erraztea, zenbatekoak eguneratzeko prozedurak eta prestazioen kontrola arrazionalizatzea eta hartzaileen segurtasun juridiko handiagoa bermatzea.
- Enplegu-zerbitzuen lan-arloko konpainia egitea eta gizarte-zerbitzuen gizarte-arloko konpainia egitea indartzea, diagnostiko-, estratifikazio- edo segmentazio-prozedurak sartuta. Prozedura horiek bidea eman behar dute onuradunen beharrak identifikatzeko eta premia horiek beharrezkoak dituzten laguntza-zerbitzuak agintzeko.
- Onuradunen lan-aktibazioa bultzatzea, euskal enpresak eta ekonomia solidarioa bazterketaren aurkako borrokan inplikatzeko sustatuta.
- Enpleguari hobera emango dion egitura-sistema finkatzea, pobrezia iruzurra saihestuko duena eta enpleguan pobrezia erantzungo diona.
- Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko sistema osoaren gobernantza hobetzea, administrazio eskudun guztiek eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak kudeaketan parte har dezaten erraztuta.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako politikak finkatzea, gaur egun egiten diren ikerketa, berrikuntza, ebaluazio, hedapen, analisi eta prestakuntzako jarduerak egonkortzea, artikulatzea eta bultzatzea ahalbidetuko duten mekanismoak indartuta, esparru horretako I+G+B arloko estrategia zabalago baten barruan.

V

Legia atal hauetan egituratzen da: bederatzi titulu, ehun eta berrogeita zazpi artikulua, zazpi xedapen gehigarri, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

- I. titulua, xedapen orokorreko buruzkoa, arauaren xedea identifikatzearekin hasten da — Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea—, eta, era berean, haren helburua ezartzen du.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema 2. artikuluan definitzen da, eta, horrekin batera, haren antolamendu-egitura ezartzen da. Sistema horretako gizarte-zerbitzuen, etxebizitza-zerbitzuen, hezkuntza-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen arteko interakzioaren lehen adierazpena da, eta Legearen testuan zehar islatuko da.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren printzipioak eta arreta-eredua zehazteaz gainera —horiek 18/2008 Legearen nortasun-ezaugarriei eusten diete—, haren osagaiak identifikatzen dira. Horiek berritasun esanguratsuak dituzte.

Alde batetik, 6. artikulua kontzeptu hauek bereizten ditu: prestazio ekonomikoak —diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS)— eta laguntzak —gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL)—. Izan ere, kontzeptu horiek araubide juridiko desberdina dakarte: lehenengoek eskubide subjektibo gisa kategorizatzeari lotutako araubide juridikoa dute, GLLetatik kanpoko izaera, geroago, 10. artikuluan agertzen den bezala.

Artikulu berean, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio ekonomikoen zerrendan sartzen da BGDSa. Izan ere, sistema horren antolaketa-egiturek hartzen dute beren gain BGDSaren kudeaketa euskal herritarrentzat. Azkenik, etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarriari buruzko aipamena kentzen da, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen garapenari dagokio-eta etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta ordezeko prestazio osagarria a artikulatzea.

Bestetik, 7. artikulua aldaketak egiten ditu aurreko legeari dagokionez, lan-inklusiara eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuetan. Lehenik eta behin, gehiago zehazten du zer tresna-multzo jartzen den pertsonen eskura lan-inklusiara eta gizarte-inklusiara lortzeko. Bigarrenik, bereizi egiten ditu, alde batetik, lan-inklusiara lortzeko helburuan berariaz sartzen diren zerbitzuak —enplegarritasuna sustatzeko eta hobetzeko zerbitzu gisa identifikatuak— eta, bestetik, gizarte-inklusiara sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuak. Garrantzi handiko urratsa da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren etorkizunerako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta gizarte-zerbitzuen arteko elkarlanaren eraginkortasunik eza gainditu nahi baitu. Eta, azkenik, inklusiorako hitzarmenaren ordezkari, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala (IPIP) ezartzen du. Aldaketa horrek, izendapen hutsetik haratago, pizgarri bat dakar Sistemaren onuradunek inklusiorako o prozesuari aurre egiteko moduetan.

9. artikulua —I. titulua ixten du— lehen aldiz sartzen du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio, laguntza eta zerbitzuen titularrei eta onuradunei dagozkien eskubideen zerrenda.

Lege honek ezarri nahi duen eraldaketaren adierazgarri da, eta euskal herritarrek Sistemaren erdigunean kokatzen ditu, eta pertsona guztien berdintasuna bermatzen du administrazio eskudunekiko garapen juridikoan, ekainaren 2ko 8/2021 Legeak ~~legeria zibil eta prozesalean~~ egindako erreformaren ildotik. Lege horrek legeria zibil eta prozesala aldatzen du, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko.

- II. titulua Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoei eta laguntzei buruzkoa da, eta horien erregulazio substantiboa jasotzen du, BGDSa erregulatzen duen araudian xedatutakoa errespetatuz. Lau kapitulutan egituratuta dago.

Lehen kapitulua xedapen orokorrei buruzkoa da, eta berritasun esanguratsua dakar 11. artikuluan, prestazioen ezaugarriak jorratzen baititu; izan ere, mugagabetzat jotzen du DSBEa, tasun hauek ere erantsita: osagarria eta subsidiarioa eta besterenezina.

Legeak, 2021eko uztailaren 1ean indarrean jarri zen Europako Gutun Sozialaren (berrikusia) 13.1 artikuluekin bat etorritik, *ex novo* sartzen du ezaugarri hura. Prestazioa benetako eskubide subjektibotzat jotzen du, eta haren titularrei beharrezkoak ez diren zamak kentzen dizkie, hala nola hura aldi-aldi berritu beharra. Prestazioaren mugagabetasunaren ondorioak behar bezala neurtuta daude, haren zenbatekoa hiru hilean behin eguneratzeko mekanismoaren eta kontrol-prozeduraren bidez. Haiei esker, datuak eguneratuta edukiko dira sartzeko betekizunak betetzeari eta betebeharrak betetzeari dagokionez.

Kapitulu horrek dakarren beste berritasunetako bat da DSBEaren modalitateak kentzea (inklusioko eta gizarte-babeserako oinarritzko errenta eta laneko diru-sarreraren errenta osagarria), izan ere, prestazio bakarrek izango da, eta horren zenbatekoa aldatu egingo da

bizikidetza-unitatearen baliabide guztien eta kideen inguruabarren arabera. Prestazio-eredu errazagoa eta ulergarriagoa izango da hartzaileentzat.

Bigarren kapituluak DSBEa erregulatzen du. Bost ataletan egituratzen da, eta atal horiek 15.etik 44.era bitarteko artikulua hartzen dituzte.

1. atalak prestazioa definitzen du, bai eta titularrak eta onuradunak ere, eta aldaketa garrantzitsuak ditu 18/2008 Legearekin alderatuta:

1) Prestaziora sarbidea errazten die adingabeak eta %33 ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasun-kalifikazioa duten adin nagusikoak dituzten familiei, eta; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egoteko eta benetan bizitzeko eskatzen den denbora bi urtera murrizten du, gaur egun indarrean dauden eta oraindik arau orokorra diren hiru urteen aldean.

2) DSBEa eskuratzea errazten du. Horretarako, bi neurri hauek konbinatzen ditu:

a) Alde batetik, kendu egin da bizikidetza-unitatea antzinasun jakin batekin —orain arte, urtebete— eratuta egoteko eskakizuna. Eskakizun horren funtzionaltasuna eztabaidagarria da.

b) Bestetik, pentsioei eta prestazio publikoei soilik lotutako eskubideak aldeztu aurretik egikaritzeko eskakizuna, ezabatu egin da eta eskatzaileari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eduki ekonomikoko eskubide oro baliarazteko betebeharra, orain arte eskakizun-betebehar gisa indarrean egon dena.

Betebehar hori ezabatzearekin batera, amaiera ematen zaio emakumeak zeharka diskriminatzeko modu bati; izan ere, eskubide horiek baliatzea mantenu-pentsioen erreklamazioetan kontzentratzen da nabarmenki, eta emakumeak dira inguruabar hori gehienbat egokitzen zaien bizikidetza-unitateen titularrak.

Eskakizun-betebehar horri eusteak eragin negatiboa zuen emakumeak prestazioa jasotzeko garaian, beste gurasoari egotz dakiokeen ez-betetze baten ondorioz.

Bestalde, ez dago neurri honi lotutako ondorio maltzurrik. Ez-betetzea egin duen gurasoaren seme-alabek ez dute beren egoera larriagotuta ikusiko, hain zuzen ere, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoari esker. Gainera, ez da inolako galerarik izango diru-kutxa publikoetan, mekanismo zuzentzaile bat txertatzen baita etekinen kalkuluan, eskubide horiek baliatzean pasibotasun-arriskurik egon ez dadin.

3) 17., 18. eta 19. artikuluek identifikatzen dute zein kolektibok behar duten, kalteberatasun bereziagatik, sartzeko betekizun jakin batzuk arinagotzea —adina eta galdatzekoa den errolatze-aldia eta benetako bizilekua, edo horietako bat bakarrik, kasuaren arabera—.

Horrela, bete egiten da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko helburua, eta, aldi berean, kontuan hartzen da Eusko Legebiltzarraren 95/2016 Legez besteko Proposamena, gizarte-laguntzak erregulatzen dituen araudia aldatzeari buruzkoa, 2016ko abenduaren 15ean onartua, Eusko Jaurlaritzari eskatu baitzion adostasun zabaleko hitzarmen sozial bat bultzatzea, besteak beste, *“krisiak eragindako pobrezia-egoera berriei erantzuteko; horretarako, bizikidetza-unitateak eta horietako kide bakoitzarena berrikusiko dira, euren babesa hobetzeko eta gizarte-larrialdiko egoerak kronifikatzea ekiditeko”*.

Hauek gehitu zaizkie lehendik bereziki babestuta zeuden kolektiboei: gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak, adingabeak babesteko sistemaren mende egon diren pertsonak, terrorismoaren biktimak —erreparazio historikoko keinu gisa—, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak eta gurasoena ez den bizileku batean urtebetez gutxienez bizi diren 18 eta 23 urte bitarteko pertsonak, baldin eta azken bi urteetan Gizarte Segurantzaren Sistemari jasotako araubideetako edozeinetan alta emanda egon badira 240 egunez gutxienez.

4) 21. artikulua gero eta ohikoagoa den egoera bat jasotzen du, hau da, ezkontidearen edo bikotekidearen bizilekuaz bestelako batean bizi diren pertsona ezkonduen edo ezkontzaren

antzeko lotura duten pertsonen egoera. Inguruabar horrek ez du eragozten prestazioa eskuratzea edo mantentzea, baina behar bezala justifikatutako arrazoiak beharko dira beste egoitza hori izateko. Horretarako, inguruabar justifikatzaileen zerrenda bat, azalpen hutsekoa, ezartzen du Legeak.

2. atalak bizikidetza-unitateak arautzen ditu. Horiek definitzeko, abiapuntutzat hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko familien errealitate soziologikoa eta haien ezaugarriak buruzko epe ertaineko analisi prospektiboak.

Euskal Estatistika Erakundeak familiei buruz egindako 2018ko otsailaren 28ko azterlanari erreparatuta —familia motaren eta batez besteko tamainaren arabera—, Euskal Autonomia Erkidegoan, honako hauek dira familia-eredu ugariak ehunekoetan: seme-alabar dituen familia nuklearra (% 33,63), pertsona bakarreko familia (% 28,47) eta seme-alabarik gabeko familia nuklearra (% 29,96). Beste familia mota batzuk, hala nola konposatuak, zabalduak edo polinuklearrak, nabarmen atzean geratzen dira.

Bestalde, 2035erako proiektzioak, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta, adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoan behera egingo duela etxe bakoitzeko pertsonen batez besteko proportzioak: 2,38 pertsona/etxe gaur egun eta 2,27 pertsona/etxe 2035ean.

Datu horiekin, 25.1 artikuluan definitzen da oinarritzko bizikidetza-unitatea, ahaidetasun-lotura, ezkontza-lotura edo horren antzeko lotura duen familiaren ingurukoa, baina kontuan hartutako odolkidetasunaren eta ezkontza-ahaidetasunaren maila murriztu eta bigarren graduan kokatzen da, euskal familien orainari eta etorkizunari hobeto egokitzen delako.

Bizikidetza-unitateen definizioari zor zaion malgutasuna emateko asmoz, bizileku berean bizi diren eta ahaidetasun-loturarik, ezkontza-loturarik edo horren antzeko loturarik ez duten pertsonak aukera ematen zaie askatasunez elkartzeko, bizikidetza-unitate bakarra osatze aldera, edo, bestela, pertsona bakarreko bizikidetza-unitateei eusteko. Baina, azken kasu horretan, prestazioaren zenbatekoa zehaztean adieraziko diren ondorio ekonomikoen mende jarri beharko dute.

Ezohiko unitateei dagokienez (26. artikulua), lehendik daudenei gehitu zaizkie gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak, eta pentsiodunak.

Bestalde, ezohiko unitateen gehieneko iraupena hiru urtera arte aldatzen da, BGDSaren ildotik. Muga horretatik salbuetsita daude, jakina, pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateak, horien iraupena mugagabea izango baita.

27. artikulua egun dagoen hutsunea betetzen du, eta ezkontzaren antzeko lotura definitzen du lege honen ondorioetarako. Izatezko Bikoteak erregulatzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearekin paralelismo egokian, baina, aldi berean, formalizatu gabeko bikoteen errealitatea aintzat hartuta, haien existentziaren *iuris tantum* presuntzioa ezartzen baitu, bizikidetza-modu bakoitzaren erregulartasuna, normaltasuna eta probabilitatea kontuan izanda. Hori aplikatzearen ondorioz, saihestu egingo da bizi-komunitate egonkorrek modu artifizialean banatzea prestazioaren ondorioetarako soilik, eta, gainera, prestazioa kudeatu eta tramitatzeko mesedegarria izango da.

Azkenik, ezabatu egiten da orain arte erregelamenduz ezarritako muga, bizileku bakoitzeko aitortutako DSBE-en gehieneko kopuruari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak aldarrikapen historiko bat da hori, Arartekoak ere proposatua 2021eko martxoaren 18ko azterlan honetan: “Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin. Diagnostikoa eta jarduteko proposamenak”.

3. atalak titularren eta onuradunen betebeharrak arautzen ditu, eta aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu, betebeharren katalogoa objektibatzera bideratuak, zuzeneko lotura baitute prestazioaren xedearekin. Hala, ezabatu egiten dira funtzionaltasunik gabeko betebeharrak edota, egiaztatu ahal izateko, titularren eta onuradunen esparru pribatuan sartzea eskatzen dutenak, halaberrez hautazkoa den azterketa batetik zenbait jokabide edo gastu kontrolatzeko justifikazio bakarrekin.

29. artikulua, berriz, agertzeko betebeharra ezartzen du. Lege-mailako arau batean jasota egon behar du betebeharrak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 19. artikulua xedatutakoaren arabera. Neurri proportzionatua da, eta justifikatuta dago titular eta onuradunek laguntzeko duten betebeharrean eta mekanismo eraginkor bat ezartzeko premian. Mekanismo horrek bidea eman behar du, beste batzuekin batera, benetako bizilekuaren betekizuna egiaztatzeko, hori bereziki garrantzitsua baita prestazioa bidegabe edo iruzur bidez jaso izanaren zantzu sendoak dauden kasuetan.

Azken batean, prestazioa behar bezala kudeatzen dela bermatzeko betebeharrak txertatu dira, dagoen premiaren eta haren irismenaren analisi egokia egiteko. Horrez gain, beste betebeharrak batzuk ere sortu dira —premiaren balorazioan laguntzea, gizarte- eta lan-diagnostikoa egitea, edo enplegurako prest egotea—, prestazioaren eta inklusiorako ibilbide baten garapenaren arteko loturatik sortuak; helburua da pertsonaren zailtasunak gainditzeko saiakerak, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak bermatu duen bezala (Digest of the case law, 2018ko abendua).

30. artikulua obligazioen salbuespenari buruzkoa da, eta, atal hau ixteko, bereiztu egiten ditu prestazio ekonomikorako eskubidea eta inklusio-prozesuaren bilakaera behar bezala objektibatuta eta kalibratuta dauden kasuak; izan ere, inklusioarekiko banakako konpromisoa behar bezala egiaztatuta dago kasu horietan: baldintza pertsonalek edo teknikariek egindako balorazioak pentsarazten dute ez dela beharrezkoa betebeharrak jakin batzuk eskatzea, eta eskakizun formal hutsa edo alferrikakoa dela.

4. atala zenbatekoa zehazteari buruzkoa da, eta -aldaketa esanguratsuak sartzen ditu.

1) Alde batetik, bizikidetza-unitate bati dagokion gehieneko errenta bermatua zehazteko, 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, zenbateko jakin batzuen batura egiten da, eta zenbateko horiek orain arte existitzen ez ziren kontzeptuetan sartzen dira:

a) Oinarritzko zenbatekoa, 32. artikuluan arautua: Euskal Autonomia Erkidegoan, bizileku batean oinarritzko premiak asetzera bideratzen den gutxieneko gastuaren adierazpena. Horren zenbatekoa, hileroko erreferentziatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak zehaztuko du. Dena den, Legea indarrean jartzen den urtean, zenbateko hori bat etorriko da BGDSaren onuradun indibidual bati dagokion hileroko errenta bermatuaren zenbatekoarekin. BGDSa “zoru-prestazio” gisa, gutxieneko erkide gisa, hartzearen ondorio logikoa da hori.

b) Osagarri indibidualek —33.1 artikuluan arautzen dira— bizikidetza-unitatearen gastuen banaketa kuantifikatzen dute, kontuan izanda hura osatzen duten pertsonen kopurua, familia-unitatearen baliokidetasun-koefizienteak erreferentziatzen hartuz —familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 6. artikulutik ateratzen dira koefiziente horiek—. Hain zuzen, horregatik kuantifikatzen da titularraren osagarria oinarritzko zenbatekoaren % 50ean, eta bizikidetza-unitatea osatzen duten gainerako pertsonen osagarria oinarritzko zenbatekoaren % 30ean.

c) Bizikidetza-unitatearen ezaugarriak lotutako osagarriak 33.2 artikuluan arautzen dira, eta bizikidetza-unitate hauei aplikatuko zaizkie: guraso bakarreko bizikidetza-unitateak, gizakien salerosketaren, genero-indarkeriaren, sexu-esplotazioaren eta etxeko indarkeriaren biktimak, pentsiodunak eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak, arrazoi horregatik pentsiorik jasotzen ez badute. Osagarri horiei oinarritzko zenbatekoaren % 40ko balioa ematen zaie pentsiodunek osatutako unitateetan, eta % 25ekoa gainerakoetan.

2) 34. artikulua arautzen du prestazioa eskuratzea dakarten baliabideak kalkulatzeko aldi konputagarrien zehaztapena, eta eskubidea egiten den hilabetera mugatzen du epe hori. Gainera, zenbatekoa hiru hilean behin eguneratzea aurreikusten du. Eguneratze horietan, kontuan hartutako hiruhilekoan eskuragarri dauden errenta eta diru-sarrera guztiei erreparatu zaie.

Formula horri lotutako onurak garrantzizkoak dira, bai kudeaketa arintzearen ikuspegitik, bai bidegabe jasotako diru-sarrerak desagerraraztearen ikuspegitik —hori da, hain zuzen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketak duen arazorik larrienetako bat—, baita prestazioaren onuradunak babestearen ikuspegitik ere, ez baitaie DSBEaren babes-ekintza murriztuko.

3) 35. artikuluan indize zuzentzaile bat ezartzen da, bizileku berean bizi den bizikidetzaren unitate bat baino gehiago dagoen kasuetan prestazioaren azken zenbatekoa kalkulatzeko. Indize horrek egoera horretan sortzen diren eskala-ekonomiak islatzen ditu, eta ezinbestean gastu partekatuak egongo dira, nahiz eta prestazioaren kuantifikazioan intzidentzia neurtua izango duten.

4) Azkenik, 40. artikulua programatikoagoa da, eta errotiko aldaketa iragartzen du pizgarri horien kontzepzioan; izan ere, izaera mugagabea dute, eta horri esker ezabatu egiten da aldi baterako iraupenaren ondorioz lan-merkatuari eusteko pizgarririk eza.

5. atalak prestazioa etetea eta azkentzea arautzen du.

Legeak eutsi egiten dio prestazioa eteteko eta azkentzeko araubide klasikoari, zeina bereizita baitago zehatzeko ahala baliatzetik, jurisprudentziaren abala jaso baitu.

Kategoria kontzeptual haiei eustearekin batera, aldaketak ezartzen dira haien araubide juridikoan:

1) 43. artikulutik 45. artikulura, familiak babesteko mekanismo berri bat sartzen da.

Prestazioaren ordainketaren etendura partziala da, baldin eta denbora-tarte jakin batean benetan autonomia-erkidegotik kanpo bizi bada, izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko egoitza-zerbitzu bateko plaza bat aldi baterako okupatzen bada, osorik funts publikoekin finantzatuta, edo betebeharrak jakin batzuk betetzen ez badira. Horrela, eteteak banakako osagarriei soilik eragingo die, eta horiei bizikidetzaren unitatearen ezaugarriak loturikoak gehitu ahal izango zaizkie, kasuaren arabera.

2) 45. artikulua, betebeharrak ez betetzeagatik etetearen ondorioak jorratzeaz gain, lehen aldiz arautzen du zer kasutan joko diren justifikatutzat lanaldi-murrizketa edo borondatezko eszedentzia edo enplegurako prestakuntza-ikastaro bati uko egitea, uztea, bertara ez joatea edo enplegurako hautaketa-prozesu batean parte hartzea. 48. artikulua, paraleloki, identifikatu egiten du zer kasutan jotzen diren justifikatutzat enplegu-eskaintza bati uko egitea edo lan-jarduera borondatez uztea.

Erregulazio horrek, izaera tekniko eta kasuistikoa duenez, bereziki egokia da erregelamenduzko esku-hartzea, azken xedapenetako hirugarrenean aurreikusi bezala; hala ere, legean aurreikusitakoak segurtasuna ematen du eta, aldi berean, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren eta erakunde-maila desberdinetatik bultzatzen ari diren familia eta lana bateragarri egiteko politiken arteko beharrezko koherentzia bermatzen du.

3) 46. artikulua prestazioa etetearen ondorioei buruzkoa da, eta etetearen iraupena, ondorio-data eta amaiera-data zehazten ditu.

4) 47. artikulua, prestazioa kautelaz eteteari buruzkoa da, lehenengo aldiz aurreikusten du prestazioak ezin izango diola eragin prestazioaren oinarriko zenbatekoari, baliabiderik ez dagoenean, edo ondoriozko zenbatekoari, halakorik badago, kautela-neurriaren eraginpean dagoen bizikidetzaren unitateak adingabeak dituenen.

Horrela, adingabearen interes gorena hartzen da kontuan, legea egituratzen duen printzipioa baita, eta bereziki nabarmena da adingabeei eragin diezaieketen kargak ezartzen dituzten egintzen ondorioak leuntzen saiatzen diren neurriak definitzeko orduan.

5) 48. artikulua prestazioa jasotzeko eskubidea azkentzeko erabakigarriak diren kasuak eta horien ondorioak zerrendatzen ditu.

Az kentzeak berez dakarren prestazio-galeraz gain, prestazioaren titularrak ezin izango du prestazioa eskatu urtebeteko epean, DSBEa az kentzea eragiten duten ez-betetze orokorren kasuan, eta bi urtean, az kentzea honako hauen ondorio bada: funtsezko zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak erantzukizunpeko adierazpenean eta horiekin lotutako beste inguruabar batzuk, aitortutako prestazioa bidegabeta dela agerian uzten badute.

Aurreikuspen horrek proportzionaltasun hertsiko parametroetatik abiatuta lotzen ditu, batetik, Administrazioak eskatzaileen adierazpenetan jartzen duen konfiantza eta, bestetik, prestazioaren titularrei edo onuradunei egotz dakiekeen arrazoiren batengatik prestazioa galtzearen ondorioak.

6) Azkenik, 49. artikulua, atala ixteko, prestazioa az kentzearen ondorioak arautzen ditu bizikidetz-unitatean adingabeak daudenean. Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituenak, 2. artikuluan arautzen du arau hori. Artikulu horrek erakunde publiko zein pribatuei, auzitegiei eta legegintza-organismoari ezartzen die adingabearen interes gorenaren baloratzea eta aintzat hartzea, beste edozein interes legitimoren gainetik.

Hirugarren kapituluak GLLei buruzkoa da, eta, horren bidez, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren alde ekonomikoa osatzen da. Prestazio horiek gizarte-prestazio autonomiko asistentzialak dira, dirulaguntza izaera dute, eta pertsona hauek dituzte xede: baliabide nahikorik ez dutenak gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei —ohikoei edo ezohikoei— aurre egiteko.

Kapitulu horren erregulazioak ez du aldaketa esanguratsurik sartzen 18/2008 Legearekiko, lege honetan aurreikusitako bizikidetz-unitateen konfiguraziora egokitzea eta onuradunen baliabide guztiak kontuan hartzea eskatzen duten aldaketetatik haratago.

Laugarren kapituluak Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio eta laguntzen araubide ekonomikoa erregulatzen du, 18/2008 Legean ezarritakoari jarraituz, baina hiru beritasun hauek sartzen ditu:

a) Bidegabe jasotako prestazioak eta laguntzak itzultzeko araubidearen erregulazioa, legearen 64. artikuluan jasotakoa. Horren arabera, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra exekutiboa da, zenbateko horiek itzuli beharra deklaritzen duen ebazpena administrazio-bidean irmo denetik. Era berean, konpentsazio bidezko ordainketari ematen zaio lehentasuna, prestazioen titular izaten jarraitzen duten zordun askoren kalteberatasun ekonomikoko egoerara hobeto egokitzen delako.

Bi neurri horiek administrazio egokirako eskubidearen alde egiten dute.

b) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioen titularren eta onuradunen erantzukizun solidarioa aurreikustea, baita, egitate, omisio, negozio edo egintza juridikoen ondorioz, prestazio bat iruzurrez lortzen parte hartzen dutenen erantzukizun solidarioa ere.

c) da Bidegabe jasotako prestazioen preskripzioari buruzko araubidea zehaztea. Lau urteko epe orokorrari eusten zaio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei aplikatzekoa zaien araudiaren ondoriozko epearekin bat dator. Hala, epea zenbatzeko *dies a quo* ezartzen da, baita epe hori eteten den kasuen zerrenda ere, segurtasun juridikoaren mesedetan, argi eta garbi.

Bidegabeki jasotako prestazioen preskripzio-araubidea definitu du 65. artikulua, eta bi urtera murriztu du epea, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen hartzaileen egoera bereziari hobeto egokituta. Ildo horretan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideen babesa proportzionaltasun-parametroetatik babesten da, eta, aldi berean, bazterkeria jasaten duena edo jasateko arriskuan dagoena ez da denbora luzean ebazpenaren zain eta ziurgabetasunean egongo.

Preskripzio-epea eskubidearen berezitasunetara eta kudeaketa eraginkorren eskakizunetara egokitu da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 44. artikuluan aurreikusitako esparruaren barruan.

Bestalde, artikulua preskripzio-epearen zenbaketaren *dies a quo* ezartzen du, bai eta preskripzio-epea eteten den kasuen zerrenda ere, segurtasun juridikoaren mesedetan, argi eta garbi.

- III. titulua prozedurei buruzkoa da eta lau kapitulak osatzen dute.

Lehenengo kapitula xedapen orokorrei buruzkoa da. Honako hauek arautzen ditu: Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak eta laguntzak tramitzeko eta aitortzeko eskumena, prozeduraren oinarritzko printzipioak, lege honetan aurreikusitako prestazio eta laguntzei lotutako prozeduren esparruan pertsonak dituzten eskubideak, bitarteko elektroniko bidez harremanak izateko eskubidea eta jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak.

Kapitulu honek erakusten du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren kudeaketari eman nahi zaion bilakaera eta aldaketa, prestazio eta laguntzen tramitazioa bizkortuta eta haren jardura herritarren zerbitzura bideratuta.

Legeak jaso egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legetik eratorritako printzipioak eta eskubideak, eta 66. artikuluan administrazio egokirako eskubidea aldarrikatzen du, artikulua hauetan xedatutakoaren ildotik: Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua (2010/C 83/02) eta gaur egun Legebiltzarrean tramitatzen ari diren Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuaren 65. artikulua.

Eskubide horrek protagonismo nabarmena hartu du azken urteotan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren jurisprudentzian. Horrek behartu egiten du Administrazioaren jardunbideak berraztertzea, beharrezko zaintza eta arreta defendatzen duen paradigma berri batetik abiatuta; zabarkeriaren kudeaketa baztertzen du, eta prozeduraren eta izapideen betetze hutsetik harago doa.

68. artikulua administrazio onerako eskubidearen esanahia zehazten du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua gidatu beharko du bere eskumenak egikaritzean. Horretarako, hain zuzen ere, kontuan hartu da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak aitortzeko prozedurak garatzen diren testuinguru berezia.

69. artikulua erregulatzen du harremanak bitarteko elektroniko bidez izateko eskubidea, zerbitzu elektroniko irisgarritasuna bermatuta, bazterketa digitalean ez egoteko eskubidea babestuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei beren zeregina aitortuta gero eta digitalagoa den ingurune bateranzko eraldaketan, eta Euskal Sistemako prestazioen titularren eta onuradunen alfabetatze digitalaren alde eginda, Europako Batzordeak Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari berriki helarazitako Komunikazioaren ildotik: Iparorratz digitala 2030: Europaren bidea hamarkadarako; COM (2021) 118 azkena, 2021eko martxoaren 9koa.

Bigarren kapitula prestazioak aitortzei buruzkoa da, eta bi ataletan egituratzen da. Lehen atalak prozeduraz dihardu. Prozeduraren hasiera, zuzenketa, instrukzioa eta ebazpena arautzen ditu, eta eskabide-eredu normalizatuen arauak zehatza jasotzen du. Bigarren atala erantzukizunpeko adierazpenei buruzkoa da, eta berritasun garrantzitsua da lege honetan.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako hartzaileenganako konfiantzaren aitortze handiena erakusten du, bai eta hartzaile horiek erabateko erantzukizuna bereganatuko dutela ere, aitortze horren ondorioen garrantziari lotuta.

Erantzukizunpeko adierazpenek prestazioa eskuratzea errazten diete premia-egoeran dauden pertsona guztiei, eta, aldi berean, interes publikoak babesten dituzte. Izan ere, adierazpen horien inguruan kontrol-dinamika garrantzitsuak sortzen dira, Sistemari kalterik etor ez dakion. Gainera, ondorio zorrotzak ezartzen zaizkie faltsutzei, funtsezko zehaztasunik ezari

edo erantzukizunpeko adierazpenarekin lotutako beste edozein inguruabarri, baldin eta agerian uzten badute prestazioa bidegabe aitortu dela.

Erantzukizunpeko adierazpenak ezinbesteko pieza dira Sistemaren garapen elektronikorako, beste administrazio publiko batzuekin informazioa trukatzeko den bezalaxe. Hain zuzen ere, erantzukizunpeko adierazpenen funtzionaltasuna zabaltzen da, 78.2 artikulua ezartzen duenez, eskabidea osatzeko behar diren dokumentuak telematikoki egiaztatu ezin direnean edo Administrazioaren esku ez daudenean.

Erantzukizunpeko adierazpenaren ondorioak 73. artikuluan arautzen dira; hain zuzen ere, hura aurkeztu eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrerako ondorioekin aitortuko da prestazioa, hargatik eragotzi gabe Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak balia ditzakeen kontrol-eta ikuskapen-ahalmenak. Nolanahi ere, erantzukizunpeko adierazpenak ez du adierazitako ondorioz izango, baldin eta, egiaztapena egin ondoren (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku dagoen dokumentazioarena, eskatzaileak aurkeztutakoarena edo informazioa trukatzeko sistemen bidezkoa), agerian geratzen bada ez dela bete prestaziorako eskubidea eskuratzeko betekizunen bat.

Hirugarren kapituluak prozedura hauek arautzen ditu: prestazioen zenbatekoa eguneratzea eta prestazioen kontrola.

Prozedura horietako lehenengoaren gauzarik esanguratsuena da DSBEaren aitortzen guztiak hiru hilean behin berrikusten direla, hurrengo hiruhilekoan zein zenbateko egokituko den finkatzeko. Kontuan hartutako aldiak aztertze prozedura zaintzen da, horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa-aukeren arabera behar bezala dimentsionatuta. Jarraian, administrazio-isiltasunaren ondorioak ezartzen dira.

Bestalde, kontrol-prozeduraren xedea da titularraren eta bizikidetzaren unitatea osatzen dutenen betekizunak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, eta ez dakar berritasun esanguratsurik, kontrola zein maiztasunez behin egin beharko den ezartzeaz haratago.

Legeak 85. artikuluan aurreikusi du adimen artifizialeko sistemak erabili ahal izango direla prestazioen kontrolean; izan ere, jakitun da sistema horiek, datozen urteetan, protagonismo handia hartuko dutela administrazio publiko guztien zereginetan. Dena den, sistema horiek etikoki erabiltzeko konpromiso aitortzen du.

Arauketaren abiapuntu dira honako hauetan jasotako kontsiderazioak: “Adimen artifizial fidagarriko jarraibide etikoak” dokumentua, 2019ko apirilaren 8an argitaratua; Adimen Artifizialari buruzko Europako Batzordearen Liburu Zuria —bikaintasunera eta konfiantzara bideratutako Europako ikuspegi bat—, COM (2020) 65 azkena, 2020ko otsailaren 19koa; azterlan doktrinalak, adimen artifiziala administrazio-zuzenbidean eta administrazio publikoaren kontrolean aplikatzeari buruzkoak, edo adimen artifizialaren erabileraren aurreko bermeei buruzkoak (Alejandro Huergo, Susana de la Sierra edo Lorenzo Cotino irakasleek egindakoak, adibide batzuk jartzearen); eta gaiari buruzko erabaki judizial hasiberriak —Italiako Estatu Kontseiluaren 2019ko apirilaren 8ko 2270 eta 2019ko abenduaren 13ko 8472 epaiak, eta Hagako Barruti Auzitegiaren berriena, 2020ko otsailaren 5koa—.

Berriki, Eskubide Digitalen Gutunak, 2021eko uztailaren 14an aurkeztutakoak, bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko eskubidearen irismena zehazteko ere balio izan du, bai eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren adimen artifizialeko sistemak erabiltzeko parametroak zehazteko ere.

Laugarren kapituluak datu pertsonalak babesteari eta informazio emateari buruzkoa da. Errespetua aldarrikatzen du datuak babesteko legeriarekiko eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak kudeatzeko espedienteetan ageri diren pertsona guztien datuen konfidentzialtasunarekiko. Halaber, informazio zehatza ematen du prestazio horiek behar bezala kudeatzeko, betiere gardentasun handienaren barruan eta, era berean, kontuan hartuta administrazio eta erakunde publiko guztiek duten erantzukizuna elkarlanean

aritzeko betebeharrean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dituen eskumenak behar bezala egikaritu ditzan.

Era berean, pertsona fisiko edo juridiko pribatuek eta nortasunik gabeko erakundeek informazioa emateko betebeharra jorratzen da, eta eskatu ahal izango den informazio garrantzitsua identifikatzen da, baita eskaera horrek izan beharko dituen bermeak ere.

- IV. titulua ikuskatzeko eta zehatzeko ahalari buruzkoa da, eta itxi egiten du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio ekonomikoei eta laguntzei egiten zaizkien kontrolen sorta. Titulua bi kapitulutan egituratzen da.

Lehenengoaren xedea ikuskatzeko ahala da, eta haren erregulazioak araudiaren zaintza- eta kontrol-parametro klasikoei jarraitzen die. Horrela, ekarpen erabakigarria egiten du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarriak babesteko, titularren eta onuradunen eskubideak babesteko, prestazioen zuzentasuna ziurtatzeko eta horiek eskuratu eta mantentzeko parametro arauemaileetara egokitzeko.

Ikuskapena funtsezko zerbitzua da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari, eta buru ematen dio sistema horren iraunkortasuna eta legitimitatea bermatuko duten neurrien multzoari.

90. artikulua aurreikusten du urtero onartzea laguntza-, ikerketa- eta kontrol-plana. Horren helburua izango da ez-betetzeei aurrea hartzea, eta sustatzea norberak bere borondatez bete ditzan Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak aitortzeko eta jasotzeko betebeharrak.

Gainerakoan, 93. eta 94. artikuluetan aipatzen dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Ikuskaritzaren eginkizunak eta ahalmenak. Horiek beharrezkoak dira lege honetan eta lege hau garatuko duen araudian xedatutakoa betetzen dela bermatzeko.

Bigarren kapitulua zehatzeko ahalari buruzkoa da. 97. artikulua erregulatzen du legean aurreikusitako arau-hausteak egiteagatiko erantzukizuna erregulatzen du, eta 16 urtetik gorako erantzukizuna ezartzen du, lana lortzeko aukerarekin behar bezala lotuta —aukera hori aurreikusita dago Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan—. Horretarako, enpleguaren funtzionaltasunari erreparatzen dio, lege honek pertsonen inklusioa antolatzeke hartzen dituen ardatzetako bat den heinean.

98.etik 100.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako arau-hausteak honela sailkatzen dira: arinak, astunak eta oso astunak. Sailkapen horrek zehazki islatzen ditu babestutako ondasun juridikoak eta horiek urratzearen eta horiei kalte egitearen ondoriozko gaitzesgarritasuna.

Zehapenak funtsezko hiru berritasun dituzte:

a) Lehenak zerikusia du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio eta laguntzen titular edo onuradunek egindako arau-hauste astunenetarako isun-zehapenak kentzearekin. Hala ere, zehapen horiei atxikitzen zaie —arau-haustearen astuntasunaren proportzio egokian— honako neurri hauek: prestazioak azkentzea, gizarte-larrialdietarako laguntzen kobrantza azkentzea eta, hala badagokio, jasotako laguntzak itzuli behar izatea, baita horiek eskuratu ezin izatea ere urte eta erdi eta hiru urte bitarteko aldi —aldi hori bost urtera arte luzatu ahal izango da astuntasun bereziko inguruabarretan—.

Prestazioa azkentzeko zehapenari lotutako ondorioak zehazteko, era berean, adingabearen interes gorena hartu da kontuan, aipatutako Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Bigarren berritasuna da zehapenen katalogo bat aurreikusi dela Sistemaren prestazioen titular edo onuradun ez diren erantzuleentzat.

c) Hirugarren berritasun gisa, aurreikusten da hamasei urtetik gorako eta hemezortzi urtetik beherako arduradunek aukera izango dutela interes sozialeko prestazioak egiteko, 102.

artikuluaren ezarritako zehapenen ordean, haien berariazko baimenarekin betiere. Prestazio horiek adingabetasunera egokitutako aldietan luzatuko dira. Horrela, zehapen-arloko legezkotasun-printzipioa errespetatuko da.

Gizarte-intereseko prestazioak adingabeentzat bereziki egokiak direla jo da, beren hezkuntza-helburuagatik eta helburu hori betetzearekin lotutako bermeengatik.

- V. tituluak gizarte- eta lan-inklusioko tresnak eta zerbitzuak erregulatzen ditu. Titulu hau osatzen duten lau kapituluak gai hauek jorratzen dituzte, hurrenez hurren: zerbitzu hauei buruzko xedapen orokorrak; gizarte- eta lan-diagnostikoko ezarritako tresnak eta onuradunen beharren balorazioa; Inklusioko Programa Integratu eta Pertsonala (IPIP); eta lan- eta gizarte-inklusioko programak eta zerbitzuak.

Xedapen orokorrean dagokienez, berritasun nagusia erreferentziako profesionala esleitzean datza. Izan ere, profesional hori, laneratzeko zerbitzuen hartzaileen kasuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak esleitu du.

Dituzten beharren arabera gizarte-zerbitzuen hartzaile diren pertsonen dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren funtzionamendua erregulatzen duen araudiak xedatutakoa beteko da. Orobat, aukera ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialak erakundeak laguntzailatzat onartzeko onuradunak lan- eta gizarte-inklusioko prozesuetan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 10. artikuluan aurreikusitakoaren antzera.

Bigarren kapituluak triaje-tresna baten berehalako aplikazioa sartzen du, onuradunen beharrak hautematera eta diagnostikoko esku-hartu behar duten sistemak identifikatzera bideratuta, gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuaren preskripzioa edo, hala badagokio, enplegua aktibatzearen programaren preskripzioa barne hartuko dutenak.

IPIPak ordezkatu egiten du aurretik indarrean zegoen araudiko inklusio aktiborako hitzarmena, eta titulu honen hirugarren kapituluaren arautzen da. Esku-hartze individualizatuak ardazteko, diru-sarrerak bermatzeko prestazioaren titularrak eta onuradunak programa hori negoziatzera eta sinatzera behartuta egongo dira diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratu dutenetik urtebete igarotzean, hargatik eragotzi gabe inklusioko tresna hori BGDSa jasotzen duten pertsona guztiei eskaintzea.

Une horretatik aurrera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziako profesional bat esleitu du IPIParen sustapenaz, negoziatzeaz, sinaduraz, jarraipenaz eta ebaluazioaz ardura dadin Programa prestatzean agerian geratuz gero gizarte-zerbitzuen esku-hartzea lehenetsi beharra dagoela, erreferentziako profesionala sistema horretan kokatu da.

Nolanahi ere, legeak berehalako esku-hartzearen aldeko apustua egiten du inklusioaren helburua lortzeko, hainbat tresnaren bitartez, eta tresna horiek, hala badagokio, IPIPan txertatu dira.

Laugarren kapituluak lan- eta gizarte-inklusioko programak eta zerbitzuak erregulatzen ditu. Horien oinarri dira enplegarritasuna hobetzeko laguntza-programa individualizatuak — Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskaintzen ditu eta bermatuta daude—, baita inklusiora bideratutako euskal administrazio publikoen beste programa eta zerbitzu batzuk ere.

Nabarmentzekoa da 119.2.b) artikuluan jasotako aurreikuspena. Horren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak konpromisoa hartzen du, IPIParen esparruan, gutxienez enplegu-eskaintza bat egiteko lan-merkatu arruntan edo publikoki diruz lagundutako programen bidez, edota ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzei aukera emango duen prestakuntza-jardura bat eskaintzeko.

- VI. titulua Inklusioko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema planifikatzeari eta garatzeari buruzkoa da, eta VII. titulua, berriz, sistema horren eskumen-araubideari eta finantzaketari buruzkoa. Funtsean, biek orain arte indarrean zegoen erregulazioari eusten diote.

Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalei esleitzen zaizkien eskumenek Autonomia Estatutua, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea errespetatzen dituzte.

Azken horri dagokionez, esan behar da gaur egun udalerriei esleitutako ahalmenei eustea, funtsean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean oinarritzen dela; izan ere, lege horretan txertatzeari lotutako eskuduntza asko ezartzen dira (pertsonen informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa, gizarte-diagnostikoa, arreta pertsonalizatuko plana eta abar egitea), eta lege horrek ez du inolako aldaketarik eragiten.

Gainerakoan, udalei inklusioaren arloko plangintza-ahalmenak eta gizarte-larrialdietarako laguntzen arloko eskumen garrantzitsuak aitortzen zaizkie, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari esleitzen zaizkio diru-sarrerak bermatzeko errentaren aitorpena eta kudeaketa, subsidiarioratasun- eta proportzionaltasun-printzipioek ondorioztatzen duten bezala; izan ere, erkidego-mailan soilik bermatu ahal izango da eduki ekonomikoko eskubidearen definizioan beharrezkoa den homogeneotasuna, eta maila bereko kudeaketak bakarrik bermatuko du aitorpen eta kudeaketa uniformea egiten, bestela, ezinezkoa litzateke eta.

- VIII. titulua lankidetzari, koordinazioari eta parte-hartzeari buruzkoa da, eta Inklusiorako Erakundearteko Batzordea arautzen du, euskal administrazio publikoen arteko elkarlanerako erakunde gorenaren heinean. Bestetik, Inklusiorako Euskal Kontseilua kontsultarako eta parte hartzeko organo gisa eratzen du.

- Azkenik, IX. tituluak Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa eta Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa arautzen ditu, legeak gardentasunarekin eta kontuak ematearekin duen konpromisoaren erakusgarri gisa.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamendua, emaitzak, kalitatea eta kudeaketa-egituren eta osagaien eragina bi urtean behin ebaluatuko dira, 142. artikulua ezartzen duenez.

Horretarako, ebaluazioa organo independente bati esleitzen zaio, Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoari, hain zuzen ere. Bigarren kapitulua organo horren erregulazioari buruzkoa da.

Organo hori sortzean, ebaluazioaren kulturen sakontzen da, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren eragina duten jardura-arlo anitzetan kalitatea hobetzeko bitarteko egokiena den aldetik, eta, aldi berean, gizarteari etengabe informazioa emateko fluxua lortzen eta bideratzen laguntzen da, Sistema horren errendimendua hobetuko duen gardentasun-esparru batean.

Aldi berean, Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak eraginpeko botere publikoei lagunduko die beren eskumenak ahalik eta egokien planifikatzen eta garatzen, bai eta lankidetzaren eta partaidetza-organoei ere, beren eginkizunak betetzean optimizazioa eta erantzukizuna izan dezaten; izan ere, organo horrek egiten duen ebaluazioaren emaitza kontuan hartu beharko dute, eta haren gomendioak baztertzeko arrazoiak eman beharko dituzte.

Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa administrazio-organoa espezializatua da, eta, bere funtzioak betetzean, objektibotasun eta independentzia funtzional osoz jardungo du, eta eskumen-esparrutzat du diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko ebaluazioa, eta berrikuntzaren eta ikerketaren sustapena.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari aplikatutako baliabide publikoen garrantziak eskatzen du kontuak etengabe ematea, baita zabaldutako politikak eraginkorrak direla, eskatzekoak diren jasangarritasun-parametroetara egokitzen direla eta gizarte osoaren mesederako direla bermatzea ere. Horretarako, Organoa ezinbesteko tresna da euskal administrazio publikoek bazterketa prebenitzen eta desagerrarazten esku hartzeko gaitasunak garatu eta etengabe hobetu ditzaten.

I. TITULUA-XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Lege honen xedea da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea. Sistema hori bideratuta dago pertsonak baztertuta geratzeko arriskua prebenitzera, bazterketa pertsonal, sozial eta laboreko egoerak arintzera, bizitza duina bermatzera eta baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenek gizartean erabateko inklusioa lortzera.

2. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren definizioa eta egitura

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema inklusio-politika sustatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren egitura, prestazio eta zerbitzuen multzoa da.

2. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren egitura honako hauek osatzen dute: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, gizarte-zerbitzuek eta, beharrezkoa denean, hezkuntza-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuek.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio- eta zerbitzu-osagaiak 5.etik 7.era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoak dira.

3. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren printzipioak

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema printzipio hauek arautzen dute:

a) Eskubide bikoitza. Prestazio publiko ekonomikoak jasotzeko eskubide subjektiboa aitortzen da. Helburua da behar bezala aurre egitea bizitzaren oinarritzko premiei eta lan- eta gizarte-inklusiorako laguntza pertsonalizatua bermatzera bideratutako tresna eta zerbitzuei.

b) Unibertsaltasuna. Lege honetan eta honek adierazten dituen legeetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituen edonork eskuratu ahal izango ditu haietan erregulatutako prestazioak.

c) Berdintasuna eta ekitatea. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bermatu egingo dute lege honetan aurreikusitako prestazioak eta laguntzak berdintasun-baldintzetan eskuratzea, ekitate-irizpideen arabera, baldintza pertsonal edo sozialei lotutako inolako bereizkeriarik gabe, eta modu homogeneoan Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.

d) Elkartasuna. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak herritar guztien elkarlana eta erantzunkidetasuna sustatuko ditu, haiek lan- eta gizarte-inklusiorako, autonomia lortzeko eta gizartean parte hartzeko helburuak lortzearren.

e) Genero-ikuspegia sartzea. Euskal politika publikoen osotasunarekin koherentziaz, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak lagundu egingo du emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazi eta haien berdintasuna bultzatzeko helburu

orokorrean, eta, bereziki, pobreak emakumezkoengan duen eragin handiagoa prebenitzen eta arintzen.

f) Haurrak babestea. Euskal politika publikoen osotasunarekiko koherentziaz, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak lagundu egingo du pobreak haurrengan duen eragina prebenitzen eta arintzen.

g) Enplegua aitortzea. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bermatuko du lan-merkatuan sartzea aukera erakargarriagoa eta errentagarriagoa izan dadin lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoak jasotze hutsa baino.

h) Gizarte-inklusiorako politikaren zeharkakotasuna. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, beharrezkoa denean, beste sistema sektorial batzuen esku-hartzea bermatuko du, hala nola gizarte-zerbitzuena, osasunarena, hezkuntzarena eta etxebizitzarena, onuradunek benetan eta eraginkortasunez inklusioa lortzeko helburuarekin.

i) Arreta pertsonalizatua, malgua, integratua eta etengabea. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak arreta integratua, pertsonalizatua, goiztiarra eta malgua eskainiko du, onuradunen behar partikularretara egokituta, behar horiek irauten duten bitartean.

j) Baliabideen kalitatea eta optimizazioa. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamenduak irizpide hauei erantzun beharko die: kalitatea, baliabideen aprobetxamendu optimoa eta prozeduren etengabeko hobekuntza.

k) Euskal administrazio guztien koordinazioa eta inplikazioa. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazio publikoek koordinazio- eta lankidetzaren printzipioen arabera jardungo dute, elkarri laguntza emanez, baita lege honen aurreikuspenak eraginkortasunez aplikatzeko behar diren informazioa eta lankidetzaren emanez ere.

l) Parte-hartzea. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak sustatu egingo du erabiltzaileek, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeek eta herritar guztiek parte hartzea gizarte- eta lan-inklusiorako prozesuetan.

m) Ebaluazioa. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamendua ebaluaziopean egongo da. Ebaluazioaren emaitzak gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko legearekin bat etorriz argitaratuko dira.

4. artikulua.- Arreta-eredua

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, aurreko artikuluan aipatutako printzipioekin bat etorriz, arreta pertsonalizatu, malgu, integratu, etengabe eta profesionaleko eredu bat bermatuko du, aurrerapen teknologikoez baliatuko dena, hala eskatzen zaionean aurrez aurreko arreta bermatuko duena, ikuspegi inklusiboa, komunitarioa eta hurbiltasunezkoa eskainiko duena eta prebentzio-jarduerari eta ohiko ingurunean arretari lehentasuna emango diona, betiere posible eta komenigarri bada.

5. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren osagaiak

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak osagai hauek ditu:

- a) Prestazio ekonomikoak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak.
- b) Lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuak.

6. artikulua.- Prestazio ekonomikoak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak honako hauek dira:

- a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta.
- b) Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, horren araudiak xedatzen moduan.

2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak pertsona hauek ditu helburu: gizarte-bazterketa prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko aski baliabide ez dutenak.

7. artikulua.- Lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuak

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzu hauek ditu:

- a) Egoera eta beharrak baloratzeko tresnak.
- b) Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala.
- c) Enplegarritasuna sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuak.
- d) Gizarte-inklusiara sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuak.
- e) Esku hartzeko beste neurri espezifiko batzuk, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren esparruan.

8. artikulua.- Titularrak, onuradunak eta jasotzaileak

1. Prestazio ekonomikoen eta gizarte-larrialdietarako laguntzen titular dira prestazio eta laguntza horiek aitortzen zaizkien pertsonak, lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudian ezarritakoaren arabera aitortu ere.

Lan- eta gizarte-inklusioko tresna eta zerbitzuen titular dira egoeraren eta beharren hasierako balorazioaren hartzaileak, baldin eta Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala sinatzen badute, eta enplegarritasuna sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuen, gizarte-inklusiara sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuen edo esku hartzeko neurri espezifikoaren hartzaileak badira.

2. Prestazio ekonomikoen eta gizarte- eta lan-inklusioko tresna eta zerbitzuen onuradun dira titularraren bizikidetza-unitate bereko kideak. Pertsona bakarreko bizikidetza-unitateen kasuan, titularra, era berean, prestazioen eta zerbitzuen onuradun izango da.

Gizarte-larrialdietarako laguntzetan, pertsona bera izango da titular eta onuradun.

3. Prestazio ekonomikoen eta gizarte-larrialdietarako laguntzen ordainketa jasotzen dituzten pertsonak dira hartzaileak. Oro har, prestazioen eta laguntzen titulartasuna duenari egingo zaio ordainketa.

Erregelamenduz zehaztuko da zein kasutan egin ahal izango zaion ordainketa titularra ez den beste pertsona bati. Nolanahi ere, hori bidezkoa izango da 25.2 artikuluan aipatzen diren bizikidetza-unitateetako kideek eskatzen dutenean eta organo eskudunak hala erabakitzen duenean.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari dagokion prestazioaren kasuan, hura erregulatzen duen araudiak xedatutakoa beteko da.

9. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio, laguntza, tresna eta zerbitzuen titular eta onuradunen eskubideak

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio, laguntza, tresna eta zerbitzuen titular eta onuradunei honako eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Informazio osoa, egiazkoa, jarraitua, ulergarria, eskuragarria, nahikoa eta eraginkorra lortzea prestazio ekonomikoari, gizarte-larrialdietarako laguntzei eta lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuei buruz.

b) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak, laguntzak eta zerbitzuak aitortzeko eta izapidetzeko administrazio eskudunen aurrean agertzen diren desgaitasuna duten pertsonen ulertzeko eta ulertuak izateko duten eskubidea bermatzea.

Zehazki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatu egingo du hizkera argia, erraza eta eskuragarria erabiliko dela desgaitasuna duten pertsonen egiten diren komunikazio guztietan (ahozkoak zein idatzizkoak), haien ezaugarri pertsonalak eta premiak kontuan hartuta, eta desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzen dion pertsonari egin ahal izango zaio jakinarazpena. Administrazio-egintza baten eraginkortasuna jakinarazpenaren mende dagoenean, jakinarazpena administrazio-prozedura erkidearen legerian xedatutakoari lotuko zaio.

Desgaitasuna duten pertsonen behar duten laguntza edo babesa emango zaie pertsona horiek beren burua uler dezaten, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

c) Arreta pertsonalizatu integratua, goiztiarra eta malgua jasotzea, alderdi indibidualak, familiakoak eta komunitarioak kontuan hartuko dituen.

d) Prestazioak, laguntzak eta zerbitzuak pertsonaren konfidentzialtasuna, duintasuna, intimitatea eta datu pertsonalen babesa errespetatuz jasotzea, betiere haren oinarritzko eskubideak eta askatasunak bermatuta.

e) Inklusiorako zerbitzuak diseinatzen eta programatzen parte hartzea lege honetan aurreikusitako moduan, eta askatasunez hautatzea erreferentziazko profesionalak azaltzen dizkion aukeren artean.

f) Erreferentziazko profesionala ordezkatzeko eskatzea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

g) Informazioa jasotzea eskuragarri dauden inklusiorako zerbitzuei eta diagnostikatutako beharrei buruz, bai eta inklusio-prozesuaren bilakaerari eta aholkularitzari buruz ere.

h) Enplegararritasuna eta gizarte-inklusioko hobetzeko laguntza-zerbitzuak jasotzea, lege honen V. tituluaren ezarritakoaren arabera.

i) Iradokizunak eta erreklamazioak egitea.

j) Harremanetarako hizkuntza ofiziala aukeratzea, eta hizkuntza hori erabiltzeak inolako diskriminaziorik ez eragitea.

k) Prestazioak, laguntzak eta zerbitzuak izapidetzean, administrazio-prozedura erkidearen legerian aurreikusitako eskubideak, baita administrazio egokirako eskubidea ere.

2. Inklusio-politikaren zeharkakotasunaren esparruan, eta dagokion araudi sektorialak xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek sustatu egingo dute honako eskubide hauek aitortuta izan ditzatela Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio, laguntza eta zerbitzuen titular eta onuradunek:

a) Etxebizitza, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea garatzen duen araudian ezarritako prozeduren esparruan.

b) Lana eta familia bateragarri egitea, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxe publikoetan plazak eskuragarri egongo direla bermatuta, bai eta adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko zentro soziokomunitarioetan ere.

c) Ikasketetarako laguntzak eta bekak hezkuntza-etapa guztietan.

d) Euskadiko Osasun Sistemako prestazioen katalogoan eta zerbitzuen zorroan jasotako prestazioak eta osasun-zerbitzuak.

e) Aisialdiko eta kiroltako udal-zerbitzuetarako sarbidea.

II. TITULUA- INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIO EKONOMIKOAK ETA LAGUNTZAK

I. KAPITULUA-XEDAPEN OROKORRAK

10. artikulua.- Prestazio ekonomikoen eta laguntzen izaera

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskubide subjektibo gisa eratzten dira, lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudian aurreikusitako prestazioak eskuratzeko betekizunak betetzen dituzten pertsona guztien eskubide subjektibo gisa.

2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak izaera asistentzialeko gizarte-prestazio autonomiko gisa eratzten dira, diru-laguntzarik gabe. Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

11. artikulua.- Prestazio ekonomikoen ezaugarriak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentak ezaugarri hauek ditu:

a) Osagarria eta subsidiarioa da titularrak eta bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsonak dituzten baliabide ekonomikoekiko, baita indarrean dagoen legerian aurreikusitako edozein prestazio ekonomiko publikorekiko ere. Prestazio horiek osorik baliarazi beharko dira eskabidea egin aurretik edo, nolanahi ere, izapidetzen den bitartean.

b) Besterenezina da, eta, horrenbestez, ezin izango da eskaini betebeharren berme gisa, osorik edo zati batean laga, konpentsatu edo deskontatu, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik.

Ezin izango da atxiki edo bahitu, Estatuko legeria zibilean eta prozesalean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

c) Mugagabea da. Hortaz, errentaren iraupena luzatu egingo da berori ematea eragin zuten arrazoiak irauten duten bitartean eta errentari eusteko betekizunak eta betebeharrak betetzen diren bitartean.

2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren ezaugarriak horren araudian ezarritakoak dira.

12. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomiko eta laguntzen bateragarritasuna

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren jasotako prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira elkarren artean, lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudian ezarritakoaren arabera.

2. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak honako irizpide hauen arabera aitortuko dira:

a) Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa aitortzeko eta jasotzeko tramiteen lehenetasuna.

b) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren subsidiarotasuna eta osagarritasuna. Horretarako, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbateko aitortua zenbatuko da.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa ezingo da aldatu bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren izan litezkeen aldaketa, etete edo azkentzeen ondorioz, horien sorburu baldin badira azken prestazio horren titularrei eta onuradunei ezarritako betebeharren erruzko ez-betetzeak.

3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta bateragarria izango da gizarte-larrialdietarako laguntzekin.

4. Gizarte-larrialdietarako laguntzak bateragarriak izango dira bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarekin, prestazio horren araudian aurreikusitako moduan.

13. artikulua.- Inklusiorako zerbitzuekin lotzea

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen aitortpena inklusiorako zerbitzuei lotuko zaie, V. tituluan aurreikusitako moduan, hargatik eragotzi gabe lege honek eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudiak xedatzen dutena prestazio bakoitza eskuratzeko betekizunekin eta prestazioaren betebeharrei, eteteari eta azkentzeari buruzko araubidearekin lotuta.

14. artikulua.- Bizilekua

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen ondorioetarako, bizilekutzat hartuko dira etxebizitzari buruzko legeriaren arabera definitutako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak, baita helburu bererako ostatu-zerbitzuak, egoitza-zentroak, ostatu-establezimenduak edo beste batzuk ere. Horien identifikazioa, betekizunak eta funtzionamendu-baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

2. Bizikidetza-unitate batek etxebizitza baten eremu jakin bat eskusiboki erabiltzea bizilekutzat jo ahal izango da, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

3. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren ondoreetarako, bizilekutzat hartuko da haren araudi erregulatzaileak ezartzen duena.

II. KAPITULUA - DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

1. ATALA - DEFINIZIOA, TITULARRAK ETA ONURADUNAK

15. artikulua.- Definizioa

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eratzen da bizikidetza-unitate bateko kideari edo kideei aitortutako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubide subjektibotzat, baldin eta bizikidetza-unitate horrek diru-sarrera nahikorik ez badu oinarritzko premiei lotutako gastuei eta lan- eta gizarte-inklusiorako prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egiteko.

16. artikulua.- Titular izateko betekizun orokorrak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen titular izan ahalko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) 23 urtetik gorakoa izatea.

b) 25. eta 26. artikuluetan aipatzen diren bizikidetza-unitateetako batean sartuta egotea.

23 eta 29 urte bitartekoek, gainera, egiaztatu beharko dute modu independentean bizi direla eskabidea egin baino urtebete lehenagotik gutxienez.

Pertsona bat modu independentean bizi dela ulertuko da egiaztatzen duenean bere bizilekua ez dela bere guraso, tutore edo abegi-emaileena.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, modu jarraituan, eskaera egin aurre-aurreko gutxienez hiru urteetan, edo bi urteetan, modu berean zenbatuta, adingabeak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasun-kalifikazioa duten adin nagusikoak barne hartzen dituzten bizikidetza-unitateetako kide izanez gero.

Epe hori bete ezean, eskaera egin aurreko hamar urteetatik bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egon eta benetan bizi izan beharko dute.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona batek benetako bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duela ulertuko da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako egonaldiak ez badira laurogeita hamar egunetik gorakoak kontuan hartutako urte natural bakoitzaren barruan. Zenbaketa horretan ez dira kontuan hartuko behar bezala justifikatutako gaixotasunaren ondoriozko absentziak edo erregelamendu bidez zehazten diren kausen ondoriozko absentziak.

d) Premia ekonomikoko egoeran egotea, 36. artikuluan aurreikusitako moduan.

e) Eskubidez legozkiekeen pentsio eta prestazio publiko guztiak eskatu izana.

Baldintza hori ez da aplikatuko baldin eta pentsioa edo prestazio publikoa eta diru-sarrerak bermatzeko errenta bateraezinak badira, eta haien zenbatekoa bizikidetza-unitateari kontzeptu horrengatik hilerio legokiokkeen baino txikiagoa bada.

2. Ezin izango dute diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratu espetxe batean erregimen arruntan edo itxian barneratuta dauden pertsonak, ezta izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko egoitza-zerbitzu bateko plaza baten erabiltzaile iraunkorrek ere, plaza hori oso-osorik funts publikoekin finantzatuta dagoenean.

Iraunkortzat joko da egoitza-zerbitzuko egonaldia segidako hamabi hilabetetik gorakoa denean.

Egoitza-zerbitzuaren plaza oso-osorik funts publikoekin finantzatzen dela ulertuko da, baldin eta funts publikoek ordaintzen badituzte emandako zerbitzu guztiak, propioak edo osagarriak, erabiltzailearen ostalua eta mantenua barne, alde batera utzita zerbitzua zuzenean administrazio eskudunak ematen duen edo kontratu, itun edo hitzarmen baten arabera erakunde pribatu batek ematen duen.

17. Artikulua.- Errefuxiatuen, gizakien salerosketaren, genero-indarkeriaren, sexu-esplotazioaren edo etxeko indarkeriaren biktimen, eta adingabeak babesteko eta arau-

hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon direnen edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu dutenen betekizunak.

1. Pertsona errefuxiatuak, babes subsidiariorako eskubidea aitortua dutenak, asilo-eskaera edo nazioarteko babesa izapidetzea onartu zaienak, eta gizakien salerosketaren, genero-indarkeriaren, sexu-esplotazioaren eta etxeko indarkeriaren biktimak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan daitezke, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak izatea.

b) Eskabidea egiten duten egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea.

Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimen kasuan, eskabidea egin baino gutxienez urtebete lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon eta benetan bertan bizi beharko dute.

c) 16. artikuluan ezarritako gainerakoak, gutxieneko bizitzaldi independente bat egiaztatu beharrik gabe.

2. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan ahalko dira honako pertsona hauek: adin-nagusitasunera iritsi aurreko aldiren batean adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon direnak edo adingabeak babesteko legerian bizitza independenterako aurreikusitako prestakuntza-programetan parte hartu dutenak. Horretarako honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Adin nagusikoak izatea

b) Eskabidea egin baino urtebete lehenagotik gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eta bertan bizitzea.

c) Gizarte-inklusiara bideratutako gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuen erabiltzaile izatea, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

d) 16. artikuluan ezarritako gainerakoak, modu independentean bizitzen eramateko gutxieneko eperik egiaztatu beharrik gabe.

18. artikulua.- Terrorismoaren biktimen eta euskal gizataldeetako kideen titular izateko betekizunak

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan ahalko dira pertsona hauek: terrorismoaren biktima izatea aitortuta dutenak, haiekin ezkonduak edo ezkontzaren antzeko harremana dutenak eta seme-alabak —baldin eta Euskal Autonomia Erkidegora itzultzen badira eta bertako udalerriren batean bizitzen jartzen badira—, baita Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 11.1 artikuluan aipatzen diren pertsonak ere. Horretarako, 16. artikuluko baldintzak bete beharko dituzte, honako salbuespen hauekin:

a) Erroldaren eta egoitzaren antzinatasuna. Horretarako, nahikoa izango da eskaria egiten duten unean Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta daudela eta bertan benetan bizi direla egiaztatzea.

b) 23 eta 29 urte bitarteko pertsonak salbuetsita egongo dira eskabidea egin baino gutxienez urtebete lehenagotik modu independentean bizi direla egiaztatzetik.

19. artikulua.- Erabateko zurtzen, ezohiko bizikidetza-unitateetako kideen, desgaitasuna duten pertsonen ezkontza edo antzeko loturaren bidez lotutako pertsonen eta 18 eta 23 urte bitarteko pertsonen titular izateko betekizunak.

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan ahalko dira 16. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak —bizitzaldi independentea izatea egiaztatu beharra salbuetsita—, baldin eta honako inguruabar hauetako bat badute:

a) Erabateko zurztasuna eta erregelamendu bidez zehaztuko diren antzeko egoerak, baldin eta bizikideekin ez badute odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren gradurainoko loturarik.

b) 26.1 artikuluko c), d), e), f) eta g) letretan aurreikusitakoak.

c) Aitortua izatea % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna edo mendetasun-kalifikazioa.

d) Beren kargura adingabeak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten adin nagusikoak izatea, edo mendetasun-kalifikazioa izatea.

e) Ezkontza edo antzeko loturaren bidez lotuta egotea, gutxienez sei hilabete lehenagotik.

2. Era berean, 18 eta 23 urte bitarteko pertsonak edo adingabe emantzipatuak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan ahalko dira, baldin eta 16. artikuluko baldintzak betetzen badituzte, modu independentean bizi badira, gutxienez, eskaera egin baino urtebete lehenagotik, eta azken bi urteetan Gizarte Segurantzaren Sistemari jasotako araubideetako edozeinetan alta emanda egon badira 240 egunez gutxienez.

20. artikulua.- Titular izateko betekizunak egiaztatze data eta modua

1. 16.etik 19.era bitarteko artikuluetan aipatzen diren betekizunak eskabidea aurkezten den edo berrikusten den datan bete beharko dira, bai eta mantendu ere ebazpena ematen den datan eta prestazioa jasotzen den denboran.

Hala ere, eskubidea izan dezaketen pentsio eta prestazio publiko guztiak eskatzeko baldintza prestazioa aitortzeko prozedura izapidetzen den bitartean egiaztatu ahal izango da.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da zer dokumentazio eska daitekeen titular izateko betekizunak egiaztatzeko.

21. artikulua.- Ezkontzaren edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez lotutako titularren bizilekua.

1. Kapitulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ezkontideen edo bikotekideen bizileku berean bizi beharko dute, behar bezala justifikatutako arrazoirik izan ezean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek, ezkontuta badaude edo ezkontzaren antzeko lotura badute eta banantzeko edo dibortziazteko tramiterik hasi ez badute, edo izatezko bikote edo elkartzeen dagokion erregistroko inskripzioa ezerezteko eskatu ez badute, edo genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima ez badira.

2. Ulertuko da ezkontidearen edo bikotekidearen bizilekuaz bestelako batean bizitzea justifikatzen duen kausa dagoela, besteak beste, inguruabar hauetako bat suertatzen denean:

a) Ezkontidearen edo bikotekidearen lantokia erregelamendu bidez ezarritako distantzia berera edo urrutiago egotea. Ezkontideak edo bikotekideak urrutitik lan egiten badu, ez da inola ere justifikatutzat joko ohiko bizilekuaz bestelakoan bizitzea.

b) Ezkontidea edo bikotekidea Espainian ez bizitzea familia berrelkartzeko ezintasunagatik edo antzeko inguruabar batengatik.

c) Ezkontideak edo bikotekideak tratamendu medikoaren, errehabilitazioaren edo erregelamenduz ezarritako beste edozein inguruabarren pean izatea. Tratamendu horrek iragankorra izan beharko du nahitaez.

d) Ezkontidea edo bikotekidea 16.2 artikuluan aurreikusitako kasuren batean egotea.

22. artikulua.- Titularren konkurrentzia

Bizikidetza-unitate berean titular izan daitekeen pertsona bat baino gehiago badago, haietako bati aitortuko zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta; lehenasunez, lehenengo eskatu duenari.

23. artikulua.- Titularrak aldatzea

1. Titularra hilko balitz edota sartuko balitz espetxe batean (erregimen arrunt nahiz itxian) edo izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko egoitza-zerbitzu batean (modu iraunkorrean), diru-sarrerak bermatzeko errentaren titulartasuna harekin ezkonduak edo ezkontzaren antzeko harremana duenak har dezake, edo, halakorik ezean, bizikidetza-unitate bereko onuradun adin nagusikoetako batek.

Titularra aldatzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, aipatutako inguruabarrak gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Titulartasun-aldaketak ondorio ekonomikorik ekarri gero, heriotza-dataren edo, aurreko apartatuan adierazitako moduan, barneratze-dataren hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera gauzatuko da, eskaria ezarritako epearen barruan egin bada betiere.

24. artikulua.- Onuradun izateko betekizunak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izan ahalko dira prestazioaren titularren bizileku berean errolatuta dauden eta bertan benetan bizi diren, haren bizikidetza-unitatean sartzen diren eta 16.1.d) eta e) artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonak.

Hala ere, bizileku berean bizi beharra salbuetsita geratuko da ikasketa, lan, tratamendu mediko, errehabilitazio edo antzeko beste arrazoi batzuegatik, eta horien iraupena iragankorra izango da nahitaez.

2. Hurrengo artikuluko bigarren apartatuan aipatzen den bizikidetza-unitatearen kasuan, onuradunek adin nagusikoak izan beharko dute.

3. 16.2 artikuluan aurreikusitako egoeretan daudenak ezin izango dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izan.

4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunek bizikidetza-unitatean sartzen direnetik eta prestazioa jasotzen duten denboran bete beharko dituzte artikuluko honetan ezarritako baldintzak.

2. ATALA-BIZIKIDETZA-UNITATEAK

25. artikulua.- Bizikidetza-unitateak

1. Bizikidetza-unitatea osatzen dute bizileku batean bizi diren pertsona batek edo gehiagok. Bat baino gehiago badira, elkarrekiko lotura izan behar dute: odolkidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna, bigarren gradurainokoa, adopzioa, familia-harrera iraunkorra edo adopzio aurreko harrera, bai eta ezkontza edo ezkontzaren antzekoa ere.

2. Bizileku berean bizi badira aurreko paragrafoan aipatutako loturarik ez duten pertsonak, pertsona bakarreko bizikidetza-unitateak edo egoiliar guztiak edo batzuk biltzen dituen bizikidetza-unitate bat eratu ahal izango dute. Halakoetan, bizikidetza-unitate hori osatzen duten pertsona guztien adostasuna eskatuko da.

3. Pertsona bera ezin izango da bi bizikidetza-unitatetan edo gehiagotan sartu.

26. artikulua.- Ezohiko bizikidetza-unitateak

1. Aurreko artikuluan xedatutakoaren salbuespen gisa, bizikidetza-unitateak osatuko dituzte, bizileku berean bizi diren pertsonekin izan ditzaketen loturak gorabehera, inguruabar hauetako bat dutenak:

a) Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima izatea.

b) Genero-indarkeriaren biktima edo etxeko indarkeriaren biktima izatea.

c) Pentsiodun izatea. Lege honen ondorioetarako, pentsioduntzat hartuko da honako egoera hauetako bati dagokion pentsioaren onuraduna: kotizaziopeko erretiroa, ezintasun iraunkorra, alarguntasuna, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru, kotizazio gabeko baliaezintasuna edo erretiroa eta zurtasuna —baldin eta onuraduna adin nagusikoa eta ezindua bada, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko graduan—. Pentsioduntzat hartuko da, baita ere, adin nagusikoa, baldin eta ardurapeko seme-alaba bakoitzeko familia-prestazio baten kausatzaile bada. Halaber, pentsioduntzat hartuko da Gizarte Ongizateko Funtsaren prestazio ekonomikoren bat, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidioa edo hirugarren pertsonaren laguntzaren subsidioa aitortuta duen pertsona, betiere kotizazio gabeko pentsio bat jasotzera igaro ez bada.

d) Banantzeko edo dibortziatzeko tramiteak hasi izana, izatezko bikote edo elkartzeen erregistroko inskripzioa ezereztea eskatu izana.

e) Lehen seme-alaba eduki izana, adoptatu izana, behin betiko harreraren adingabe bat hartu izana, edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duen adin nagusiko pertsona bat edo mendetasun-kalifikazioa duen pertsona bat hartu izana.

f) Ohiko bizilekua utzi izana, errentak ez ordaintzeagatiko utzarazpenaren ondorioz, arrazoi hauek direla eta: gerora sortutako ordaintzeko ezintasuna, hipoteka betearazteko prozedura, bertan bizitzeko egoki ez den bizilekua edo etxebizitzan irisgarritasun-arazoak izatea. Egoera horiek behar bezala egiaztatu beharko dira.

g) Erregelamenduz zehazten direnak, honako egoera hauekin lotuak: kalteberatasun bereziko egoerak, bazterketa-egoerak edo nahitaezko bizikidetza etxe berean.

2. Ezohiko bizikidetza-unitateek ezin izango dute hiru urte baino gehiago iraun, egoera horretan egotea eragin duen gertaeraren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, aurreko artikuluan ezarritako arauen arabera osatuko dute bizikidetza-unitatea. Muga hori ez zaie aplikatuko pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateei.

Ezohiko bizikidetza-unitatearen iraupen-aldiak metatu ahal izango dira gertakari desberdinen ondorio direnean; horretarako, bizikidetza-unitatearen gehieneko iraupen-aldia zenbatzeko, azken gertaera eragilearen data hartuko da kontuan.

~~Aurreko paragrafoak erreferentzia egiten dion muga hori ez zaie aplikatuko pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateei.~~

3. Ezohiko bizikidetza-unitateak honako hauek osatuko dituzte: lehenengo paragrafoan deskribatutako egoeretan dauden pertsonak eta, haiekin batera badaude, haien seme-alabek edo adopzioarako edo familia-harrera iraunkorrerako zaintza-erregimenean dauden adingabeek, baita ekonomikoki haien kargura dauden pertsonak ere, baldin eta % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna edo, gutxienez, II. graduako mendetasun-kalifikazioa badute, eta pentsiodunak ez badira betiere.

Gainera, pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateetan sartuko dira, hala badagokio, haiekin ezkontuta dauden edo ezkontzaren antzeko lotura duten pertsonak, baita lehen paragrafoko e) eta f) letretan aipatutakoak ere.

4. Lehenengo apartatuko b) eta d) letretan aipatutako bizikidetza-unitatea eratzeak, ohiko bizilekua utzi beharko da, eta ezkontidearen bizilekuaz edo ezkontzaren antzeko harremana duenaren bizilekuaz bestelako batean bizi beharko da, eta, genero-indarkeriaren edo etxe-ko indarkeriaren biktimen kasuan, indarkeria eragin duenaren bizilekuaz bestelako batean.

27. artikulua.- Ezkontzaren antzeko harremana

1. 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, ezkontzaren antzeko harremantzat hartzen da adin nagusiko bi pertsonak duten lotura afektiboa, ahaidetasun-harremanik izan gabe lerro zuzenean edo alboko lerroan (bigarren graduaren barruan), ezkontuta egon gabe edo, egotekotan, izatez bananduta egonda, bizileku berean modu egonkor eta nabarian bizi badira.

Ezkontzaren antzeko harremana egongo da izatezko bikoteen erregistroren batean inskribatuz gero —bikoteen edo izatezko elkartzeen legerian xedatutakoarekin bat etorritik—, harremana dokumentu publikoan formalizatuz gero edo harreman hori zuzenbidean onartutako beste edozein bide baliatuta frogatuz gero.

2. Kontrakorik frogatu ezean, ezkontzaren antzeko harremana dagoela ulertuko da honako inguruabar hauetatik edozein suertatzen denean:

- a) Azken lau urteetan gutxienez bi urtez elkarrekin bizitzea, etenik gabe edo etenekin.
- b) Elkarrekin bizi direnek ondorengo komunak izatea.

3. ATALA-TITULARREN ETA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

28. artikulua.- Titularren eta onuradunen betebeharrak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte prestazioa jasotzen duten aldi osoan, kapitulu honetako 1. atalean aipatutako betekizunez gainera:

a) Informazio zehatza eta egiazkoa ematea erantzukizunpeko adierazpenetan eta prestazioaren betekizunak eta haren mantentzea egiaztatzean, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzen dituztela bermatzea ere.

Era berean, prestazioa kudeatzeko eta kontrolatzeko eskatzen zaien dokumentazio garrantzitsua aurkeztu beharko dute, eta jakinarazpen eta komunikazioak jasotzen dituztela bermatu beharko dute.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratuta egotea erregelamendu bidez zehazten den moduan.

c) Laguntza ematea 110.etik 112.era bitarteko artikuluetan aipatzen den egoeraren eta beharren hasierako balorazioan eta, hala badagokio, gizarte- eta lan-diagnostikoan, eta arreta-planak sinatzea, ezartzen diren preskripzio teknikoekin.

d) Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala egiten laguntzea eta plan hori sinatzea, bai eta plan horretan jasotako konpromisoak eta betebeharrak betetzea ere.

e) Enplegurako edo enpleguaren aurreko zerbitzuetarako prest egotea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile edo enpleguaren aurreko zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta egotea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegarritasuna hobetzeko abian jartzen dituen estrategietan parte hartzea.

f) Bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea.

g) Administrazioaren aurrean agertzea, hala eskatzen zaienean laguntzea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin ditzakeen kontrolak eta ikuskapenak erraztea.

h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua jakinaren gainean jartzea, titularraren eta onuradunen betekizunak eta betebeharrak betetzeari eragiten dion inguruabarrak bada, edo prestazioa jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezakeen edo prestazioaren zenbatekoa eguneratzeko garrantzitsuak diren inguruabarrak bada. Zehazki, inguruabar hauen berri eman beharko dute:

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea titularrek eta onuradunek baldintzak eta betebeharrak betetzeari eragiten dioten inguruabarrak, prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketena, edo prestazioaren zenbatekoa eguneratzeko garrantzitsuak direnak. Bereziki, honako hauek jakinarazi beharko dituzte:

1. Titularraren edo onuradunen egoera pertsonala aldatzea.

2. Titularra edo onuradunak espetxean edo egoitza-zerbitzu batean barneratzea.

3. Bizikidetza-unitatearen osaera aldatzea.

4. Titularraren edo onuradunen helbidea aldatzea. Era berean, justifikatu egin beharko dute zer arrazoi dagoen titularraren ezkontidea edo bikotekidea edo prestazioaren onuradunetako bat bizikidetza-unitatearen bizilekuaz bestelako batean bizitzeko.

5. Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat hartu diren baliabide ekonomikoak aldatzea.

6. Titularra eta onuradunak Euskal Autonomia Erkidegotik irtetea urte natural bakoitzean

2. Arrazoi justifikaturik ezean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradunek ezin izango dute:

a) enplegu-eskaintza bati uko egin,

b) lan-jarduera borondatez utzi edo lanpostu batean borondatezko baja hartu,

c) Borondatezko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu, edo

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo erakunde laguntzaile batek emandako enplegurako prestakuntza-ikastaro bat borondatez utzi, edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak proposatutako ikastaro horretara joateari uko egin edo enplegurako hautaketa-prozesu batean ez parte hartu.

29. artikulua.- Agertzeko betebeharra

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren titularrak eta onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetara deitu ahal izango dituzte, ager daitezen, benetan

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direla edo lege honetan ezarritako beste edozein betekizun edo betebeharrak betetzen dutela egiaztatzeko.

2. Agertzeko zitazioan jasoaraziko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zer bulegotan agertu behar den, agerraldiaren data, ordua eta xedea, eta ez agertzearen ondorioak.

Nolanahi ere, behartutako pertsona ez bada agertzen adierazitako leku, data eta orduan, ulertuko da, behar bezala egiaztatutako arrazoi justifikaturik izan ezean, hura ez dela Euskal Autonomia Erkidegoan bizi adierazitako datan, hargatik eragotzi gabe ikuskapen-, kontrol- eta zehapen-ahalak baliatuztik ondorioztatzen dena.

3. Erregelamenduz ezarriko dira agerraldia bitarteko elektronikoen bidez egin daitekeen kasuetarako betekizunak.

30. artikulua.- Betebeharrak salbuestea

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala negoziatzeko eta sinatzeko betebeharretatik salbuetsita daude, bai eta enplegurako edo enpleguaren aurreko zerbitzuetarako prest egotetik eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enpleguaren edo enpleguaren aurreko zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta egotetik ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradun diren pertsonak, baldin eta honako egoera hauetakoren batean badaude:

- a) Ikasketa arautuak egiten aritzea eta 28 urte baino gutxiago izatea.
- b) 26.1.c) artikuluan aipatutako pentsio edo prestazioren baten onuradun izatea, alargun-pentsioaren kasuan izan ezik.
- c) Erretiro-adina beteta izatea.
- d) % 65eko desgaitasuna edo handiagoa izatea, edo gutxienez II. graduako mendetasun-egoera aitortuta izatea.
- e) 111. eta 112. artikuluetan aipatutako balorazio eta diagnostiko sozialak edo lan-diagnostikoak hala zehazten dutenean.

Kasu horretan, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala negoziatzeko eta sinatzeko betebeharrak zehaztu ahal izango da.

2. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradunak agertzeko betebeharratik salbuetsita gera daitezke, baldin eta haien inguruabar fisiko, psikiko edo sententzialek, behar bezala egiaztatuak, betebeharrak normaltasunez betetzea eragozten badute.

4. ATALA-ZENBATEKOA ZEHAZTEA

31. artikulua.- Gehieneko errenta bermatua

Bizikidetzaren unitate bati dagokion gehieneko errenta bermatua zehazteko, honako hauei dagozkien zenbatekoen batura egin behar da: oinarritzko zenbatekoa, bizikidetzaren unitateko kide bakoitzeko osagarri indibidualak eta bizikidetzaren unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak.

32. artikulua.- Oinarrizko zenbatekoa

1. Oinarrizko zenbatekoa kopuru finkoa da, eta bizileku batean oinarrizko premiak asetzeraz bideratzen den gutxieneko gastua adierazten du.

Osagarri indibidualekin eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriekin batera, diru-sarrerak bermatzeko prestazioari aplikatu beharreko gehieneko errenta bermatua zehazteko balio du, baita gizarte-larrialdietarako laguntzen zenbatekoa finkatzeko ere.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak finkatuko du oinarrizko zenbatekoaren hileko zenbatekoa, Euskadiko kontsumoko prezioen indize orokorraren arabera, eta ateratzen den zenbatekoa ezingo da izan bizitzako gutxieneko diru-sarreraren onuradun indibidual bati dagokion hileko errenta bermatua baino txikiagoa.

33. artikulua.- Osagarri indibidualak eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak

1. Osagarri indibidualak bizikidetza-unitatearen gastuen banaketa kuantifikatzen dute, unitatea osatzen duten pertsonen kopurua kontuan izanda. Arau hauen arabera aplikatuko dira:

- a) Titularra: oinarrizko zenbatekoaren % 50.
- b) Onuradun bakoitzeko: oinarrizko zenbatekoaren % 30.

2. Bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak honako hauei aplikatuko zaizkie: guraso bakarreko bizikidetza-unitateei, gizakien salerosketaren, genero-indarkeriaren, sexu-esplotazioaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonen osatutakoei, pentsiodunek osatutakoei edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasun-kalifikazioa duten pertsona batek edo gehiagok osatutakoei, arrazoi horrengatik pentsiorik jasotzen ez badute.

Osagarriek oinarrizko zenbatekoaren % 40ko balioa izango dute pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateen kasuan, eta zenbateko horren % 25ekoa paragrafo honetan aipatutako gainerako bizikidetza-unitateetan.

Batera aplikatu ahal izango dira, pentsiodunaren osagarria izan ezik. Osagarri hori bateraezina izango da desgaitasunaren ondoriozko osagarriarekin, baldin eta pentsiodunak bakarrik aitortuta badu aurreko paragrafoan aipatutako desgaitasuna.

3. Lege honen ondorioetarako, guraso bakarreko bizikidetza-unitatetzat hartzen da honako baldintza hauek betetzen dituen pertsona heldu batek osatutakoa: seme-alabekin bizitzea edo bigarren gradura arteko ondorengo adingabeekin bizitzea, horien gaineko zaintza eta jagoletza baldin badu, edo horiek adopzioarako edo familia-harrera iraunkorrerako zaintza-erregimenean badaude, betiere pertsona horrek zaintza eta jagoletza eskusiboa badu edo abegi-emaila edo zaintzaile bakarra bada.

Guraso bakarreko bizikidetza-unitatearen parekotzat jotzen da beste gurasoa, zaintzailea edo abegi-emaila 16.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarretan dagoenean, horiek dirauten bitartean, eta gurasoetako, abegi-emaila edo zaintzaileetako batek 3. mailako mendekotasuna, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortuta duenean.

5. Bizileku berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago bizi direnean, hurrengo artikuluan aurreikusitako indize zuzentzaileak aplikatuko dira.

34. artikulua.- Zenbatekoa zehaztea

1. Bizikidetza-unitate bati hilero dagokion diru-sarrerak bermatzeko errenta zehazteko, kontuan hartuko da, batetik, gehieneko errenta bermatuaren eta, bestetik, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztien errenta eta diru-sarrera eskuragarrien osotasunaren arteko aldea

—horiek 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera zenbatuta—, enplegurako pizgarriak aplikatu ondoren. Horretarako, honako arau hauei jarraitu zaie:

a) Prestazioaren aitortzean, honako hauek hartuko dira kontuan: eskabidea egiten den hilabeteen eskuragarri dauden errenta eta diru-sarrera guztiak, baita data horretako gehieneko errenta bermatua ere.

b) Prestazioaren zenbatekoa hiru hilean behin eguneratuko da, 81. artikuluan aurreikusitako moduan. Eguneratzean, eskuragarri dauden errenta eta diru-sarrera guztiak hartuko dira kontuan, baita aldi berari dagokion gehieneko errenta bermatua ere. Aldea zati hiru egingo da, eta zatidura diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbatekoa izango da dagokion hiruhilekoan.

Erregelamendu bidez, zenbatekoa zehazteko beste aldi batzuk ezarri ahal izango dira, gerora sortutako beharizan-egoerei edo beste inguruabar batzuei erantzuteko.

2. Sarrera konputagarrien aldaketak hurrengo eguneratzea egin behar den datatik aurrera izango ditu ondorioak.

3. Bizikidetza-unitate hau hartuko da kontuan diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa zehazteko: eskabidea egin eta prestazioaren zenbatekoa berrikusi zen datetan zegoena.

4. Bizikidetza-unitatea osatzen dutenen inguruabar pertsonalak edo unitatearen osaera aldatzen badira, eta aldaketa horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta igotzea edo jaitea badakar, prestazioaren zenbatekoa eguneratu behar den datatik aurrera izango ditu ondorioak aldaketa horrek.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du galaraziko prestazioa etetea edo azkentzea.

35. artikulua.- Indize zuzentzailea

Bizileku berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago bizi bada, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izan zein ez, bizikidetza-unitate bakoitzari hileroko dagokion prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, % 15eko indize zuzentzailea aplikatuko zaio aurreko artikuluan xedatutakoaren ondoriozko zenbatekoari.

36. artikulua.- Baliabideak osorik kontuan hartzea

Eskatzailearen eta bizikidetza-unitatea osatzen duten gainerako pertsonen baliabideak beren osotasunean zenbatuko dira.

37. artikulua.- Premia ekonomikoko egoera

Premia ekonomikoko egoeratzat joko da bizikidetza-unitate batek oinarritzko premiei eta inklusio-prozesuari lotutako gastuei aurre egiteko dituen baliabide guztiek ez gainditzea muga hauetakoren bat:

a) Bizikidetza-unitatearen hileko etekinak handiagoak izatea haren osaeraren arabera legokiokkeen gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoa baino, 81. artikuluan aipatzen den aldian; 34. artikuluan aurreikusitako koefiziente zuzentzailearen aplikaziotik kanpo utzita.

b) Bizikidetza-unitateak dituen ondasun higiezinak, dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak eta, oro har, balio baliokidea duen beste edozein ondasun bost alditik gora handiagoa izatea bizikidetza-unitateari urtebeteen legokiokkeen gehieneko errenta bermatuaren zenbateko baino.

38. artikulua.- Etekinak zehaztea

1. Etekinen zenbaketan sartuko dira norberaren edo besteren konturako lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik datozenak. Erregelamendu bidez finkatuko den moduan, zenbatekoa zehaztearen ondorioetarako, etekintzat hartuko dira:

a) eduki ekonomikoko eskubideen titularrek eskubide horiek baliarazita lortuko liratekeen zenbatekoak, baldin eta pentsio eta prestazio publikoekin lotutako eskubideak badira.

Beste eskubide batzuen kasuan, horiek baliarazi izanez gero lortuko liratekeen zenbatekoak zenbatuko dira prestazioaren eskaera-datatik sei hilabete igaro ondoren,

b) zehazten diren kopuruak, jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez ondare higiezin edukiz gero, diru bihurtzen zaila, baldin eta premia ekonomikoko egoera zehazteko aurreko artikuluan ezarritako mugaren bat gainditzen bada,

c) bizikidetza-unitateko kideren baten ondarearen gainean justifikaziorik gabeko galera ekonomiko bat hautematen denean ezartzen diren zenbatekoak, eta

d) 21. artikuluan xedatutakoaren arabera bizileku berean bizi ez diren ezkontideen eta izatezko bikoteen diru-sarrerekin lotuta zehazten diren zenbatekoak.

2. Ez dira etekintzat zenbatuko eskatzaileari eta haren bizikidetza-unitateko gainerako kideei dagozkien diru-sarrera eta gizarte-prestazio finalista jakin batzuk, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

39. artikulua.- Ondarea zehaztea

1. Ondarea zenbatzean, ondasun higigarri eta ondasun higiezin guztiak hartuko dira kontuan, betiere haien gaineko jabetza-, edukitza- edo gozamen-titulua bada.

2. Ondarearen baloraziotik salbuetsita geratuko dira ohiko egoitza diren etxebizitza edo bizitokia eta lan-jarduerarako erabiltzen den eraikina, salbu eta jabetzako etxebizitzak aparteko balioa badu, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

Era berean, ondarearen baloraziotik salbuetsita geratuko da etxeko ostilamendua, salbu eta horretan aparteko balioa duten ondasunak badaude. Erregelamendu bidez zehaztuko da hori.

3. Jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez jasotako ondarea egonez gero, 37. artikuluan ezarritako mugak gainditu arren, baldin eta premia ekonomikoko egoera objektiboa badago, ondare hori diru bihurtzeko zaila dela jo ahal izango da, erregelamendu bidez zehazten diren moduan eta ondorioekin.

40. artikulua.- Enplegurako pizgarriak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzea bateragarri izango da prestazioaren eskatzaileek eta onuradunek beren konturako jarduera ekonomikoaren edo lanaren bidez lortutako errentekin.

2. Erregelamendu bidez, mekanismo mugagabeak ezarriko dira lanean hastea eta jarraitzea sustatzeko eta joan-etorri arina bermatzeko enpleguaren eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren artean.

Enplegurako pizgarrien diseinua faktore anitzekoa izango da, eta, besteak beste, honako gai hauek jorratuko ditu: lanetik lortutako diru-sarreraren balorazioa, prestazioen zenbatekoa zehazteko; Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren egotea eta, aldi berean, enplegua eskuratzea eta mantentzea; enplegutik prestazioak eskuratzeko prozesua arintzea; enpleguratzeko sustatutako kontrol-mekanismoak ezartzea; enplegura bideratutako kalitateko prestakuntza indartzea, baita erakundearen arteko, sailen arteko eta sektore pribatuarekiko

elkarlana areagotzea ere, bizitza pertsonala eta lanekoa uztartzeko aukerak bermatze aldera, eta, horrela, enplegua lortzea eta mantentzea erraztea.

Lanetik lortutako diru-sarreraren balorazioa egin behar izanez gero bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren zenbatekoa zehazteko, haren araudian xedatutakoaren arabera egingo da.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko da enplegurako pizgarrien eraginari eta egokitasunari buruzko ebaluazioa zein maiztasunez eta irismenez egingo den.

5. ATALA-ESKUBIDEA ETETEA ETA AZKENTZEA

41. artikulua.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteak eraginik gabe uzten du prestazio osorako edo horren zati baterako eskubidea, hurrengo artikuluetan aipatzen diren kasuetan.

2. Eteteko ebazpenak zehaztuko ditu egitate eragilea, horren iraupena eta etendako prestazioaren zenbatekoa, bai eta, hala badagokio, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko betebeharraren adierazpena ere.

42. artikulua.- Etetea, prestazioa aitortzeko eskatutako baldintzak aldi baterako galtzeagatik

1. Prestazioa jasotzeko eskubidea oso-osorik etengo da honako baldintza hauek aldi baterako galtzen diren kasuetan:

a) Premia ekonomikoko egoeran egotea 36. artikuluan aurreikusitako moduan.

b) Eskubidea izan dezaketen pentsio eta prestazio publiko guztiak eskatu izana, 16.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, pentsio eta prestazio publikoen zenbatekoa finkoa eta zehatza denean, gehieneko zenbatekoa zehaztuta dagoenean edo kontzeptu horrengatik legokiokkeen edo aitortu beharko zatekeen zenbatekoa modu frogagarrian jasota dagoenean, ez da etengo, baldin eta 38.1.a) artikuluekin bat etorritik, zenbateko horietakoren bat kontuan hartuta, premia ekonomikoan baldin badago.

2. Aldi baterako galdutzat joko da hamabi hilabete jarraitu gainditzen ez dituen betekizun-galera.

3. Prestazioa eteteko erabakia 81. artikuluan aipatutako prestazioaren zenbatekoa eguneratzeko prozedurarekin bat etorritik hartuko da, kontrol-prozeduratik ondorioztatzen denari kalterik egin gabe.

43. artikulua.- Etetea, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo benetan bizitzeagatik

Urte naturalaren barruan, titularra edo onuradunetako bat benetan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi bada hogeita hamar egun baino gehiagoz eta laurogeita hamar egun baino gutxiagoz (jarraituak edo ez), eteteak prestazioaren titularrari edo onuradunari dagokion osagarri indibidualari soilik eragingo dio.

Prestazioak bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiei eragiten badie, prestazioa jasotzeko eskubidea guztiz etengo da.

44. artikulua.- Etetea, osorik funts publikoekin finantzatutako egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario bateko plaza bat aldi baterako okupatzeagatik.

1. Titularrak edo onuradunak aldi baterako betetzen badu oso-osorik funts publikoekin finantzatutako egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario bateko plaza bat, etete horrek soilik eragingo dio erabiltzaileari dagokion banakako osagarriari.

Aldi baterako galdutzat joko da hamabi hilabete jarraitu gainditzen ez dituen betekizun-galera.

81. artikuluan aipatzen den prestazioaren zenbatekoa eguneratzeko prozeduraren baitan erabakiko da dagokion osagarri indibiduala etetea, kontrol-prozeduratik ondorioztatzen dena alde batera utzi gabe.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarrek bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiei eragiten badiete, prestazioa jasotzeko eskubidea eten egingo da oso-osorik egoitza-zerbitzuaren plaza okupatu eta seigarren hilabetetik aurrera.

45. artikulua.- Betebeharrak ez betetzeagatik kontratua etetea

1. Eten egingo da prestazioaren titularrari dagokion banakako osagarria eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak, baldin eta titularrak justifikaziorik gabe betetzen ez baditu 28.1.a) artikuluaen bigarren paragrafoko d), e), g) eta h) eta 28.2.c) eta d) letretan aipatutako betebeharrak.

2. Ez-betetze horiek prestazioaren onuradunetako bati egoztekoak bazaizkio, ez-betetzearen erantzule den onuradunari dagokion osagarri indibidualari eragingo dio eteteak.

3. Justifikatutzat joko da enplegurako prestakuntza-ikastaro bat errefusatzeari, bertan behera uztea edo absentismoa, edo enplegurako hautaketa-prozesu batean ez parte hartzea, eta ez da dagokion osagarria edo osagarriak etengo, baldin eta gaixotasunagatik ezin badira egin, eta prestakuntza-jarduerak edo hautaketa-prozesuak baldintza hauetakoren bat betetzen ez badute:

a) Prestazioaren titularrak edo onuradunak adierazitako lehentasunekin bat etortzea edo, bestela, azken urtean garatutako lanbidearekin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegurako orientazio-zerbitzuak proposatutako prestakuntzarekin, edo haren gaitasun fisikoekin eta prestakuntzakoekin bat etortzea.

b) Garraio publikoaren ordutegia bateragarria izatea prestazioaren titularraren edo onuradunaren bizilekutik prestakuntza-jarduerarenarekin edo hautaketa-prozesuarenarekin.

c) Prestakuntza edo hautaketa-prozesua erregelamendu bidez zehaztutako distantzia gainditzen ez duen eremu batean garatzea.

d) Prestakuntzara joateko egunean garraio publikoan emandako denbora ez izatea ikastaroaren eguneko iraupenaren ehuneko 25 baino handiagoa.

e) Garraio publikoan egindako joan-etorrien hileko kostua ez izatea prestazioaren oinarritzko zenbatekoaren ehuneko 20 baino handiagoa, edo, ikastaroaren iraupena hilabetea baino laburragoa bada, eguneko oinarritzko zenbatekoa kalkulatzetik ateratzen dena baino handiagoa.

f) Kontziliazioa, bizikidetza-unitatearen inguruabarrak kontuan hartuta, hamabi urtetik beherako pertsonak edo desgaitasuna dutenak beren kabuz baliatu ezin diren odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senitartekoak zaintzeko aukera emateko moduan.

4. Era berean, justifikatutzat joko da titullarrek eta onuradunek hartzen duten lanaldi-murritzeta edo borondatezko eszedentzia, seme-alabak edo ahaideak jaiotzearen edo zaintzearen ondorio direnean, adinagatik, desgaitasunagatik, istripuagatik, ospitaleratzeagatik edo gaixotasunagatik, Langileen Estatutuan aurreikusitako moduan. Murritzeta edo eszedentzia hori prestazioaren titular edo onuradun diren adoptatzaileei, hartzaile iraunkorrei edo adopzio aurrekoei eta legezko zaintzaileei aplikatuko zaie.

46. artikulua.- Etetearen ondorioak

1. Prestazioa osorik edo zati batean ordaintzea eten egingo da etetea deklaritzen duen ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera, prestazioaren zenbatekoa eguneratzeko prozedurari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Prestaziorako eskubidea etetearen iraupena honako arau hauen arabera izango da:

a) Prestazioa etenda egongo da hura eragin zuten inguruabarrek irauten duten bitartean, eta egoera horiek irauten duten bitartean iraungo du prestazioak.

b) Prestazioaren ordainketa eteteko arrazoiak gertakari, ekintza edo ez-egite puntualak badira, eta horien ondorioak berez agortzen badira, etenaldiak hilabeteko iraupena izango du.

c) Prestazioa sei hilabetez etengo da kasu hauetan:

1) Prestazioaren titularrak edo onuradunak Gizarteratzeko Programa Integratua eta Pertsonala izenpetzeko edo hura egiten laguntzeko betebeharra betetzen ez duenean.

Ez-betetzea sei hilabete baino gehiago luzatzen bada, prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da.

2) Prestazioaren titularrak edo onuradunak justifikaziorik gabe uko egin badio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo erakunde laguntzaile batek eskainitako enplegurako prestakuntza-ikastaro bati, borondatez utzi badu prestakuntza-jarduera bat, jarduera horretara joateari uko egin badio edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegurako proposatutako hautaketa-prozesu batean parte hartzeari uko egin badio, justifikatutako arrazoirik gabe.

3) Prestazioaren titularrak edo onuradunak justifikaziorik gabe lanaldi-murrizketa edo borondatezko eszedentzia hartu duenean.

3. Behin prestazioa etetea eragin zuten arrazoiak desagertuta edo erabakitako etetearen epea amaituta, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izango du berriro, hala eskatuta, betiere hura aitortzea eragin zuten baldintzei eusten bazaie. Bestela, eskubidea aldatu edo azkenduko da, dagokionaren arabera.

Xedatutakoa gorabehera, prestaziorako eskubidea ofizioz berrabiaraziko da etete-ebazpenak iraupen jakin bat finkatzen duen kasuetan, bai eta erregelamendu bidez zehazten direnetan ere.

Prestazioa berriz hastea eskatzen den egunaren edo etenaldia amaitzen den egunaren hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera sortuko da prestazioa.

47. artikulua.- Prestazioa kautelaz etetea

1. Zantzu nahikorik badago prestazioa azkentzeko arrazoiak daudela uste izateko, edo titularrek edo onuradunek lege honetan tipifikatuta dauden arau-hauste astun edo oso astunak egin dituztela jotzeko, kautelaz eten ahal izango da diru-sarrerak bermatzeko errenta osoaren ordainketa, aipatutako prozeduretan eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

2. Nolanahi ere, prestazio osoaren edo zati baten ordainketa kautelaz etengo da, baldin eta zantzurik bada titularra edo onuradunetako bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joan dela urte naturalaren barruan laurogeita hamar egunetik gorako aldi batez, etenik gabe edo etenekin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari aldeztu aurretik horren berri eman gabe eta irten izana behar bezala justifikatuta egon gabe.

Orobat, prestazioa kautelaz etengo da erantzukizunpeko adierazpen bati erantsitako edozein datu edo informazioaren zehaztasunik eza, faltsutasuna edo omisioa, funtsezkoa, erakusten duten zantzuak daudenean, edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatze behar den dokumentazioa aurkeztzen ez denean, aldeztu aurretik errekerimendu bat egin bada, edo xede berarekin agertu ez denean, behar bezala zitatua izan ondoren.

3. Premia atzeraezina egonez gero, interes publikoaren babesak hala eskatzen badu, diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion prestazioaren ordainketa etetea erabaki ahal izango da, eta neurri hori berretsi, aldatu edo kendu egin beharko da lehenengo paragrafoan aipatutako prozeduretako edozeini hasiera ematen dion egintzan.

4. Prestazioaren ordainketa kautelaz eteteko, bete egin beharko da administrazio-prozedura erkideari eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalari buruzko legerian xedatutakoa.

5. Bizikidetzaren unitatean adingabeak daudenean, prestazioaren ordainketa kautelaz eteteak ez du eraginik izango prestazioaren oinarritzko zenbatekoan, baliabiderik ez dagoen kasuetan, ez

eta, halakorik badago, oinarrizko zenbatekoari kide guztien errenta eta diru-sarrera erabilgarri guztiak kentzearen ondoriozko kopuruan.

48. artikulua.- Prestazioa azkentzea

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa azkentzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

a) Titularraren heriotza.

b) Prestazioa mantentzeko eskatutako betekizunen baten behin betiko galtzea edo prestazioa eskuratzeko eta mantentzeko betekizunak betetzen diren zehaztu ezina, titularrari egotz dakioken arrazoren batengatik.

Behin betikotzat joko da betekizunen galera ondoz ondoko hamabi hilabete baino gehiago luzatzen bada, salbu eta titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean benetan bizilekua izateari uzten badio; kasu horretan, prestazioa azkentzea bidezkoa izango da, hori gertatzen den egunetik aurrera.

c) Eskubideari uko egitea.

d) Ezohiko bizikidetza-unitatearen gehieneko iraupen-epea igarotzea.

e) Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala izenpetzeko betebeharra ez betetzea, edo sei hilabetetik gorako epean hura egiten laguntzeko betebeharra ez betetzea.

d) Programa integratuaren eta gizarteratzeko langileen ebazpena, hartzaileak uko egin diolako.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo erakunde laguntzaile batek egindako lan-eskaintza bati uko egitea, lan-jarduera borondatez uztea eta lanpostutik borondatez baja ematea, hori justifikatzen duen arrazoirik ez badago.

k) Zehapen-prozedura batean emandako ebazpen batek hori ezartzea.

l) Prestazioen titularrek eta onuradunek eskubidea galdu dutela deklaritzen duen ebazpena, erantzukizunpeko adierazpenean bildutako funtsezko oker, faltsutze edo omisioengatik eta 83.1.d) artikuluan aurreikusitako gainerako inguruabarrengatik.

2. Enplegu-eskaintza bati uko egitea justifikatutzat joko da honako kasu hauetan:

a) 45.4 a), b), c) eta f).artikuluaren aurreikusitakoak.

b) Lanpostura joateko gutxieneko denborak eguneko lanaldiaren ehuneko 25 gainditzen duela egiaztatzen denean.

c) Garraio publikoan egindako joan-etorrien kostua eskainitako hileko soldataren ehuneko 20 baino gehiago denean.

d) Soldata ez denean egokia, lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa delako, edo eskainitako lanpostuaren baliokidea ez delako, enpresa-hitzarmenaren edo aplikatzekoa den sektoreko hitzarmenaren arabera.

3. Lan-jarduera borondatez uztea justifikatutzat joko da arrazoi ekonomikoengatik edo kontziliazio arrazoiengatik gertatzen denean, eta, bizikidetza-unitatearen inguruabarrak kontuan hartuta, ezin direnean zaindu hamabi urtetik beherako pertsonak edo desgaitasuna dutenak beren kabuz baliatu ezin diren bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko senideak.

Era berean, borondatezko baja hartuko da lanpostutik, Langileen Estatutuan xedatutakoaren arabera, langileak lan-kontratua azkentzeko eskatzeko arrazoi zuzena dagoenean.

49.-artikulua.- Azkentzearen ondorioak

1. Prestaziorako eskubidearen azkentzeak horretarako arrazoiak gertatu eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Azkentzea betearaztekoa izango da hura adierazten duen ebazpena irmoa denean.

Hala ere, ebazpena berehala betearaztekoa izango da jarraian zerrendatzen diren kasuetan, hargatik eragotzi gabe prestazioaren titularra aldatzeko aukera, 23. artikuluan aurreikusitako moduan:

a) Titularraren heriotza.

b) Titularra funts publikoekin osorik finantzaturako egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario batean sartzea, segidako hamabi hilabete baino gehiagoz, eta espetxe batean sartzea, erregimen arruntean edo itxian.

c) Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalerako eskubideari eta ebazpenari uko egitea, hartzailleak uko egin diolako.

d) Ezohiko bizikidetza-unitatearen iraupen-epea igarotzea.

2. Prestazioari eusteko eskatutako baldintzaren bat galtzen bada, ez da azkentzea deklaratu, baldin eta ebazpena emateko unean prestazioa eskuratzeko eta mantentzeko baldintzak betetzen badira, hargatik eragotzi gabe bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra.

3. Prestazioaren azkentzea lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioa bada, prestazioaren titularrak ezin izango du diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu urtebeteko epean, azkentzeko ebazpena irmoa den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Erantzukizunpeko adierazpenean funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo omisioak direla-eta prestazioen titular eta onuradunei beren eskubidea galdutzat jotzen zaienean, ezin izango da prestazioa eskatu bi urteko epean, ebazpena irmoa den egunetik aurrera zenbatzen hasita, hargatik eragotzi gabe zehapen-erantzukizuna, halakorik egokitzen bada.

Paragrafo honetan aipatutako aldiak zenbatzeko, prestazioa osorik etenda egon den denbora hartuko da kontuan, baldin eta etetea azkentzea eragin duten egitate berberengatik gertatu bada.

4. Ebazpenak prestazioa azkentzeko arrazoiak zehaztuko du, eta, hala badagokio, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra deklaratu du..

50. artikulua.- Prestazioa azkentzearen ondorioak pertsona adingabeak barne hartzen dituzten bizikidetza-unitateetan

1. Lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak prestazioa azkentzea dakarrenean eta pertsona adingabeak barne hartzen dituzten bizikidetza-unitateei eragiten dienean, salbuespen gisa, eta aurreko artikuluko 3. paragrafoan aipatutako aldian, adingabe horiei diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortuko zaie, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Adingabearen legezko ordezkariaren eskaera.

b) bizikidetza-unitatea osatzen dutenek eskubidez jaso ditzaketen pentsio eta prestazio publiko guztiak aldeztu aurretik eskatzea, salbuespenik gabe, 16.1.e) artikuluaaren bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatu gabe.

c) Eskubidea egiten den unean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea. Baldintza hori bete beharko da ebazpena ematen den datan eta jasotzen den denboran.

2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta honela kalkulatu da: oinarrizko zenbatekoaren eta bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztien errenta eta diru-sarrera erabilgarri guztien arteko aldea, 34. artikuluan ezarritako arauen arabera.

3. Adingabeen legezko ordezkariak 28. artikuluko 1.a), b), g) eta h) letretan aipatzen diren betebeharrak betetzeko erantzukizuna izango dute; azken letra hori adingabeei eta, nolanahi ere, bizikidetza-unitatearen osaerari, haren helbideari eta hura osatzen duten pertsonen baliabide ekonomikoak eragiten dieten inguruabarrak jakinarazteko betebeharrari dagokiola ulertu behar da.

4. Aurreko paragrafoan aipatutako betebeharrak ez betetzeak eragotzi egiten badu diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko eta hari eusteko baldintzak betetzea, prestazioa azkentzea erabakiko da, eta ezin izango da berriro eskatu artikulua honen babesean.

Prestazioaren azkentzea betearazlea izango da hura deklaratzeko duen ebazpena irmoa denean.

III. KAPITULUA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

51. artikulua.- Definizioa

1. Gizarte-larrialdietarako laguntzak pertsona hauei zuzentzen zaizkie: gizarte-bazterketako arriskua edo egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei —ohikoei edo ezohikoei— aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutenei.

2. Nolanahi ere, laguntza hauen bitartez honako gastu hauek estali ahal izango dira:

a) Ohiko etxebizitza edo bizitokia erabiltzeko eta mantentzeko beharrezkoak direnak, hala nola:

1. Alokairu-gastuak,

2. Kredituen interesek eta amortizazioek eragindako gastuak, gizarte-larrialdiko egoeraren aurretik eginak, etxebizitza edo bizitoki bat eskuratzeko ondoriozkoak. Erregelamendu bidez, egoera horren ondoren egindako gastuei aplikatzeko aukera ezarriko da,

3. Energia-gastuak,

4. «Linea zuriko» etxetresna elektrikoei eta altzariei lotutako gastuak,

5. Etxebizitza egokitzeko, konpontzeko eta/edo oinarrizko instalazioetarako gastuak,

6. Ohiko etxebizitza edo bizitokia erabili eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk. Kontzeptu horren barruan, honako hauen gastuak sartzen dira: ura, zaborra, estolderia, hiri- eta landa-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga, jabeakideen erkidegoaren kuotaren ondoriozkoak eta etxebizitzaren segurtasunari eta eraikinen segurtatze eta ikuskapen teknikoari lotutakoak, eta

7. Etxebizitza berri batean bizitzeko jartzearekin lotutako ezohiko gastuak, hala nola fidantza, horniduretan alta ematea, egokitzea eta abar.

b) Pertsonen oinarrizko beharrei lotutako gastuak, hala nola sistema publikoek betetzen ez dituzten arropari, hezkuntza eta prestakuntzari eta osasun-arretari lotutakoak.

c) Zorpetze-gastuak, a) eta b) letretan aipatutako kontzeptuetakoren bati lotuak, edota bizitzeko oinarrizko beharrei erantzuteko beharrezkoak diren gastuak egitearen ondoriozkoak.

3. Laguntza horiek jaso ahal izango dituzte bakarrik bizi diren pertsonak, 25. eta 26. artikuluetan aipatzen diren bizikidetza-unitateetako batean dauden pertsonak, edota etxebizitza

edo bizitoki berean familia-loturak dituzten pertsonak, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

52. artikulua.- Ezaugarriak eta etxebizitza-gastuetarako prestazio ekonomikoarekiko bateragarritasuna

1. Gizarte-larrialdietarako laguntzek honako ezaugarri hauek dituzte:

a) Finalistak dira, eta ematen diren xedera bideratu behar dira.

b) Subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak dira era guztietako gizarte-baliabide eta -prestazio ekonomikoekiko, halakorik egokitzen bazaie onuradunei, haren bizikidetz-unitateko kideei, eta, hala badagokie, etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuei, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

c) Besterenezinak dira, eta ezin izango dira eskaini obligazioen berme gisa, osorik edo zati batean laga, konpentsatu edo deskontatu, haiei lotuta bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik. Ezin izango dira atxiki edo bahitu, Estatuko legeria zibilean eta prozesalean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

d) Gizarte-prestazio asistentzialaren izaera dute, ez diru-laguntzarena, eta, emateko, helburu horretarako kredituak esleituta egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan. Edonola ere, euskal administrazio publikoek urtero esleituko dituzte laguntza horiei lotutako gastuei aurre egiteko nahikotzat hartzen dituzten zenbatekoak.

2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak bateragarriak izango dira etxebizitza-gastuetarako prestazio ekonomikoarekin, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan, alokairu-gastuak ordaintzera bideratzen direnean izan ezik, bateraezinak izango baitira prestazio horrekin.

53. artikulua.- Eskuratzeko betekizunak

1. Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izan ahalko dira honako betekizun hauek betetzen dituztenak:

a) 18 urtetik gorakoa izatea. Gutxieneko adin-muga hori salbuetsita egongo da adin horretara iristen ez diren eta gainerako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, betiere 26. artikuluan ezohiko bizikidetz-unitatetzat hartzeko ezarritako kasuren batean badaude.

b) 25. eta 26. artikuluetan aipatzen diren bizikidetz-unitateetako batean sartuta egotea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, modu jarraituan, eskaera egin aurre-aurreko gutxienez sei hilabeteetan.

Epe hori bete ezean, eskaera egin aurreko hamar urteetatik bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egon eta benetan bizi izan beharko dute.

d) Beren bizikidetz-unitateko kideak eraginpean hartzen dituzten eta 51.2 artikuluan aurreikusita dauden gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez izatea; nolana ere, baliabide nahikorik ez dagoela ulertuko da honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Azken urtean edo, prestazioak zer gastutarako eskatzen diren, gastu horiek lotzen zaizkion edo lotuko zaizkion aldiak, etekin jakin batzuk ez izatea, 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera finkatuak: eskatutako prestazioaren onuradunen kopurua kontuan hartuta, egokitu daitekeen gehieneko errenta bermatuaren balioaren % 150 baino handiagoak.

- Onuradunak bizileku berean bizi badira beste batzuekin, eta haiekin lotura badute —odolkidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna, bigarren gradurainokoa, adopzioa, familia-harrera iraunkorra edo adopzio aurreko harrera—, pertsona horiek guztiek, dagokion aldiak, aipatutako

loturen bidez erlazionatutako pertsona guztiei legokiekeen erreferentziako balio ekonomikoaren % 300etik gorako etekinik ez izatea.

e) Bizikidetzatza-unitateari urtebetean legokiokeen gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoa halako bost baino ondare handiagoa ez izatea, eskatutako laguntzaren onuradunen kopurua kontuan hartuta.

f) Etxebizitza-arloan eskumena duen sailaren Etxebide zerbitzuan etxebizitza-eskatzaile gisa inskribatuta egotea, gizarte-larrialdietarako laguntzak alokairu-gastuak ordaintzera bideratzen direnean.

g) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratuta egotea, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

h) Premia ekonomikoko egoera pairatzea, 37. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

i) Eskubidez dagozkien pentsio eta prestazio publikoak eskatu izana.

54. artikulua.- Prestazioen eta onuradunen konkurrentzia

1. Erregelamendu bidez ezarriko zaie gehieneko muga etxebizitza edo bizitoki berean jaso daitezkeen gizarte-larrialdietarako laguntzei. Halaber, konkurrentzia-kasuetan laguntza bakoitzerako eman daitezkeen gehieneko zenbatekoak ezarriko dira.

2. Bizitoki kolektiboetan bizi diren pertsonen dagokienez, erregelamendu bidez ezarriko dira gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izateko baldintzak. Nolanahi ere, administrazio publiko eskudunek prestazioa bermatzen ez dieten gastu edo zerbitzuetarako jaso ahal izango dira laguntzak.

3. Etxebizitza edo bizitoki berean onuradun-izaera izan dezaketen eta prestazioak gastu berari aurre egiteko eskatu dituzten zenbait pertsona bizi badira, haietako bati baino ezin izango zaizkio eman gizarte-larrialdietarako laguntzak.

55. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Jasotako prestazioak eman ziren helbururako erabiltzea.

b) Eskubidez dagozkien pentsio eta prestazio publikoak eskatu izana.

c) Hauen berri ematea, erregelamenduz ezartzen den epean: gerora gertatutakoak, prestazioak eskuratzea ekar dezaketen betekizunak betetzearekin zerikusia dutenean.

d) Hauen berri ematea, erregelamenduz ezartzen den epean: onuradunen ohiko bizilekuari lotutako edozein aldaketa.

e) Bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea.

f) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hala eskatzen zaienean.

g) Gizarte-larrialdietarako laguntzen xede eta helburuaren ondoriozkoak diren eta erregelamendu bidez finkatzen diren guztiak.

56. artikulua.- Erreferentziako balio ekonomikoa

1. 53. artikuluan adierazitako ondorioetarako, gizarte-larrialdietarako laguntzen erreferentziako balio ekonomikoa honako hauen batura izango da: oinarritzko zenbatekoa,

laguntzaren onuradun bakoitzeko osagarri indibidualak eta onuradunak sartuta dauden bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak.

2. Oinarrizko zenbatekoaren eta osagarrien balioa 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoa izango da.

57. artikulua.- Zenbatekoa zehaztea

1. Erregelamendu bidez ezarriko dira gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko zenbatekoak, 51.2 artikuluan aurreikusitako gastu bakoitzari dagozkionak.

2. Nolanahi ere, eskatzaile bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa zehaztean, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Berariazko gastu bakoitzerako aplikatu beharreko gehieneko zenbatekoa, honako hauen arabera zehaztua:

1. Eskatzailearen eta laguntzen gainerako onuradunen baliabideak, 37. eta 38. artikuluetan ezarritakoaren arabera zenbatuko direnak.

2. Egindako edo egin beharreko berariazko gastuen zenbatekoa.

3. Artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatutako gehieneko zenbatekoak.

b) Aplikatu beharreko gehieneko zenbatekoa honako hauek kontuan hartuta finkatuko da:

1. Helburu horretarako esleitutako kredituaren existentzia.

2. Gizarte-zerbitzuen balorazioa, ea gastua behar izateko egoera benetakoa eta premia-egoera den, eta ea laguntza horiek egokiak diren premia-egoera horri ekiteko.

3. Erregelamenduz ezarriko da onuradunek ondorengo aldietan jaso ahal izango duten gehieneko zenbatekoa mugatzeko aukera. Aukera hori kasuaren balorazio teknikoari lotuko zaio, eta balorazio hori erreferentziazko oinarrizko gizarte-zerbitzuan egingo da.

Laguntzak ohiko etxebizitza edo bizitokia eskuratzeko kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuei aurre egitera bideratzen direnean, eta etxebizitza edo bizitokia ezohiko baliokotzat jotzen denean, laguntzek ezin izango dute gainditu erregelamendu bidez finkatutako zenbatekoa eta urte kopurua.

Nolanahi ere, muga horiek ez zaizkie aplikatuko bizikidetza-unitateei, kideetako batek 60 urte baino gehiago dituenean.

58. artikulua.- Laguntzak ematea

1. Ebazpen-proposamen teknikoak barne hartuko du gizarte-zerbitzuen egiaztapena, benetako behar-egoera izateari buruzkoa, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio.

2. Emateko ebazpenak epe bat ezarriko du egindako gastuen egiaztagiria aurkezteko.

59. artikulua.- Aldizkako berrikuspenak

Erregelamendu bidez ezarriko denari jarraikiz, organo eskudunak egokitzen jotzen duen behar beste berrikuste egin ahal du, aldian-aldian, laguntza ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirauten egiaztatze. Horretarako, administrazioaren aurrean agertzeko eta harekin elkarlanean aritzeko eskatu ahal izango zaie laguntzen onuradunei

IV. KAPITULUA - INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIO EKONOMIKOEN ETA LAGUNTZEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

60. artikulua.- Prestazio ekonomikoetarako eskubidea eta prestazioen ordainketa.

1. Diru Sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea eskaera aurkeztu eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera sortuko da.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestaziorako eskubideak bere berariazko araudiari jarraituko dio.

2. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak hilean behin ordainduko dira, prestazioaren titularraren kontu baterako banku-transferentzia bidez edota behar bezala baimendutako beste ordainketa modalitate batzuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren araudian xedatutakoari jarraikiz.

61. artikulua.- Gizarte-larrialdietarako laguntzen ordainketa

1. Gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko ebazpenean aurreikusitako moduan ordainduko dira laguntzok, eta ebazpena eman duen organoari dagokio ordaintzea.

2. Gizarte-zerbitzuek zehazten dutenari jarraikiz, laguntzak zatika edo aldi bakarrean ordaindu ahal izango dira. Laguntzak emateko ebazpenak zehaztuko du ordaintzeko modua.

62. artikulua.- Iraungitzea

1. Prestazio ekonomikoak oroharreko prezioan eta behin bakarrik jasotzeko eskubidea urtebetera iraungiko da, prestazioaren aitortpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Aldizkako prestazioen kasuan, hileroko bakoitza jasotzeko eskubidea prestazioaren mugaegunetik urtebetera iraungiko da.

3. Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskubidea urtebetera iraungiko da, laguntzok eman direla jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

63. artikulua.- Prestazio eta laguntza ekonomikoen muga ekonomikoa

1. Urteko zenbatekoak kontuan hartuta, bizikidetza-unitatearen diru-sarrerei gehituz gero bizikidetza-unitate berari eman zaizkion Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio eta laguntzak, batura horrek ezin izango du gainditu gehieneko errenta bermatu honen % 200a: titularraren bizikidetza-unitatearen ezaugarri berdinak dituen bizikidetza-unitate bati urtean egokituko litzaiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentari aplikatu beharrekoa.

Aurreko paragrafoan aipatutako mugaren aplikazioaren ondorioetarako, gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunak, aribideko urtean, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen baten onuradun izan ez badira, hauek batuko dira: onuradunen diru-sarrerak eta gizarte-larrialdietarako laguntza gisa emandako zenbatekoaren urteko guztizkoa.

2. Ohiko etxebizitza edo bizitokia erosteko hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuei aurre egiteari dagokionez, gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunek jaso ahalko duten gehienezko zenbatekoak ezin izango du erregelamendu bidez ezarritakoa gainditu.

64. artikulua.- Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoak eta laguntzak itzultzea

1. Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoak itzuli beharra deklaratu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bai eta itzultzea exijitu ere, baldin eta halakorik ateratzen bada zehapen-prozedura batetik, zenbatekoa eguneratzeko prozedura batetik, prestazioak kontrolatzeko prozedura batetik, eskubideak deklaratzeko egintzak berrikusteko prozedura batetik eta bidegabe jasotako zenbatekoak daudela erakuts dezakeen beste edozein prozeduratik.

Erregelamenduz ezarriko da bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedura, zeina ez baita sei hilabetetik gora luzatuko. Ahal bada, eta administrazioa sinplifikatzearen printzipioari jarraikiz, espediente bateratu batean izapidetuko da, aurreko paragrafoan aipatutako prozedurekin.

2. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistematik bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra betearazlea izango da hori adierazten duen ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik aurrera, eta, zor osoa behingoan eta borondatez ordaintzen denean izan ezik, konpentsazio bidez beteko da, zor den zenbatekoa aitortutako prestazioen zenbatekotik deskontatzearen bidez, erregelamendu bidez finkatuko diren arauei jarraikiz.

Prestaziorako eskubiderik ez badago edo jaso beharreko zenbatekoa itzuli beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, bidegabe jasotako zenbateko bat itzultzeko betebeharra deklaritzen duen ebazpen irmoaren jakinarazpenak edo ordaindu gabeko zorra erreklamatzeko egintzaren jakinarazpenak hasiera emango dio diru-bilketa prozedurari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduari jarraikiz; horren arabera, zorraren ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango da, borondatezko aldia zein betearazpenekoan, betebeharra duen pertsonak aldeztu aurretik hala eskatuta.

3. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen titularrek eta onuradunek, eta egitate, omisio, negozio edo egintza juridikoen bitartez prestazio bat iruzurrez lortzen parte hartzen dutenek erantzukizun solidarioa izango dute bidegabe jasotako prestazioak itzultzeari dagokionez.

4. Bidegabe jasotako prestazioak itzultzearen bidez lortzen diren zenbatekoak hasierako helburu berera bideratuko dira, ezartzen den prozedurari jarraikiz.

5. Gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketa bere gain hartzen duen udalak, foru-aldundiak edo udalaz gaindiko erakundeak hauek itzultzeko betebeharra ezarriko die onuradunei: justifikatu gabeko zenbatekoak eta bidegabe edo bidegabeko zenbatekoan jasotakoak, lege honetan aurreikusitako kasuetan.

Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, udalak, foru-aldundiak edo udalaz gaindiko erakundeak ofizioz jo ahal izango du indarrean dauden gizarte-larrialdietarako laguntzen prestazioak konpentsatu edo deskontatzera, laguntzok onuradunaren bizikidetzaren unitatearen kideetako edozeini badagozkio.

Itzultzeko eta konpentsatzeko araubidea erregelamendu bidez finkatuko da.

65. artikulua.- Preskripzioa

1. Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoak eta laguntzak itzultzeko betebeharraren preskripzioa bi urteren buruan gertatuko da, kobratzeko datatik edo itzultzea eskatzeko akzioa baliatu ahal izan zenetik aurrera zenbatzen hasita, alde batera utzita zein den bidegabeko pertzepzio hori eragin zuen arrazoia.

2.– Preskripzio-epea honako kasu hauetan etengo da:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo toki-erakundeak, betebeharra duen pertsonak horren berri formala izanik, betebehara osoa edo zati bat aitortu, egiaztatu, berrikusi, ikuskatu, likidatu edo kobratzeko egiten duen edozein ekintzagaratik,

b) artikulua honetan aipatzen diren eskubideei lotutako administrazio- edo jurisdikzio-errekurtsoak jartzeagatik,

c) betebeharra duen pertsonak bidegabe jasotako prestazioak aitortu, likidatu edo ordaintzeko egiten duen edozein jarduketagatik, eta

d) betebeharra duen pertsonari bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko errekerimendua egiteagatik, jasota geratzeko moduko edozein baliabideren bitartez, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomiko edo laguntzaren bat aitortzera bideratutako edozein izapide egitean.

3. Preskripzioa ofizioz deklaratu da bilketa-prozeduraren edozein unetan, ordainketaren arduradunak preskripzioa eskatu edo salbuespena aurkeztu beharrik izan gabe.

III. TITULUA

PROZEDURAK

I. KAPITULUA-XEDAPEN OROKORRAK

66. artikulua.- Eskumena

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak aitortu eta kontrolatzeko eskumena Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio.

2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak aitortu eta kontrolatzeko eskumena eskatzailea errolatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalari dagokio.

67. artikulua.- Oinarrizko printzipioak

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari lotutako ahalak baliatzeko prozedurek honako printzipio hauek dituzte oinarri: inpartzialtasuna, *pro actione*, berdintasuna, proportzionaltasuna, fede ona, konfiantza legitimoa, sinplifikazioa, argitasuna, publikotasuna eta gardentasuna, konfidentzialtasunaren errespetua eta informazioaren segurtasunaren bermea baita administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriaren ondoriozkoak ere.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak herritarrengana bideratuko du bere jarduketa, euskal sektore publikoari buruzko legerian xedatutakoari jarraikiz.

68. artikulua.- Pertsonen eskubideak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta udalek, bakoitzak bere eskumenak baliatuz, datu pertsonalen babesa eta pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideen eraginkortasuna bermatuko dituzte, administrazio-prozedura erkideari buruzko legeria aitortzen baititu.

2. Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bermatu egingo du aurreko artikuluan xedatutakoaz gain, 9. artikuluan aitortutako eskubideak, aplikatu beharreko alderdietan, eta administrazio egokirako eskubidea, euskal sektore publikoari buruzko legerian ezarritako moduan. Bereziki:

a) Administrazio-babes eraginkorrerako eskubidea bermatuko du, hau da, bere iritzipean jarritako gaiei buruzko erabaki bat lortzeko aukera, eta eskubideak, erreklamazioak edo errekurtsioak ebatzi beharko ditu, interesdunen eskubideak erabat errespetatuz, bat etorrita ordenamenduan eta lege ezarritako prozeduraren esparruan aurreikusitako helburuekin.

Bereziki, erabakiak interesdunaren inklusio-prozesuan edo bazterketa-egoeraren okerragotzean izan dezakeen eragina hartuko du kontuan; nolanahi ere, hori kontuan hartzeak ezin izango du ordenamenduaren aurkako erabakirik babestu.

b) Ardura-betebeharra betez eta behar bezalako arretarekin jardungo du, zerikusia duten interes eta egitate garrantzitsu guztiak haztatu eta kontuan hartuko ditu, eta edozein administrazio-prozeduratan interesa dutenei legez eta konstituzioz aitortzen zaizkien berme eta eskubideen erabateko eraginkortasuna zainduko du. Nolanahi ere, interesdunei ezin izango zaizkie ezarri alferrikako zamak, ilogikoak do neurritz kanpoak, ez eta jarduketak egin edo dokumentuak aurkeztu beharra ere, Administrazioak berak egin ditzakeen egiaztapenak edo izapideak egitera zuzenduta badaude.

c) Bere esku dagoen eta prozeduraren barruan azkenean hartutako erabakian eragina izan dezakeen informazio juridiko garrantzitsua emango die interesdunei; hargatik eragotzi gabe gardentasunari, informazio publikoari eta gobernantza onari buruzko legeriaren ondoriozko betebeharrak betetzea. Hori betetzeak ez du esan nahi informazio juridiko zehatza eman behar denik, eta ez du neurritz kanpoko kargarik eragingo.

d) Pertsona orok du entzuna izateko eskubidea, kalte egingo dion neurri indibidual bat erabaki aurretik. Eskubide hori aplikatuz, interesdunak espedientea eskuratzeko aukera bermatuko du, espedientean sartutako frogak, txostenak, dokumentuak eta abarren berri emango dio, eta entzunaldia eskainiko dio, betiere haien ezagutza defentsa-eskubidea eraginkortasunez baliatzeko garrantzitsua izan badaiteke.

e) Pertsonen interesei eragiten dieten erabakiak arrazoitze eskubidea bermatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ebazpenek argi eta hizkera ulargarrian adieraziko dituzte erabakiari eusten dioten egitate eta oinarri juridiko garrantzitsuak.

f) Erabakiak lege ezarritako epearen barruan hartzeaz gain, neurritz kanpoko atzerapen oro saihestuko du izapideak eta epeak betetzean, eta debekatuta geratuko dira prozedura bidegabe atzeratzen duten jokabide zabarrak eta luzagarriak.

g) Prozedurei buruzko ebazpenean, faktore garrantzitsuak hartuko ditu kontuan, eta baztertu egingo ditu garrantzitsuak ez direnak.

Era berean, lege honen helburuen aurkako egoerek irautea eragotziko du, betiere haien ondorioak ordenamenduan aurreikusitako ahalak baliatuz arindu badaitezke eta egoera horiek interesdunen ekintzaren edo omisioaren ondoriozkoak soilik ez badira.

h) Ordenamenduan aurreikusitako administrazio-errekurtsoen baliagarritasuna eta funtzionaltasuna bermatzeko, orobat defentsa-eskubidearen zerbitzurako daudela, administrazio-bidean irmoak direnean baino ez ditu betearaziko kontrako administrazio-egintzak; nolanahi ere, nahitaezko zein aukerako administrazio-errekurtso bat ebazteko epea igarotze hutsak ez du ahalbidetuko errekurtsoren xede den egintza betearaztea.

Letra honetan xedatutakoa ulertuko da deusetan galarazi gabe 46.1 artikuluan eta 49.1 artikuluko bigarren paragrafoan bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudian xedatutakoa.

69. artikulua.- Harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubidea

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen eta laguntzen titular eta onuradun guztiek eskubidea izango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin eta udal eskudunekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko. Nolanahi ere, oinarritzko eskubideak, diskriminaziorik eza, eskubide-berdintasuna (erabilitako baliabidea edozein izanik ere) eta pertsona guztiek zerbitzuak bitarteko digital eta analogikoen bidez eskuratzeko aukera bermatuko dira.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako eskubidea gauzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak honako hauek bermatuko dizkie Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen titular eta onuradun guztiei:

a) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari lotutako ahalak baliatzen diren prozedurak izapidetzeko eskuragarri dauden zerbitzu elektronikoen eta aplikazioen eskuragarritasuna, batez ere desgaitasuna duten pertsonentzat eta adinekoentzat; nolahi ere, eskaintako informazioa eskuragarria eta ulergarria dela ziurtatuko da, bai eta parte-hartzea ere eraginkorra dela.

b) arrakala digital mota guztien desagerraraztea, bazterketa digitalik ez jasateko eskubidea babestuz,

Horretarako, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-ekintzen eskaintza (Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen titularrak eta onuradunak inklusiorako ibilbide pertsonalizatuaren parte gisa) bitarteko elektronikoen bidez edozein zerbitzurekin harremanetan jartzeko oinarritzko trebetasun digitalak eskuratzera eta, hala badagokio, lan-trebakuntzako lanbide-gaitasunak egiaztatzerako bideratuta egongo da.

Prestakuntza-eskaintza, ahal bada, gaitasun digitalean mailarik txikiena duten kolektiboetara zuzenduko da, eta, bereziki, sexuan oinarritutako desberdinkeria desagerraraztera bideratuko da.

c) identifikazio digitaleko, autentifikazioko eta sinadura elektronikoko sistemen doako eskuragarritasuna (eska daitezkeen heinean) eta erabiltzaileentzako konektagarritasun-puntu seguru, doako eta kalitate handikoen instalazioa,

d) lineako laguntza eta laguntza presentziala, desgaitasuna duten pertsonen, adinekoen eta bitarteko elektronikoen erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen zerbitzu elektronikoetarako irisgarritasun osoa dutela bermatuko duena.

e) tratatutako informazioaren osotasuna, konfidentzialtasuna eta egiazkotasuna bermatzen duten segurtasun-neurriak hartzea.

3. Erregelamendu bidez, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak gaitu ahal izango dira, interesdunen ordezkari gisa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko.

70. artikulua.- Bitarteko elektronikoen bidezko izapidetzea

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bitarteko elektronikoen bidez gauzatuak ditu Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari lotutako ahalak baliatzeko prozedurak, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduan.

71. artikulua.- Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak eta jakinarazpenak

1. Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak eta jakinarazpenak administrazio-prozedura erkidearen araudiari jarraikiz egingo dira, eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren administrazio elektronikoari buruzko araudian xedatutakoari jarraikiz.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestazioen titular edo onuradunei egiteko komunikazio batzuk —hain zuzen ere, enplegu-eskaintzei edo prestakuntzari buruzkoak, hautaketa-prozesuetan parte-hartzeari lotutakoak, egoeraren eta premien hasierako balorazioaren eta Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren inguruko izapideen betetzeari lotutakoak eta 29. artikuluan aipatzen diren agerraldietarako zitazioak—, pertsona horiek emandako datuen arabera, posta elektroniko bidez,

telefono-kanal finko zein mugikor bidez, internet bidez edo erregelamenduz finkatzen diren beste kanal batzuen bidez egingo dira.

Erabilitako baliabideek bermatu egingo dute hauek jasota geratzea: komunikazioa bidali eta hartu izana interesdunak identifikatutako kanalean edo gailuan, bai eta komunikazioaren data eta eduki osoa ere.

II. KAPITULUA – PRESTAZIO EKONOMIKOEN AITORPENA

1. ATALA-PROZEDURA

72. artikulua.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko prozeduraren hasiera

1. Prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Horretarako, eskaera aurkeztu beharko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezartzen duen eredu normalizatuaren arabera, eta hauek erantsi: lege honetan eta garatzen duten arauetan ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, hala badagokio, 78. artikulua aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

Interesdunei ez zaizkie eskatuko aurrez beste edozein administrazioan aurkeztu dituzten datuak edo dokumentuak. Horretarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organori aurkeztu zizkion. Euskal Enplegu Zerbitzuak elektronikoki lortu beharko ditu, interesdunak berariaz aurka egiten duenean edo aplikatu beharreko lege bereziak haren berariazko baimena eskatzen duenean izan ezik.

2. Eskaera, ahal bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistro elektronikoa aurkeztuko da, hargatik eragotzi gabe administrazio-prozedura erkidearen legeriak xedatu duena interesdunek administrazio publikoetako organoei zuzendutako dokumentuen aurkezpenari buruz.

73. artikulua.- Zuzenketa

1. Aurkeztutako dokumentazioan hutsuneak, erroreak edo kontraesanak detektatzen badira edo aurkeztutako dokumentazioari irizten bazaio osatu beharra duela eskatutako betekizunak egiaztatzeko, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu dezan edo eskatutako dokumentuak aurkeztu ditzan, eta adieraziko zaio hori egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

2. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etenda geratuko da interesdunari zuzenketa egiteko errekerimendua egiten zaionean, errekerimendua jakinarazten denetik benetan betetzen den arteko aldiaren.

74. artikulua.- Instrukzioa

1. Prozeduraren instrukzioan, diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko betekizun erabakigarriak betetzen direla egiaztatuko da, administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian aurreikusitako moduan.

2. Interesdunari entzunaldiaren izapidea bermatuko zaio, eta hamar eguneko epea izango du, baina izapide hori egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik.

75.- Ebazpena

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dagokion ebazpena emango du, eta gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinaraziko du, eskaera organo eskudunaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren berariazko ebazpena jakinarazi ez bada, eskaera baietsizat hartuko da.

2. Prestazioa aitortzen duen ebazpenak hilean jasoko den zenbatekoa finkatuko du, baita aitortpenak zer egunetik aurrera izango dituen ondorio ekonomikoak ere.

76. artikulua.- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren aitortpena

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren aitortpenak, prestazioa eskuratzeko betekizunen egiaztapenak, eskaera ebazteko epeak eta administrazioaren isiltasunaren ondorioek beren araudiari jarraituko diote.

77. artikulua.- Eskaera-eredu normalizatuak

1. Eredu normalizatuak Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen eskaera egitea ahalbidetuko dute, eta eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa identifikatuko dute (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez duelako edo beste administrazio publiko batzuekin informazioa trukatzeko une bakoitzean gaitutako sistemen bidez lortzerik izan ez delako). Halaber, aukera emango du dokumentazio hori erantzukizunpeko adierazpenekin ordezteko, lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudian aurreikusitako moduan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eguneratuta izango ditu eskaera-eredu normalizatuak, eta jendearentzat eskuragarri egongo dira bere bulegoetan, bere egoitza elektronikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoan.

2. Eskaera-eredu normalizatuak honako erreferentzia hauek bilduko dituzte gutxienez:

a) Eskaera edo eskaerak ebazteko epeari eta administrazioaren isiltasunaren ondorioei buruzko informazioa, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio bakoitzari dagozkionak bereizita.

b) Eskatzailea jakinaren gainean jartzea behartuta dagoela eskaeraren datuetan izandako edozein aldaketaren berri ematera, eta, errekerimendua egiten zaionean, aldaketa horiek egiaztatzeke dokumentazioa aurkeztera.

c) Eskatzailearen adierazpena, eskaeran eta hari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla eta datuak faltsuak edo okerrak izatearen edo datuak ezkutatzearen ondorioen berri baduela adierazten duena.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari 71.2 artikuluan aipatzen diren komunikazioak egitea ahalbidetuko dioten telefono finkoaren, gailu mugikorren, helbide elektronikoaren edo erregelamenduz finkatutako beste gailu edo sistema batzuen identifikazioa.

e) Eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko aukeratu duen birtualitatearen hautaketa.

f) Beharrezkoa denean, beste administrazio publiko batzuetatik dokumentuak edo informazioa biltzeko baimena ematea, eta, hala badagokio, interesdunak aurka egiteko eskubidea baliatzea.

g) Datuak babesteko legeria betez interesdunei eman beharreko informazioa.

3. Eskaerarekin batera dokumentaziorik aurkeztuz gero, dokumentazio hori baliagarria izango da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen

betekizun komunak egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe eskatutako prestazio bakoitzaren berezkoak.

4. Eskaera-eredu normalizatuak hizkera argian idatzita egongo dira, eta sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzko araudian aurreikusitako irisgarritasun-betekizunak beteko dituzte.

2. ATALA -ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

78. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenak diru-sarrerak bermatzeko errentan

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute eskabidearekin batera. Adierazpen horretan, berariaz adieraziko dute, beren erantzukizunpean, lege honetan prestazio hori aitortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela, hori egiaztatzen duen dokumentazioa dutela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jarriko dutela eskatzen zaienean, eta konpromisoa hartzen dutela prestazioa jasotzen duten bitartean betebeharrak horiek betetzen jarraitzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak egingo ditu, eta eguneratuta eta jendearentzat eskuragarri edukiko ditu bulegoetan, egoitza elektronikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoan.

2. Erantzukizunpeko adierazpena soilik aurkeztuko da administrazioak ezin badu diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera osatzeko beharrezkoak diren dokumentuak modu telematikoan egiaztatu, edo dokumentu horiek bere esku ez badaude.

79. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenaren ondorioak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestazioa aitortuko du, eta prestazioak ondorioak izango ditu erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera, hargatik eragotzi gabe esleitura dituen kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, diru-sarrerak bermatzeko errenta ez da aitortuko apartatu horretan aurreikusitako baldintzetan, eta 72-75. artikuluetan aipatzen den izapidetzeari jarraitu beharko zaio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura dagoen dokumentazioaren egiaztapenak, eskatzaileak aurkeztu duenak edo informazioa trukatzeko sistemen bidez egiten denak agerian uzten duenean prestazioa eskuratzeko betekizunen bat betetzen ez dela.

Halakoetan, interesdunari zirkunstantzia hori jakinaraziko zaio, prestazioa aitortzea eragozten duten egitate edo datuen berri emango zaio, eta prozeduraren izapidetzea bultzatuko da. Egintza horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

3. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren aitorpena, erantzukizunpeko adierazpenetan oinarritua, hurrengo kapituluan ezarritakoaren arabera kontrolatuko da.

80. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenak bizitzeko gutxieneko diru-sarreran

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskaerari erantsitako erantzukizunpeko adierazpenen aurkezpena eta haien ondorioak berariazko araudiaren arabera erregulatuko dira.

III. KAPITULUA-ZENBATEKOAREN EGUNERATZEA ETA PRESTAZIO EKONOMIKOEN KONTROLA

81. artikulua.- Zenbatekoaren eguneratzea

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa eguneratzeko prozedura, 34. artikuluan aurreikusitakoa, ofizioz hasiko da hiru hilean behin. Zehazki, bizikidetza-unitatearen osaera eta osatzen dutenen inguruabar pertsonalak eta aldi horretan lortutako errenta eta diru-sarrera guztiak egiaztatuko ditu, eta hurrengo hiruhilekoari dagokion prestazioaren zenbatekoa finkatuko du.

Zenbatekoa finkatzeko, ez dira kontuan hartuko eguneratzea egiten den hilabetearen aurreko hilabeteari dagozkion diru-sarrerak, hargatik eragotzi gabe diru-sarrera horiek hurrengo aldian kontuan hartzea.

2. Zenbatekoa eguneratzeko prozeduran, kontuan hartuko dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek emandako datuak, lege honetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzeari eragiten dioten edo prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen inguruabarrak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazteko betebeharra betez.

Hala ere, egokitzen jotzen diren egiaztapenak egin ahal izango dira, beste administrazio publiko batzuekin informazioa trukatzeko sistemen bidez, betiere horiek behar bezala gaituta badaude.

3. Zenbatekoa eguneratzeko prozeduraren izapidetzeak agerian uzten badu ez dagoela prestazioaren titular izateko premia ekonomikorik, edo ez dela eskatu 42. artikuluan aurreikusitako moduan eskubidez jaso daitezkeen pentsio edo prestazio publikorik, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubide subjektiboa dagokion aldian eteteko ebazpena emango da.

Era berean, egiaztatzen bada egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario bateko plaza bat aldi baterako okupatzen dela, oso-osorik funts publikoekin finantzatua, eta, 44. artikuluan ezarritakoaren arabera, banakako osagarri bat eten behar bada, zenbatekoa eguneratzeko ebazpenean inguruabar hori jasoko da, baita etendako osagarriaren kuantifikazioa eta hurrengo hiruhilekoari dagokion prestazioaren zenbatekoaren zehaztapena ere.

4. Zenbatekoa eguneratzeko prozedurak izapidetze sinplifikatuari jarraituko dio, eta interesdunei entzunaldia emango zaiela bermatuko du, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

5. 30 eguneko epea igaro eta ebazpena eman eta jakinarazten ez bada, ulertuko da prestazioaren zenbatekoa aurreko aldian aitortutakoaren berdina dela, hargatik eragotzi gabe ebazteko betebeharra betetzetik eta, hala badagokio, kontrolatzeko ahala baliatzetik ondorioztatzen dena.

Ebazpen berantiarak ezingo du deklaratu bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egotz badakioke epe barruan ebazteko betebeharra ez betetzea.

6. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa bere araudian xedatutakoaren arabera eguneratuko da.

82. artikulua.- Kontrol-prozeduraren xedea eta hasiera

1. Kontrol-prozeduraren xedea da titularren eta bizikidetza-unitatea osatzen dutenen betekizunak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, lege honetan eta garatzen duten

xedapenetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudian xedatutakoa ~~behar bezala~~ betetzen dela egiaztatzeko.

Prozedura berari jarraituko zaio erantzukizunpeko adierazpenetan oinarritutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren aitorpenak kontrolatzeko. Kasu horietan, erantzukizunpeko adierazpenaren xede diren adierazpen eta dokumentu guztiak kontrolatuko dira, adierazpeneko datuen eta informazioaren fidagarritasuna eta zehaztasuna egiaztatzeko, baita prestazioa eskuratzeko betekizunetara egokitzen direla egiaztatzeko ere.

2. Kontrol-prozedurak sei hilabeteko iraupena izango du gehienez, eta dokumentazioa aurkezteko edo agertzeko errekerimenduarekin hasiko da. Kontrol-prozeduraren izapideak erregelamendu bidez ezarriko dira eta, ahal bada, baliabide telematikoekin egingo dira.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako prestazio guztien kontrola egingo du, gutxienez bi urtean behin.

83. artikulua.- Kontrol-prozeduraren amaiera

1. Kontrol-prozedura modu hauetako batean amaituko da:

a) Prestazioaren titularrak eta onuradunek betekizunak eta betebeharrak betetzen dituztela eta, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena eta aurkeztutako dokumentazioa bat datozela eta prestazioa eskuratzeko betekizunak betetzen direla egiaztatuko duen ebazpenaren bidez.

b) Prestazioaren zenbatekoa aldatzeko ebazpenaren bidez, baldin eta izapidetzean akats materialak edo egitezkoak agerian geratzen badira edo prestazioa aitortzean omisioak eta okerrak daudela egiaztatzen bada.

c) Prestazioa eteteko edo azkentzeko ebazpenaren bidez, 41. eta 48. artikuluetan aipatutako kasuetan.

d) Prestazioen titularrek eta onuradunek eskubidea galdu dutela adierazten duen ebazpenaren bidez, inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

- Erantzukizunpeko adierazpenean funtsezko okerrak, faltsutzeak edo omisioak detektatzen badira.

- Erantzukizunpeko adierazpenen kontrolean aurkeztutako dokumentazioak prestazioa eskuratzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzen ez badu edo egiaztatzeko aukera ematen ez badu.

- Interesdunak jaramonik egiten ez badio agertzeko, dokumentazioa aurkezteko edo zuzentzeko errekerimenduari, erantzukizunpeko adierazpenen kontrolaren kasuetan.

2. Aurreko paragrafoko b), c) eta d) letretan aipatutako kasuetan, ebazpenak, halaber, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra adierazi ahal izango du.

3. Prozedura hasi eta sei hilabete igarotzen badira ebazpena jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingo da. Iraungitzea deklaritzen duen ebazpenak jarduketak artxibatzeko aginduko du.

84. artikulua.- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kontrola

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa kontrolatzeko prozeduran, prestazioa jasotzeko eskubidea izateko eta mantentzeko betekizun eta baldintza erabakigarriak eta prestazioaren zenbatekoa egiaztatuko dira, haren araudiak xedatzen duenari jarraikiz.

85. artikulua.- Adimen artifizialeko sistemen erabilera prestazio ekonomikoen kontrolean

1. Kontrol-ahala baliatzean, ~~sistema algoritmikoak~~ edo adimen artifizialeko sistemak erabili ahal izango dira, baina haien aplikazioa ezin izango da zabaldu erreoreen funtsezkotasuna edo ez-betetzeak baloratzen, haiek justifika ditzaketen arrazoiak aztertu eta zehaztera, edota erabaki diskrezional bat edo inguruabarren analisi eta balorazioan oinarritutako erabaki bat hartzea dakarren beste edozein izapidetara, horiek guztiak pertsonen egingo baitituzte.

2. Erabilitako adimen artifizialeko sistemek berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatuko dutela bermatuko dute, adimen artifizialean oinarritutako datuen erabaki, prozesu eta erabilerari dagokionez.

3. Adimen artifiziala administrazio-prozedurari aplikatzeak bermatu egingo du erabakiak behar bezalako bermeekin hartzen direla; bermatu egingo du, halaber, administrazio ona izateko eskubidea, 68.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Sistema algoritmikoetan edo adimen artifizialeko beste sistema batzuetan oinarritutako administrazio-egintzek administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriaren ondoriozko printzipio eta betebeharrak eta gainerako aplikatzeak diren arauak jarraituko diete.

4. Preskripzio-epearen barruan kontrol-ahala baliatzeko aukera galarazi gabe, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako prestazioen berehalako ausazko kontrolak egingo ditu, batez ere prestazioaren aitortzea erantzukizunpeko adierazpen baten ondorioa denean.

Espedienteen hautaketan, adimen artifizialeko sistemak erabili ahal izango dira, urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-planen bezala.

5. Erabilitako adimen artifizialeko sistemak egiaztatze modukoak izango dira, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloko organo eskudunak onartu beharko ditu.

Onarpenari buruzko ebazpenak zehaztu egingo ditu sistema horien, erabilitako datuen, erreore-marjinaren eta erabakitzeko izaeraren aplikazio-esparrua eta funtzionamendu-egitura eta aurreko apartatuetan aipatutako betekizun eta bermeen betetzea, eta publizitate aktiboa emango zaio, gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko araudiari jarraituz.

IV. KAPITULUA-DATU PERTSONALAK BABESTEA ETA INFORMAZIOA EMATEA

86. artikulua.- Datuen babesa eta konfidentzialtasuna

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatu egingo du datuen babesari buruzko legeriarekiko errespetua eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak kudeatzeko espedientearen jasota dauden eskatzaile, titular, onuradun eta, hala badagokio, hartzaileen datuen konfidentzialtasuna.

2. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak kudeatzeko espedientearen jasotako datu pertsonalen tratamendua legezko betebeharrak bat betetzean oinarrituta, interes publikoaren esparruan eta ahal publikoak baliatuta egingo da, bat etorrita artikulua hauekin: 6.1.c) eta e) eta 9.2.b) eta h 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena. Datu pertsonalak lege honen jarduketa-esparruan tratatzeko, ez da pertsonen baimena behar izango, berariaz ezartzen denean izan ezik.

Lege honetan erregulatutako prozeduren esparruan dokumentazioa beste administrazio publiko batzuetatik lortzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zerga-datuak eta Gizarte Segurantzaren administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak direnez gero, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa kudeatzeko behar-beharrezkoak diren datuen lagapenak hauek bete beharko ditu: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77.1.d) artikulua, eta lurralde historiko bakoitzeko zergei buruzko foru arau orokorrean eta Tributuen Lege Orokorrean zerga-datuei buruz ezartzen dena.

4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beste administrazio edo erakunde publiko batzuei datuak komunikatzen badizkie Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioei buruz, helburutzat hartuta beharrezkoa den informazioa ematea administrazio eta erakunde haien eskumeneko prestazioak aitortu eta kontrolatzeko, oinarri juridikoa izango da lege-betebehar bat betetzea eta interes publiko bat egotea eta ahal publikoak baliatzea, artikulua hauen arabera: 6.1.c) eta e) eta 9.2.b) eta h) 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena..

Informazio hori emateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako betekizunak bete beharko dira, hargatik eragotzi gabe bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioari buruzko ebazpenei buruz xedatutakoa.

87. artikulua.- Sektore publikoko erakundeek informazioa emateko betebeharra

1. Sektore publikoko erakundeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa kudeatzera zuzendutako informazioa emateko, araudi erregulatzailean xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Sektore publikoaren eta euskal sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legeriak administrazio publikoen arteko elkarlan-eginbeharra ezarri du, eta, esparru horretan, agintariak, administrazio publikoetako organoen titularrak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak behartuta daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari behar beste informazioa ematera, bai prestazioak aitortzeko, zenbatekoaren aldetik eguneratzeko, mantentzeko, eteteko edo azkentzeko beharrezkoa dena, bai kontrolatzeko, ikuskatzeko edo zehatzeko ahala baliatzeko beharrezkoa dena; betiere, lege honetan ezarritako betekizun eta betebeharren betetzeari buruzkoa bada.

3. Bereziki, honako informazio hau emango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari:

a) Estatistikako Institutu Nazionalak eta udalek, udal-eroldari lotutako bizileku-datuak (dagokion aldikoak), eta, hala badagokio, bizilekuaren errolda historikoari eta/edo kolektiboari lotutakoak, baita prestazioen eskatzaileak eta bizikidetzak-unitatea osatzen dutenak non bizi diren edo non bizi izan diren adierazten duten datuak ere, prestazioak aitortzeko, aldatzeko eta mantentzeko garrantzitsuak direnean.

b) Justizia Ministerioak izendatzen duen erakundeak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatzen dituen datuak eta informazioa, lege honetan araututako prestazioetarako eskubidearen sorrerari, aldaketari, mantentzeari edo azkentzeari lotutako inskripzio eta datuei buruzkoak.

c) Foru-aldundietako erakunde eskudunek eta, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, prestazioen eskatzaileen eta bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsonen errenta-mailari, ondareari eta lege honetan aipatzen diren gainerako diru-sarrerari buruzko datuak, egiaztatzeko ea prestazioak jasotzeko eta mantentzeko baldintzak, bai eta ezarritako zenbateko berari eustekoak, betetzen dituzten.

d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan gizarte-prestazio ekonomiko publikoei buruz dauden datuak, honako hauek egiaztatu ahal izateko: prestazioen titularrak, onuradunak eta, hala badagokio, prestazioaren aitorpena eta

mantentzea baldintzatzen duten heinean, bizikidetza-unitatea osatzen dutenak, ordaindutako prestazioen zenbatekoak eta motak eta noiz eman ziren.

Halaber, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Gizarte Txartel Digitaleko datu hauek: gizarte-prestazio kontributiboen, ez-kontributiboen eta asistentzialen titularren identifikazio-datuak (prestazio horiek eduki ekonomikoa badute eta izaera publikoko baliabideen kontura finantzatzen badira), bai eta, prestazio horiek jasotzeko eskubidearen aitortpena eta mantentzea ekartzen edo baldintzatzen duten heinean, onuradunen, ezkontideen eta bizikidetza-unitateetako beste kide batzuen identifikazio-datuak ere, orobat ordaindutako prestazioen zenbatekoak eta motak eta prestazioa ematearen edo aitortzearen ondorio-data. Halaber, Gizarte Txartel Digitalean jasotako datu hauek: desgaitasunari, mendekotasunari, enplegu-eskariari, familia ugariei eta prestazioak aitortzeko eta mantentzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein egoera subjektibori buruzkoak.

e) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, honako datu hauek:

- langileen Gizarte Segurantzako zenbakia eta identifikazio-dokumentua;

- likidazioaldia: oinarri dagozkien ekitaldiko hilabetea eta urtea;

- Kotizazio-oinarriak, enpresek aitortutako oinarrien zenbatekoak edo langileek erregimen edo sistema berezietan kotizatu behar izan dituzten kotizazio-oinarriak, langileak dagokion likidazio-aldian kuotak ordaintzeko subjektu erantzulezat jotzen diren kasuetan;

- Oinarriak Gizarte Segurantzako zer araubideri egozten zaizkion, honako hauek zehaztuta 1) kotizazio-kontuaren kodeari (KKK) buruzko datuak, likidazioaldi bakoitzean zerbitzuak eman dituen enpresaren edo enpresen izen soziala, araubide orokorrean, sistema berezietan (nekazaritza, etxeko langileak) eta araubide berezietan (itsasokoa eta ikatz-meataritzakoa) sartutako langileei dagokienez; 2) norberaren konturako langileen edo autonomoen araubide bereziko langileei, itsasoko araubide bereziko autonomoei eta hitzarmen berezien sinatzaileei dagokienez, Gizarte Segurantzako araubideari buruzko datuak, edo, hala dagokionean, likidazioaldi bakoitzean kotizazio-oinarriak langileen zein kolektibori egozten zaizkion; 3) ikuskizun publikoetako artistei eta zezenketa-profesionalei dagokienez, langileen kolektiboaren identifikazioa, kotizazio-oinarrien zenbatekoak, urteko erregularizazioaren ondoren.

f) Foru-aldundietako eta Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko organo eskudunek, mendekotasun-graduari eta mendekotasun-mailari buruzko datuak eta desgaitasun-ziurtagirietan jasotako datuak, betiere prestazioak jasotzeko eskubidearen sorrerari, aldaketari, mantentzeari edo azkentzeari lotuta egon badaitezke.

g) Foru-aldundietako edo udaletako organo eskudunek, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan osasunaren arloan eskumena duen saileko organo eskudunek ere, izaera sozialeko, soziosanitarioko edo osasun-zerbitzuetako egoitza-zerbitzuen erabiltzaileen datuak eta egonaldi-denborari buruzko datuak, betiere osorik edo zati batean funts publikoekin finantzatuta badaude eta pertsona horien oinarritzko premiak asetzen badituzte.

h) Barne Arazoetako Ministerioak izendatzen duen erakundeak, Espainian dauden atzerriarren egoeren emate-, luzatze- edo aldatze-datak, bizileku-baimenak berritzeko, berreskuratze edo, hala badagokio, azkentzeko datak eta haien ondorioak, eta lege honetan araututako prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsonen muga-mugimenduak.

88. artikulua.- Pertsona fisiko edo juridiko pribatuek eta nortasunik gabeko erakundeek informazioa emateko betebeharra

1. Pertsona fisiko edo juridiko pribatuek eta nortasunik gabeko erakundeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari informazioa emateko, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa kudeatzeari buruzkoa, prestazio horren araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Pertsona fisiko edo juridiko pribatuak eta nortasunik gabeko erakundeak behartuta daude hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari ematera: eskatzen zaizkien datuak, txostenak, aurrekariak eta egiaztagirak, beharrezkoak direlako lege honetan aipatzen diren prestazioen aitorpenean, haien zenbatekoaren eguneratzean eta haien mantentzean, eteteen edo azkentzean; halaber, kontrolatzeko, ikuskatzeko edo zehatzeko ahala baliatzeko beharrezkoak diren datuak, betiere lege honetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzeari lotuta badaude.

3. Halaber, banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba eta banku- edo kreditu-trafikoan ari diren pertsona fisiko edo juridikoen kontu korrante, aurrezki-gordailu eta eperako gordailu, mailegu- eta kreditu-kontu eta gainerako eragiketa aktibo edo pasiboen mugimenduei buruzko informazio-errekerimenduak egin ahal izango dira, betiere lege honetan aipatzen diren prestazioen aitorpenari, aldaketari, mantentzeari, eteteari edo azkentzeari lotuta badaude; era berean, kontrolatzeko, ikuskatzeko edo zehatzeko ahala baliatzeko beharrezkoa den informazioa eskatu ahal izango da.

Informazio-errekerimenduek bete egingo dituzte erregelamendu bidez ezarritako betekizunak eta baldintzak, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloan eskumena duen organoak baimenduko ditu, edota prestazioen eskatzaileen, titularren edo onuradunen baimenarekin egingo dira. Informazio-errekerimenduan, honako hauek identifikatu beharko dira: kontuak eta eragiketak (ezagutzen badira), eraginpean hartutako eskatzaileak, titularrak edo onuradunak, eta errekerimenduak hartzen duen aldia.

4. Informazioa emateko eta artikulua honetan aurreikusitako informazio-errekerimenduak betetzeko, informazioa bitarteko elektronikoen bidez trukatzeko sistemak erabiliko dira, lehentasunez.

IV. TITULUA

IKUSKATZEKO AHALA ETA ZEHATZEKO AHALA

I. KAPITULUA-IKUSKATZEKO AHALA

89. artikulua.- Ikuskatzeko ahala baliatzea

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikuskatzeko ahala baliatuko du lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudian ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzeari dagokionez, hargatik eragotzi gabe Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzako kidegoetako funtzionarioek duten ikuskapen-funtzioa betetzea, Gizarte Segurantzaren sistemari dagokionez.

Bere jarduna legezkotasun-, objektibotasun-, eraginkortasun-, kongruentzia- eta proportzionaltasun-printzipioak betez gauzatuko da.

2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak ikuskatzeko ahala udalek baliatuko dute, Eusko Jaurlaritzak geroago egin beharreko gainerako kontrol-, jarraipen- eta ikuskapen-jarduketak galarazi gabe.

90. artikulua.- Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-plana.

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta lan-arloko eskumena duen sailak elkarrekin onartuko dute, urtero, laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-plan bat. Planaren oinarrituko duten irizpide orokorrak jendaurrean jarriko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egoitza elektronikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bitartez.

2. Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-planak xede izango du ez-betetzeak prebenitzea, ikertzea eta kontrolatzea, baita Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak aitortu eta jasotzeko betebeharrak borondatez bete daitezen sustatzea ere.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioari dagokionez, planak hau zehaztuko du: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzako kidegoetako funtzionarioek egingo duten ikuskapen-jarduera.

Plana lantzeko, adimen artifizialeko sistemak erabili ahal izango dira, 85. artikuluan aurreikusitako moduan.

3. Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-planak, gainera, estrategia bat definituko du, prestazioen titularrei edo onuradunei edota edozein eskatzaile potentzialari informazioa eman eta laguntzeko zerbitzuak etengabe hobetzeko. Estrategia horrek teknologia berrien erabilera lehenetsiko du, eta, nolatan ere, bazterketa digitalik ez jasateko eskubidea eta baliabide analogikoen bidezko laguntzaren eta informazioaren nahikotasuna bermatuko ditu.

4. Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-plana gauzatzeko, beharrezkoak diren egiaztapenak, berrikuspenak eta errekerimenduak egin ahal izango dira.

91. artikulua.- Ikuskapen-jarduera

Ikuskapen-jarduera honetara bideratuko da: Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak lortzeko betekizunak eta lege honek eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudiak haien titularrei eta onuradunei ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, eta betetzen direla ziurtatzeko aholkularitza ematera.

92. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzailtza

1. Ikuskapen-jarduera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ikuskatzaileek garatuko dute, eta ikuskatzaile horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuen arabera ikuskatzeko ahala esleitura duen organoari atxikiko zaizkio.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ikuskatzaileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira ikuskapen-jardueran ari direnean.

93. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzailtzaren funtzioak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzailtzak funtzio hauek izango ditu:

a) Lege hau eta garatzen duten arauak betetzen direla zaintzea eta egiaztatzea; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunak eta prestazio horren titularren eta onuradunen betebeharrak.

b) Arau-hauste izan daitezkeen egitateen inguruko erreklamazioak edo salaketak egiaztatzea.

c) Kautelazko etete-neurriak hartzeko proposamena egitea, ikuskapen-jarduera egitean 47. artikuluan aipatutako kasuren bat gertatzen dela egiaztatzen denean.

d) Zehapen-prozedura hasteko proposamena egitea.

e) Kontrol-prozedura hastera eta izapidetzea, hargatik eragotzi gabe Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek haren organo zentraleri edo lurralde-organoei esleitzen dizkieten eskumenak.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ikuskatzaileek, ikuskapenean dihardutela, ikuskapenaren arrazoiari buruzko informazioa emango dute, bai eta aurreikusten den iraupenari buruzkoa ere, eta ahalik eta doitasun handienarekin zehaztuko dituzte lege honetan tipifikatutako arau-hausteak izan daitezkeen egitateak, ustezko erantzuleak eta erantzukizuna ekar dezakeen beste edozein inguruabar.

Ikuskatzaile-izaera egiaztatu beharko dute bulego publikoetatik kanpo eskatzen zaien guztietan, eta, nolanahi ere, agiri bidez identifikatu beharko dute beren burua egiten dituzten ikuskapen-bisita guztietan.

94. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ikuskatzailetzaren ahalmenak

1. Ikuskapenean dihardutela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ikuskatzaileek honako ahalmen hauek izango dituzte:

a) Era guztietako egiaztapenak eta edozein ikerketa-, azterketa- edo froga-eginbide egitea, beharrezko irizten bazaie lege honen eta garatzen duen araudiaren xedapenak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

b) Prestazio ekonomikoaren titularren eta onuradunen bizilekuan sartzea, haien baimenarekin edo, halakorik ezean, baimen judizialarekin, honako hauek egiaztatzeko: bizikidetza-unitatea badagoela, unitateko kideak bertan bizi direla, bizilekuan bizikidetza-unitate bat baino gehiago daudela, eta beste edozein beharrezko inguruabar, zerikusia badu prestazioa eskuratzeko betekizunak betetzearekin edo prestaziotik sortzen diren betebeharrekin.

c) Pertsona fisiko edo juridikoei edo nortasunik gabeko erakundeei errekerimendua egitea behar beste informazioa eman dezaten titularrek eta onuradunek honako alderdi hauen inguruan egindako deklarazioen benetakotasuna egiaztatzeko: zerbitzu-prestazioaren hasiera-data eta amaiera-data, kontratu-mota, jasotako soldatak, harremanaren aldaketa, etetea edo azkentzea, lanaldi-murritzketak, eta beharrezkoa den beste edozein inguruabar, zuzeneko zerikusia badu lege honetan ezarritako prestazioa eskuratzeko betekizunekin edo lege honetan ezarritako betebeharrak betetzearekin. Ahalmen horrek ez du galaraziko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari dagokiona, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistema antolatzen duen legeriari jarraikiz.

d) Laguntzeko betebeharra duten pertsonen, agertzeaz eta aurreko letretan xedatutakoaz gain, errekerimendua egitea edozein datu, informazio edo dokumentu eman dezaten, beharrezko irizten bazaio prestazioa eskuratzeko betekizunak eta lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

2. Ikuskapen-jardueran lortutako informazioa erreserbatua izango da, eta ezin izango da erabili lege honetan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako.

95. artikulua.- Ikuskapen-lanerako laguntza

1. Ikuskatzaileek beste agintaritza baten laguntza eskatu ahal izango dute, eta agintaritza horrek laguntza eta lankidetzak eskainiko die ikuskapenean jarduteko beharrezkoa denean.

2. Agintariek eta administrazio publikoetako organoen eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen titularrek ikuskatzeko ahala baliatzeko beharrezkoak diren informazio, aurrekari eta datuak emango dituzte, hori eskatzen bazaie.

Laguntza bera eskatu ahal izango zaie pertsona fisiko edo juridiko pribatuei eta nortasunik gabeko erakundeei.

3. Artikulu honetan ezarritako laguntza- eta elkarlan-betebeharrak muga hauek baino ez dituzte izango: legez ezarrita daudenak, pertsonaren intimitatea, komunikazioen sekretua,

administrazio publikoei helburu estatistiko hutsez emandako informazioen sekretua eta datu pertsonalen babesa direla eta.

II. KAPITULUA-ZEHATZEKO AHALA

96. artikulua.- Arau-haustek

1. Arau-haustek dira lege honetan tipifikatutako ekintzak eta omisioak, hargatik eragotzi gabe haien ondoriozko erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak.

2. Arau-haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

3. Lege honen xede diren arloetako zehatzeko ahala honako hauei dagokie: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eremuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, gizarte-larrialdietarako laguntzen eremuan. Ahal hori dagokion prozeduraren bidez baliatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalari buruzko legerian, administrazio-prozedura erkideari buruzkoan eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoan ezarritako arau eta printzipioei jarraikiz.

4. Kapitulu honetan adierazitako zehatzeko ahala baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da. Prozedurak hamabi hilabeteko iraupena izango du gehienez.

97. artikulua.- Erantzukizunak.

1. Lege honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzuleak izango dira tipifikatutako ekintzen edo omisioen egileak eta arau-haustea egiteko ezinbesteko egintza batekin lagundu dutenak.

16 urtetik beherako pertsonak ez dira izango ondorengo artikuluetan tipifikatutako arau-hausteen erantzuleak. Hala ere, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, abegia edo legezko edo izatezko zaintza dutenak, ordena horretan, adingabeek egindako arau-hausteengatik erantzungo dute, lege honetan tipifikatutako ez-zilegi administratiboak prebenitzeko betebeharra ez betetzeagatik.

2. Ez da erantzukizunik izango honako kasu hauetan:

a) Ezinbesteko kasuetan edo ezusteko kasuetan.

b) Arau-hausteen egileek eskatu behar den arretaz jokatu dutenean.

Inguruabar hori gertatzen dela ulertuko da ekintza edo omisio tipikoa arauaren arrazoizko interpretazio batean oinarritzen den kasuetan, baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo dagokion udalak egindako interpretazioarekin bat ez datorrenean edota haiek jarraibideetan, instrukzioetan, erabakietan, zirkularretan edo egindako kontsultei emandako erantzunetan adierazitako irizpideei jarraitzen dienean ere, betiere haien ondorioz zuzenbideko interpretazio bat sortzen bada eta publiko egin badira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edo udalaren egoitza elektronikoetan, gardentasunari eta informaziorako sarbideari buruzko araudiari jarraikiz.

c) Borondatez zuzentzen direnean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari edo udalari emandako informazioan dauden okerrak edota lege honek titularrei eta onuradunei ezarritako edozein betebeharren ez-betetzea, prozedura hasteko erabakia jakinarazi baino lehen zuzendu ere, hargatik eragotzi gabe oker edo ez-betetze horiek prestazioak eteteko edo azkentzeko eta laguntzen ordainketa bidezkoa ez izateko arrazoi izatea, eta bidegabe jasotako prestazioak edo gizarte-larrialdietarako laguntzak itzultzea eragitea.

d) Arau-haustea eragin duen egitatearen ez-zilegitasunaren inguruko edota haren elementuren baten inguruko oker gaindiezinaren kasuan.

e) Zigor Kodeak aurreikusten dituen erantzukizunetik salbuesteko arrazoiak daudenean, betiere lege honetan tipifikatutako arau-hausteen izaerarekin eta helburuarekin bateragarriak badira.

3. Lege honetan aurreikusitako betebeharren bat pertsona batek baino gehiagok batera bete behar dutenean, solidarioki erantzungo dute arau-hausterik egiten badute eta zehapenak ezartzen bazaizkie. Hala ere, zehapena diruzkoa denean eta ahal denean, erantzule bakoitzaren parte-hartze mailaren arabera indibidualizatuko da zehapena.

98. artikulua.- Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak dira diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzera edo mantentzera bideratutako ekintzak edo omisioak, betiere ekintza edo omisio horien ondorioz zenbateko bat bidegabe jaso bada eta zenbateko hori hilean dagokion zenbatekoaren % 50 baino handiagoa ez bada.

99. artikulua.- Arau-hauste astunak

Arau-hauste astun dira, honako hauek:

a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzera edo mantentzera bideratutako ekintzak edo omisioak, betiere ekintza edo omisio horien ondorioz adierazitako prestazioaren edo laguntzen zenbateko bat bidegabe jaso bada eta zenbateko hori hilean dagokionaren % 50 baino handiagoa eta % 100 edo txikiagoa bada.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari edo dagokion udalari ezkutatzea prestazioa lortzeko eta mantentzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren aldizkako eguneratzea egiteko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa, eta ez ematea jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzen direla bermatzeko beharrezkoa den informazioa.

c) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen edo laguntzen titularren edo onuradunen egoera ekonomikoa larriagotzea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo gizarte-larrialdietarako laguntzen beste titular edo onuradun batek eduki ekonomikoko edozein betebeharrak ez betetzeagatik, lehenik aipatutako titular edo onuradunak betebeharrak horien onuradun badira.

d) Lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla ikuskatzeko edo zaintzeko funtzioak esleituta dituzten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko edo dagokion udaleko langileek egiten duten lana oztopatzea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari edo udalari laguntzeko erresistentzia, prestazioaren edo gizarte-larrialdietarako laguntzen titularrei edo onuradunei hori eskatzen bazaie.

e) Hirugarren arau-hauste arin bat egitea, aurreko bi urteetan bi arau-hauste arin egiteagatik administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez zehatu denean.

100. artikulua.- Arau-hauste oso astunak

Arau-hauste oso astun dira, honako hauek:

a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzera edo mantentzera bideratutako ekintzak edo omisioak, horretarako betekizunak betetzen ez direla jakinik egiten direnean eta ekintza edo omisio horien ondorioz prestazioaren bat bidegabe jasotzen denean, eta prestazio horren zenbatekoa hilean dagokionaren % 100 baino handiagoa denean.

b) Iruzurrez jardutea, prestazio bidegabeak edo bidezkoak baino handiagoak lortzeko, edo prestazio horiek bidegabeki luzatzea, datu edo dokumentu faltsuak aurkeztearen bidez.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bati erantsitako edozein datu edo informazio faltsutzea.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko langileak lege honetan aipatzen diren prestazioak kontrolatu eta ikuskatzeko funtzioetan ari direla, haien kontra derrigortzea, mehatxua edo indarkeria erabiltzea, baita astuntzat hartutako oztopatze-jokabideetan berrerortzea ere.

Berrerortzerik badagoen zehazteko, ondorengo letran xedatutakoari jarraituko zaio.

e) Hirugarren arau-hauste astun bat egitea, aurreko bi urteetan mota bereko bi arau-hauste astun egiteagatik administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez zehatu denean.

101. artikulua.- Zehapenak

1. Arau-hauste arinak arau-hausleari ohartarazpena egitearekin eta bidegabe jasotako zenbatekoaren berdina izango den isun batekin zehatuko dira.

2. Arau-hauste astunak honela zehatuko dira: diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearekin, gizarte-larrialdietarako laguntzak kobratzeko ezintasunarekin eta, hala badagokio, jasotakoak itzultzearekin, eta laguntza horiek eskuratzeko ezintasunarekin (urte eta sei hilabetera arteko aldian, zehapena gutxieneko graduan ezartzen denean, urte eta bederatzi hilabetera arteko aldian, gradu ertainean ezartzen denean, eta bi urtera arteko aldian, gehieneko graduan ezartzen denean).

3. Arau-hauste oso astunak honela zehatuko dira: diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearekin, gizarte-larrialdietarako laguntzak kobratzeko ezintasunarekin eta, hala badagokio, jasotakoak itzultzearekin, eta laguntza horiek eskuratzeko ezintasunarekin (bi urte eta sei hilabetera arteko aldian zehapena gutxieneko graduan ezartzen denean, bi urte eta bederatzi hilabetera bitarteko aldian gradu ertainean ezartzen denean, eta hiru urtera bitarteko aldian gehieneko graduan ezartzen denean).

Arau-hauste oso astun bat egin aurreko bost urteen barruan arau-hauslea administrazio-bidean irmoa den arau-hauste oso astun batengatik zehatu badute, diru-sarrerak bermatzeko errenta azkenduko da, eta deklaratu da gizarte-larrialdietarako laguntzak kobratzeko ezintasuna edota jasotakoak itzultzeko betebeharra eta prestazioa eta laguntzak bost urteko aldi batez eskuratzeko ezintasuna.

4. Bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, bizikidetza-unitatean adingabeak daudenean, 50. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, salbu eta arau-haustearen erantzulea adingabea eta hamasei urtetik gorakoa bada, hurrengo artikuluan xedatutakoari heltzen ez bazaio eta bizikidetza-unitatea beste adingabe batzuekin osatzen ez bada.

5. Arau-hausteen erantzuleak diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo gizarte-larrialdietarako laguntzen titularrak edo onuradunak ez direnean, honako zehapen hauek ezarriko zaizkie:

a) Arau-hauste arinen kasuan, arau-hausleari ohartarazpena egitea eta bidegabe jasotako zenbatekoaren berdina izango den isuna ezartzea

b) Arau-hauste astunen kasuan, 32. artikuluan aipatzen den oinarritzko zenbatekoaren % 250era bitarteko isuna ezarriko zaie. Zehazki, oinarritzko zenbatekoaren % 150era bitartekoa izango da, gutxieneko graduan ezartzen denean; oinarritzko zenbatekoaren % 200era bitartekoa, gradu ertainean ezartzen denean, eta % 250era bitartekoa, gehieneko graduan ezartzen denean.

c) Arau-hauste oso astunen kasuan, oinarritzko zenbatekoaren % 400era bitarteko isuna ezarriko zaie. Zehazki, oinarritzko zenbatekoaren % 300era bitartekoa izango da gutxieneko graduan ezartzen denean, oinarritzko zenbatekoaren % 350era bitartekoa gradu ertainean ezartzen denean, eta % 400era bitartekoa gehieneko graduan ezartzen denean.

d) Nolanahi ere, artikulua honen bigarren eta hirugarren paragrafoetan aurreikusitako aldi berberetarako ezarriko zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskuratzeko ezintasunaren zehapena.

6. Artikulu honetan aipatutako zehapenak honela ulertuko dira: deusetan galarazi gabe bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea.

102. artikulua.- Adingabeentzako zehapenak

Administrazio-bideko ebazpen irmo batek hamasei urtetik gorako adingabeak arau-hauste baten erantzule deklaratzeko baditu, 101.1, 2 eta 3 artikuluetan ezarritako zehapenen ordezkariak hauek ezarriko dira, betiere adingabeak berariazko adostasuna ematen badu:

a) Arau-hauste arinek zehapen izango dute gizarte-intereseko prestazioak eman beharra inklusioaren esparruan, gehienez ere hilabetez.

b) Arau-hauste astunek zehapen izango dute gizarte-intereseko prestazioak eman beharra inklusioaren esparruan, gutxienez hiru hilabetez eta gehienez bederatzita hilabetez.

c) Arau-hauste oso astunek zehapen izango dute gizarte-intereseko prestazioak eman beharra inklusioaren esparruan, gutxienez urtebetez eta gehienez urtebete eta sei hilabetez.

Adingabearen prestazioak ez dira ordainduko, eta gizartearentzat lan egiteko zigorra jaso dutenen babes bera izango dute Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erregelamendu bidez ezarriko dira kalte-ordainak, halakorik egokitzen bada.

Ordezko zehapenak betetzen ez badira, errebotatu egingo dira eta aurreko artikuluan aurreikusitako zehapena betearaziko da, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

103. artikulua.- Zehapenen graduazioa

1. Zehapenak ezartzean, honako hauek hartuko dira kontuan: erruduntasun-gradua edo asmoa izatea, legearen kontra lortutako onura, berrerortzea, erantzulearen eta haren bizikidetzak unitatearen inguruabarrak, egindako arau-haustearen gizarte-eragina eta eragindako kalteen itzulezintasuna.

2. Arau-hauste bat egiteak nahitaez beste bat edo batzuk egitea badakar, egindako arau-hausterik astunenari dagokion zehapena baino ez da ezarriko.

104. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-hauste oso astunek lau urteren buruan dute preskripzioa, astunek hiru urteren buruan, eta arinek urtebeteren buruan.

Preskripzio-epea arau-haustea egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Arau-haustea era jarraituan edo iraunkorrean egiten den kasuetan, jokabide arau-haustea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen epea.

2. Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da administrazio-prozedura hasten denean, ustezko erantzulea jakinaren gainean dagoela. Preskripzioa berriz hasiko da, epe osorako, ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoren batek eragindako prozedura-geldiaraztearen hilabetea bete eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, preskripzioa eten egingo da prozeduraren helburua lortzeko bideratutako edozein jarduketatik egitean, betiere jarduketatik hori organo eskudunak erabaki badu, behar bezala dokumentatuta bada eta ustezko erantzuleari haren berri ematen bazaio.

3. Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenek lau urteren buruan dute preskripzioa, arau-hauste astunengatik ezarritakoek hiru urteren buruan, eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek urtebeteren buruan.

Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpenak administrazio-bideko irimotasuna hartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Zehapena ezartzen duen ebazpenaren aurka jarritako administrazio-errekurtsoaren ustezko ezespenaren kasuan, zehapenaren preskripzio-epea errekurtsioa ebazteko aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

4. Zehapenaren preskripzioa eten egingo da betearazpen-prozedura hasten denean, zehatutako pertsona jakinaren gainean dagoela. Era berean, zehapenaren preskripzioa eten egingo da betearazpenaren etendura judiziala gertatzen denean, eta epe osoa berriz zenbatzen hasiko da etendura judiziala amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Preskripzioa berriz hasiko da, epe osorako, zehatutako pertsonari egotzi ezin zaion arrazoren batek eragindako prozedura-geldiaraztearen hilabetea bete eta hurrengo egunetik aurrera.

V. TITULUA

LAN INKLUSIORA ETA GIZARTE INKLUSIORA BIDERATUTAKO TRESNA ETA ZERBITZUAK

I. KAPITULUA-XEDAPEN OROKORRAK

105. artikulua.- Lan- eta gizarte-inklusiara bideratutako tresna eta zerbitzuak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erabat laneratzera bideratutako tresna eta zerbitzuak jarriko ditu Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren erabiltzaileen eskura, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte-zerbitzuekin elkarlanean jardungo du pertsonen erabateko inklusioa lortzeko.

Hori garatzeko, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen, laguntzen tresnen eta zerbitzuen titularrei eta onuradunei 9. artikuluan aitortutako eskubideak errespetatuko ditu.

106. artikulua.- Eskuratzeko betekizunak

1. Laneratzeko zerbitzuetarako eskubidea izango dute honako pertsona hauek:

a) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen titularrek edo onuradunek.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta gizarte-bazterketako egoera aitortuta duten pertsonak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak.

2. Laneratzeko zerbitzuak eskuratzen dituzten pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egon beharko dute.

3. Gizarte-inklusioko zerbitzuetarako eskubidea izango dute gizarte-zerbitzuei buruzko legeriak ezartzen dituen betekizunak betetzen dituzten pertsonak, hargatik eragotzi gabe titulu honen bigarren kapituluan diagnostiko-tresnei buruz xedatutakoa.

107. artikulua.- Erreferentziazko profesionala

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziazko profesional bat esleituko die laneratzeko zerbitzuen hartzaileei.
2. Gizarteratzeko zerbitzuen hartzaileei dagokienez, gizarte-zerbitzuei buruzko legeriak xedatzen duenari jarraituko zaio.

108. artikulua.- Datuen konfidentziasuna eta babesa

Titulu honetan aipatzen diren lan- eta gizarte-inklusioko zerbitzuetan parte hartzen duten edo zerbitzu horiek eskura jartzen dituzten euskal administrazio publikoek datuak babesteko legeria eta emandako datuen —eta, bereziki, babes berezia dutenen— konfidentziasuna errespetatuko direla bermatuko dute.

Inklusioko zerbitzuen kudeaketarako informazioa emateko, ez da beharrezkoa izango erabiltzailearen alde aurreko baimena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 c) eta e) eta 9.2 h) artikuluetan aipatutako datu-tratamenduetako bat baita (Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetu du); nolahi ere, emandako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea bermatu beharko da.

109. artikulua.- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen parte-hartzea

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak lan- eta gizarte inklusioko prozesuetako erakunde laguntzaile gisa onartu ahal izango dira, bai inklusio-zerbitzuen horniduran, bai gizarte-laguntzako eginkizunetan, diagnostikoan, programazioan, jarraipenean eta ebaluazioan, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

II. KAPITULUA- GIZARTE- ETA LAN-DIAGNOSTIKOA EGITEKO TRESNAK

110. artikulua.- Egoeraren eta beharren hasierako balorazioa

1. Egoeraren eta beharren hasierako balorazioak pertsonen beharrei buruzko azterlan bat bilduko du, eta, bertan, inklusioa lortzeko abiarazi beharreko sistemak identifikatuko dira.
2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak triaje-tresna bat aplikatuko die 106.1 artikuluan aipatzen diren pertsona guztiei, inklusioa lortzeko beharrak detektatu eta diagnostikoan esku hartu behar duten sistemak identifikatzeko.

Erabiltzaileek parte-hartze aktiboa izango dute lanketa horretan.

3. Egoeraren hasierako balorazioa Inklusioko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak onartu eta berehala egingo da, edo, bestela, inklusio-zerbitzuen eskaera egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Inola ere ezingo dira bi hilabete baino gehiago egin.

4. Inklusioko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen titularrek eta onuradunek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean aritu beharko dute egoeraren eta beharren hasierako balorazioa egiteko, lege honetan ~~eta, hala bada, dagokio, bizitzeko gutxieneko diru sarrerari buruzko araudian aurreikusitako moduan.~~

5. Erregelamendu bidez, dauden tresnen eta triaje-tresnaren arteko erlazioa arautuko da.

111. artikulua.- Balorazioa eta gizarte-diagnostikoa

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea beharrezkoa denean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gizarte-zerbitzuetara bidaliko du erabiltzailea, balorazioa eta lehen mailako gizarte-diagnostikoa egin dadin, bere araudian xedatutakoari jarraikiz.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozesu bera egingo da hezkuntza, etxebizitza eta osasuneko euskal sistemen esku-hartzea beharrezkoa denean.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko erreferentziazko profesionalak hartzailearen edo hartzaileen bizilekuari dagokion oinarritzko gizarte-zerbitzuarekiko koordinazioa bultzatuko du, eta, hala badagokio, hezkuntza-, etxebizitza- eta osasun-sistemekin. Hartzailea edo hartzaileak gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak badira, gizarte-zerbitzuek egindako diagnostikoari jarraituko zaio.

4. Balorazioa eta gizarte-diagnostikoa bi hilabeteko epean egin beharko da, erreferentziazko profesionalak eskaera egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita, eta beharrezkotzat jotzen bada, balorazio eta diagnostiko espezializatura bideratuko da. Horien arabera, gizarte-zerbitzuen zorrotik egoki den zerbitzuaren preskripzioa ezarriko du, hala badagokio.

5. Kasu bakoitzean esku hartzen duten gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta osasunaren euskal sistemek hartzailearen inklusio-ibilbiderako garrantzitsua den informazioa igorriko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

112. artikulua.- Lan-diagnostikoa

1. Triage-tresnak ezartzen duenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hartzailearen edo hartzaileen laneratze-beharren diagnostiko bat egingo du, aurreko artikuluan adierazitako epe berean.

2. Lan-diagnostikoa erreferentziazko profesionalak egingo du hartzaileen parte-hartze aktiboarekin, eta hauek hartuko dituzte barruan: elkarriketa sakon bat, enplegarritasunari buruzko inkesta bat eta enplegua aktibatze dagokion programaren ~~preskripzioaren~~ ezarpena.

III. KAPITULUA-INKLUSIORAKO PROGRAMA INTEGRATU ETA PERTSONALA

113. artikulua.- Definizioa eta iraupena

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala inklusio-zerbitzu partaidetu bat da, non alderdi sinatzaileek zenbait konpromiso hartzen dituzten bazterketa-arriskua prebenitzeko edo, hala badagokio, bazterketa-egoerari buelta eman eta hartzaileen erabateko lan- eta gizarte-inklusioa lortzeko.

2. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak bi urteko indarraldia izango du, eta jarraipena egingo zaio, hartzaileak inklusiorako helburua lortzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko.

Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala iraupen berdineko indarraldietan luzatu ahal izango da.

114. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen arteko erlazioa

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala negoziatu beharko dute nahitaez, prestazioa aitortzen denetik urtebete betetzen denean, 30.1 artikuluan aipatzen diren salbuespenekin.

Hala ere, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala lantzeko eta sinatzeko eskatu ahal izango dute, aipatutako epea bete baino lehen. Kasu horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin beharreko jarduera guztiak egin beharko ditu.

2. Halaber, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala negoziatu eta sinatzeko aukera emango die bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunei, deusetan galarazi gabe prestazio horri buruzko araudiak xedatzen duena.

115. artikulua.- Esku hartzen duten alderdiak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta hartzaileak izango dira Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalean esku hartzen duten alderdiak.

116. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren edukia

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalean, kasuan-kasuan egokitzen jotzen diren enpleguaren, gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren, hezkuntzaren eta osasunaren arloko euskal sistemen jarduketak eta esku hartzeko proposamenak definituko dira, 111. eta 112. artikuluetan aipatutako diagnostikoa oinarritzat hartuta. Era berean, jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak ezarriko dira, baita hartzailearen edo hartzaileen laneratze- edo gizarteratze-helburuak ere.

2. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak honako hauek bilduko ditu:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diseinatutako laneratze-ibilbide pertsonalizatua, egoki deritzon enplegu-orientazio eta -bitartekaritzaren eskaintza barne.

b) Hartzailearen gizarte- eta lan-inklusioko prozesurako garrantzitsuak diren jarduketak, zerbitzuak eta prestazioak, gizarte-zerbitzuek egindako arreta pertsonalizatuko planean aurreikusitakoak.

c) Hartzailearen gizarte- eta lan-inklusioko prozesurako garrantzitsua den etxebizitza-, osasun- edo hezkuntza-sistemen esku-hartzea, baldin eta beharizanen diagnostikoari erreparatuta beharrezkoa dela ondorioztatzen bada.

3. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalean bildutako esku hartzeko proposamenak, jarduketak eta zereginak hartzaileekin negoziatuko dira. Halaber, hartzaileak adostu diren ekintzetan parte hartzeko konpromisoa jasoko da Programan.

4. Esku hartzen duten sistemek Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren jarraipena, berrikuspena eta aldizkako ebaluazioak egingo dituzte, 120. artikuluan aurreikusitako moduan.

117. artikulua.- Erreferentziazko profesionala

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziazko profesional bat esleituko du, eta teknikari hori arduratuko da Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala bultzatu, negoziatu, sinatu, jarraitu eta ebaluatzeaz.

2. 109. eta 110. artikuluetan aipatzen den diagnostikoak agerian uzten badu gizarte-zerbitzuen esku-hartzea lehenesteko beharra, erreferentziazko profesionala zerbitzu horietakoa izango da.

Erreferentziazko profesionalak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari beharrezko informazioa emango dio, prestazioa eskuratzeko eta mantentzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, bai eta aurreko paragrafoan aipatutako Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren jarraipen- eta ebaluazio-funtzioak egiteko ere.

3. Erregelamenduz zehaztuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta gizarte-zerbitzuen artean elkarlanean aritzeko mekanismoak eta tresnak, bai eta hezkuntza-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuen artean ere.

118. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala sinatzea

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala landu ondoren, hartzaileari edo hartzaileei deituko zaie, sina dezaten.

2. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala hamabost hilabeteko gehieneko epean sinatuko da, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak onartzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta beti ere erabiltzaileak berak eskatzen badu eskaera egin eta sei hilabeteko epean.

Berau sinatu arte, 111. eta 112. artikuluetan aurreikusitako inklusiorako helburura zuzendutako esku-hartzeak eta jarduerak garatuko dira.

3. Sinatu aurretik, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren elementurik esanguratsuenak azalduko zaizkio edo zaizkie hartzaileari edo hartzaileei, hizkera ulargarrian, eta Programaren ale bat emango zaie.

Sinatzeko eta ~~Programaren~~ ale bat eskura jartzeko, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira, betiere hartzaileak hala eskatzen badu edo, bestela, berariaz onartzen badu.

4. Bigarren paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hartzaileei Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala sinatzeko deitu ez badie edota diagnostiko-tresnaren bat bete ez bada, hartzaileek betetzeko eskatu ahal izango dute, hargatik eragotzi gabe atzerapena eragin duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko enplegatuen erantzukizuna.

119. artikulua.- Esku hartzen duten alderdien betebeharrak

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren hartzaileen betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Programaren xede eta helburuaren ondoriozko jarduketa guztiak egitea.

b) Gerora aldatetik gertatuz gero, horien berri ematea, hitzartutako jarduerak aurrera eramateko aukeran eraginik izan badezakete.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Zerbitzu eskuragarrien eta une oro egokituen eskaintza bat bermatzea, zerbitzu horiek ahalbidetuko baitute konpromisoak Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalean aurreikusitako baldintzetan betetzea; horretarako, beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ziurtatuko ditu.

b) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen titularrei edo onuradunei bermatzea, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren esparruan, gutxienez enplegu-eskaintza bat (lan-merkatu arruntean edo publikoki diruz lagundutako programen bidez) edota prestakuntza-jarduera bat, ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzea ahalbidetuko duena.

Eskaintza hori egiteko orduan, kontuan hartuko dira titularraren edo onuradunaren inguruabar profesional eta pertsonalak, familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko aukerak, ezarritako laneratze-ibilbidea, eskaintako lanpostu edo prestakuntzaren ezaugarriak, joan-etorrietarako garraio biderik ba ote den eta tokiko enplegu-merkatuen ezaugarriak.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lan-inklusiara bideratutako programa eta zerbitzu propioak konbinatu ahal izango ditu beste administrazio publiko eta erakunde publiko eta pribatu batzuenekin.

4. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak ez du eragotziko hartzaileek beste enplegu edo prestakuntza bat, Programan aurreikusi gabekoa, lortzeko aukera. Halakoetan, berrikusi egingo da.

120. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren jarraipena eta ebaluazioa

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalari etengabeko jarraipena egingo zaio, hartutako konpromisoak betetzen diren ala ez jakiteko, bai eta urteko ebaluazio bat ere.

Ebaluazioaren arabera, esku hartzen duten alderdiek erabakita edo beste edozein inguruabarrengatik, edukia berrikusi eta aldatu ahal izango da, eta, horretarako, parte hartzeko aukera emango zaie hartzaileari edo hartzaileei.

Enplegu-akordio pertsonalari lotutako esku-hartzeen, jarduketan edo zereginen inguruko aldaketak negoziatu egingo dira.

2. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren jarraipena eta ebaluazioa egitea erreferentziako profesionalari egokituko zaio.

3. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak arreta pertsonalizatuko plan bat biltzen badu, gizarte-zerbitzuek prestatua, erreferentziako langileak, gizarte-zerbitzuei buruzko legeriari jarraikiz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko erreferentziako profesionalarekin elkarlanean aritu beharko du, eta eskatzen zaion informazioa eman beharko dio, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

4. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak etxebizitzaren, osasunaren edo hezkuntzaren arloko esku-hartzeak biltzen dituenean, sistema horietako erreferentziako profesionalak elkarlanean aritu beharko dute Programaren jarraipena egiteaz arduratutako erreferentziako pertsonarekin.

Horrez gain, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak laneratzeko enpresetan edo enplegu-zentro berezietan egin beharreko jarduketak biltzen dituenean, enpresek edo zentroek izendatutako pertsonak erreferentziako profesionalarekin elkarlanean aritu beharko du.

121. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren etetea

Hartzaileak edo hartzaileek Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala bete ezin dutenean, aldi baterako etengo da Programaren ondoriozko konpromisoak nahitaez bete beharra, ezintasun-egoera desagertu edo aldatzen den arte.

122. artikulua.- Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala suntsiarazteko arrazoiak

1. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala suntsiarazteko arrazoiak honako hauek izango dira:

a) Programan aurreikusitako inklusio-helburuak betetzea.

b) Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalean hartutako betebeharrak eta konpromisoak behin eta berriz ez betetzea.

c) Alderdien arteko akordioa.

d) Hartzaileak uko egitea.

e) Indarraldia eta, hala badagokio, luzapenen epea betetzea.

2. Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren suntsiarazpenak lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudian aurreikusitako ondorioak izango ditu.

123. artikulua.- Informazio-trukea

Kapitulu honetan aipatzen diren funtzioak betetzeko, informazio-trukeak egin behar dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko, gizarte-zerbitzuetako eta etxebizitza-, osasun- edo hezkuntza-sistemetak erreferentziazko profesionalen artean. Bada, truke horiek, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

IV. KAPITULUA-LANERATZEKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

124. artikulua.- Enplegarritasuna hobetzeko laguntza-zerbitzuak jasotzeko eskubidea

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio eta laguntza ekonomikoen titularrei eta onuradunei beren enplegarritasuna hobetzeko laguntza indibidualizatuko zerbitzuak (hurrengo artikuluan aipatzen direnak) jasotzeko eskubidea aitortzen zaie.

Zerbitzu horiek Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren esparruan jasoko dira, eta programa horrek identifikatuko du enplegarritasuna hobetzeko zer zerbitzu jarriko den hartzailearen eskura, bai eta zerbitzu horien norainokoa ere.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegarritasunari laguntzeko zerbitzu hauek bermatuko ditu:

a) Lan-merkatuko konpetentzia garrantzitsuen identifikazio eguneratua.

b) Aholkularitza eta orientazio profesionala.

c) Prestakuntza indibidualizatua, a) letran adierazitako konpetentziei lotua, ibilbide profesional pertsonalizatuak bultzatzea, eta gaitasun digitalei eta zeharkako beste gaitasun batzuei lotutako prestakuntza.

d) Konpetentzien tutoretza, ebaluazioa eta baliozkotzea, hezkuntza-arloan eskumena duen sailari dagozkionak galarazi gabe.

e) Enplegua bilatzeko laguntza eta enpresa-ekimenaren babesa.

g) Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro komunean ezarritako beste edozein, eta erregelamendu bidez finkatzen direnak.

125. artikulua.- Euskal administrazio publikoen programa eta zerbitzu lan- eta gizarte-inklusiara bideratuak

1. Euskal administrazio publikoek, prestakuntzaren eta enpleguaren arloan dituzten eskumenen esparruan, neurriak hartuko dituzte beren ezaugarriengatik lan-merkatura

berdintasun-baldintzetan iritsi ezin diren edo iristeko zailtasunak dituzten pertsonak edo taldeak lan-merkatuan sartzeko aukera bultzatu eta errazteko. Neurri horien artean sar daitezke:

- a) lanerako prestakuntza,
- b) lan-bitartekaritza,
- c) laneratzeko lagun egitea eta laguntza ematea,
- d) enplegu lagundua,
- e) laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko babesa,
- f) bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonentzako enplegu-zentro bereziak sortzeko, irekitzeko eta mantentzeko laguntza, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta gizarte-inklusioa arautzen dituen legeriak ezarritako esparruan,
- g) lan-merkatu arruntean bazterketa-egoeran dauden pertsonen kontratazioa sustatzea,
- h) klausula sozialak sartzeko kontratazio publikoetan, lehentasuna emateko moduan bazterketa-egoeran edo laneratzeko prozesuan dauden pertsonak kontratatzen dituzten erakundeei,
- i) familia eta lana uztartzeko politiken esparruko laguntza-neurriak, eta
- j) laneratzea erraztera bideratutako finantzaketa-tresnak sustatzea.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako neurriak arautu eta inplementatzeko, prestakuntzaren eta enpleguaren arloan eskumena duten administrazio publikoek beren aurreikuspenak eta jarduketak koordinatu beharko dituzte Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren aurreikuspen eta jarduketekin, hauek guztiak bermatzeko: jarduketa guztien eraginkortasuna, baliabideen erabilera arrazionala eta bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arretaren jarraitutasuna, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonaletan diseinatutako ibilbide pertsonalizatuen esparruan.

3. Euskal administrazio publikoek, gizarteratze-arloan dituzten eskumenen esparruan, neurriak hartuko dituzte, gizarte-zerbitzuei buruzko araudian bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat ezartzen diren zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko aukera bultzatu eta errazte aldera.

VI. TITULUA-INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

126. artikulua.- Xedapen orokorrak

1. Euskal administrazio publikoek koordinatuta planifikatuko dituzte Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lehentasunezko jarduketaren helburu, tresna eta ardatz komunak; betiere, babes-maila homogeenak gordeko dituzte lurralde osoan.

2. Autonomia Erkidegoaren esparruan, plangintza Inklusiorako Euskal Planean gauzatuko da. Lantzen denean, zuzeneko parte-hartzea bermatuko zaie euskal administrazio publiko guztiei, beste erakunde publiko eta pribatu batzuei eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeei.

3. Foru-aldundiek eta udalek edo udalen elkarteek, Inklusiorako Euskal Plana gauzatzean, beren programazio propioa garatuko dute beren jarduteko lurralde-esparruetan.

4. Gizarterako Euskal Planarekin koordinatuta, plan bereziak egin ahal izango dira auzo, udalerri, eskualde edota beste eremu geografiko batzuetarako, betiere beren degradazio

handiagoa eta langabeziako, pobreziako eta/edo gizarte-bazterketako tasa handiak direla eta epe labur edo ertainean ekintza integratu bat behar badute.

127. artikulua.- Plangintzaren printzipioak

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren plangintzak honako printzipio hauei jarraituko die:

a) Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako helburuen zein tresnen denbora-plangintza eta plangintza geografikoa, hurbiltasun-irizpidea bereziki kontuan hartuta, eta gizarte-babesaren beste esparru batzuetako jarduketa-plan autonomikoetan jasotako aurreikuspenekin koordinatuta (bereziki, esparru hauetan: gizarte-zerbitzuak, enplegua, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna).

b) Lurralde-oreka eta lurralde-homogeneotasuna, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei zerbitzuak eskuratzeko aukera berdinak bermatzeko dizkien zerbitzuen banaketa geografiko bat antolatuz.

c) Eskuragarri dauden baliabide formal eta informal, publiko eta pribatu guztien aprobetxamendu integrala, malgua, arrazionala eta efizientea, esku-hartzeak koordinatzeko eta sarean lan egiteko formula eraginkorretan oinarritua.

d) Aurrekontu-zuzkidura nahikoa aurrekontu orokorretan.

e) Gardentasun-printzipioa; horretarako, Inklusiorako Euskal Plana, Inklusiorako Programak eta horien ebaluazioak argitaratuko dira.

f) Herritarren parte-hartzearen printzipioa, plangintza egiteko orduan herritar antolatuekin eta antolatu gabeekin elkarreragiteko bideak irekiz.

128. artikulua.- Inklusiorako Euskal Plana

1. Inklusiorako Euskal Planak modu koordinatu eta orokorrean jasoko ditu bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen inklusioa lortzeko administrazio eskudunen jarduera bideratu behar duten esku-hartze eta jarduketako ildoak eta jarraibideak. Bost urteko plana izango da.

2. Gizarte-inklusioko Erakundearteko Batzordeari dagokio plana prestatzea, eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, onartzea, Gizarte-inklusioko Euskal Kontseiluak txostena egin ondoren. Onartu ondoren, Eusko Legebiltzarra jarriko da horren jakitun, eztabaidatu dezan.

Inklusiorako Euskal Planari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, esku-hartzeen eta jarduketaren kostu ekonomikoaren inguruko aurreikuspenak bilduko dituen.

3. Inklusiorako Euskal Planak honako eduki hauek izango ditu gutxienez:

a) Gizarte- eta lan-inklusioko beharren diagnostikoa eta haien bilakaeraren pronostikoa.

b) Helburuen, ardatz estrategikoen eta haietako bakoitzaren esparruko ekintzen definizioa, haiek garatu eta lortzeko epeak eta horretarako eskumena duten erakundeak edo organoak ezarrita.

c) Ebaluazio sistematikoa eta jarraitua egiteko mekanismoen definizioa.

d) Inklusiorako inguruko ikerketari eta berrikuntzari eskainitako atal bat.

e) Eskumena duen saileko estatistika-organo bereziaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Kabinete Teknikoaren jarduketak, baita euskal unibertsitateekin, ikerketa-zentro espezializatuekin eta Euskadiko hirugarren sektore sozialarekin elkarlanean egitekoak ere.

4. Euskal administrazio publikoek koordinazioa sustatuko dute Inklusiorako Euskal Planaren eta gizarte- eta lan-inklusiorako prozesuetan eragina duten erakundearteko eta sailarteko beste plan batzuen artean; bereziki, enpleguaren, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, etxebizitzaren, osasunaren eta arreta soziosanitarioaren arloetako planekin.

129. artikulua.- Inklusiorako programak

Inklusiorako Euskal Plana euskal administrazio publikoek beren eskumenen esparruan lantzen eta garatzen dituzten programen bidez gauzatuko da.

130. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako tresna tekniko komunak

1. Gizarte-inklusioaren esparruan esku hartzeko irizpideen homogeneotasuna bermatzeko, euskal administrazio publikoek balorazio, diagnostiko eta esku-hartze pertsonalizaturako tresna komunak aplikatuko dituzte, gizarte-zerbitzuei buruzko legerian eta hura garatzeko arauetan ezarriak.

Nolanahi ere, tresna tekniko eta informatiko komunak eta bateragarriak erabiliko dituzte, informazioaren trukea eta datuen konparagarritasuna ahalbidetzeko.

2. Era berean, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin elkarlanean aritu eta koordinatuko da, estatistika-informazioa ezagutu, ustiatu eta eraginkortasunez zabaltzeko, arreta-sareen magnitude nagusien ezagutza integrala izate aldera.

131. artikulua.- Profesionalen prestakuntza eta ikerketa

1. Euskal administrazio publikoak koordinatu egingo dira Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari esku hartzen duten agente eta profesional guztien prestakuntza sustatu eta planifikatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari lotutako esparruetan bereziki.

2. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenak baliatuz, inklusioaren arloko prospektibaren ikerketa eta hobekuntza sustatuko dute, gizarte-inklusioaren arloko berrikuntzaren eta ezagutzaren kudeaketaren mesedetan.

Halaber, beharrezkoak diren baliabideak antolatuko dituzte, garatutako jardunbide egokiak identifikatzeko eta haien jarraipena egiteko.

VII. TITULUA-INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN ESKUMEN-ARAUBIDEA ETA FINANTZAKETA

I. KAPITULUA-ESKUMEN-ARAUBIDEA

132. artikulua.- Eusko Jaurlaritzaren eskumenak

1. Eusko Jaurlaritzari dagokio honako eskumen hauek baliatzea:

a) Lege honen garapena eta diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko zuzeneko ekintza.

Zuzeneko ekintzat hartzen da, Eusko Jaurlaritzari esleitutako betearazpen-ahalez gain, izaera bereko eskumena programa, prestazio eta zerbitzu hauen gainean: beren interes orokorragatik, beren izaera eta ezaugarriengatik, izan dezaketen erabiltzaile kopuruagatik edota autonomia-erkidegoko mailan ematen direlako lor daitezkeen eskala-ekonomiengatik Euskal Autonomia Erkidego osoan modu bateratuan eman behar direnak.

Zuzeneko ekintza era arrazoituan gauzatuko da, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez deklaratu da, Inklusiorako Erakundearteko Batzordeak aldeko txostena egin ondoren.

b) Inklusiorako Euskal Plana onartzea eta hura gauzatzeko baliabide eta bitarteko nahikoak oro har bideratzea.

c) Diagnostikorako eta esku-hartze planifikatu eta pertsonalizaturako tresna tekniko komunak berrikustea eta, hala badagokio, eguneratzea, gainerako euskal administrazioekin lankidetzan.

d) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoei eta zerbitzuei buruzko estatistikak planifikatu eta diseinatzea, eta estatistika horiek landu eta mantentzea, gainerako euskal administrazioekin lankidetzan, estatistika-araudiari eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko araudiari jarraikiz.

e) Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren arteko koordinazio orokorra, gizarte-zerbitzuek gizarte-inklusioaren arloan egiten duten jardunari dagokionez, eta gizarte-larrialdietarako laguntzen instrukzioa, aitorpena, ordainketa eta finantzaketa.

f) Gizarte-larrialdietarako laguntzak ikuskatzea.

g) Inklusiorako esku-hartze eta jarduketa komunitarioak sustatu, landu eta garatzea, udalekin eta mankomunitateekin elkarlanean.

h) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak ebaluatzea.

i) Lege honetan eta garatzen duen araudian ezartzen den beste edozein.

2. Eusko Jaurlaritzaren eskumenak diru-sarrerak bermatzearen eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten sailen bitartez gauzatuko dira.

133. artikulua.- Foru-aldundien eskumenak

Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiari dagokio, bere gizarte-inklusioaren eskumenen esparruan, honako funtzio hauek betetzea:

a) Inklusiorako Euskal Plana gauzatzeko onartzen diren gizarte-inklusiorako foru-programak landu eta garatzea.

b) Gizarte-babesaren esparru guztietan dauden gizarte- eta lan-inklusiorako beharrei erantzuteko zerbitzuen eta zentroen sarea diseinatu eta garatzea.

c) Bazterketa-egoeren edo, hala badagokio, bazterketa-arriskuaren balorazio espezializatua egitea, gizarte-zerbitzuei buruzko araudian ezarritako moduan.

d) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak kudeatzeko informazioa ematea, 81. artikuluan aurreikusitako moduan.

e) Lege honetan eta garatzen duen araudian ezartzen den beste edozein.

134. artikulua.- Udalen eskumenak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, inklusioaren eta diru-sarrerak bermatzearen arloko eskumen propioen esparruan, honako eginkizun hauek betetzea:

- a) Hala badagokio, gizarte-inklusioko udal-programak landu, onartu eta garatzea, Inklusiorako Euskal Plana gauzatuz.
- b) Eskatzen duten pertsonen eta familiei informazioa eta orientazioa ematea, eta balorazioa eta diagnostikoa egitea, beren eskumenen esparruan.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea, inklusiorako programa integratu eta pertsonalen esparruan.
- d) Gizarte-diagnostikoa eta arreta pertsonalizatuko plana lantzea eta inklusiorako programa integratu eta pertsonalak ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa bidaltzea, 109., 114. eta 118. artikuluei jarraikiz.
- e) Gizarte-larrialdietarako laguntzak bideratu, aitortu eta ordaintzea, zehatzeko ahala baliatzea eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunen jarraipena egitea.
- f) Lege honetan eta garatzen duen araudian ezartzen den beste edozein.

135. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumenak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio honako funtzio hauek betetzea:

- a) Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak izapidetu eta kudeatzea, eta prestazio horiei lotutako kontrol-, ikuskapen- eta zehapen-ahalak baliatzea.
- b) Lege honetan aurreikusitako lan-inklusioko zerbitzuak eta enplegarritasuna bultzatzeko zerbitzuak kudeatzea.
- c) Lege honetan eta garatzen duen araudian ezartzen den beste edozein.

II. KAPITULUA- INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN FINANTZAKETA

136. artikulua.- Finantzaketa-iturriak

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema honako hauekin finantzatuko da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak.
- b) Lurralde historikoetako aurrekontu orokorrak.
- c) Udalen aurrekontuak.
- d) Horretara zuzenduta dagoen eta ordenamendu juridikoaren babesa duen beste edozein ekarpen ekonomiko.

2. Urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrek baliabide ekonomiko nahikoak kontsignatuko dituzte lege honetan aurreikusitako prestazioen eta laguntza ekonomikoen zenbatekoak finantzatzeko eta Eusko Jaurlaritzari esleitutako eskumen guztiak gauzatzeko.

Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako urtero kontsignatutako zenbatekoak laguntza horiekin lotutako gastuei aurre egiteko nahikoak ez badira, konpentsazio-mekanismo bat ezarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egindako esleipenak baliabide gehiagorekin osatzea erabaki duten udalerrietarako.

3. Foru-aldundiek eta udalek urtero kontsignatuko dituzte beren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako eskumenak gauzatzeko baliabide ekonomiko nahikoak.

VIII. TITULUA-LANKIDETZA, KOORDINAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

I. KAPITULUA

KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

137. artikulua.- Administrazio publikoen artean lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko betebeharra

Euskal administrazio publikoek lankidetzan eta koordinatuta jardun beharko dute Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamenduan eraginkortasunik eta efizientziarik handiena bermatzeko.

138. artikulua.- Inklusiorako Erakundearteko Batzordea

1. Inklusiorako Erakundearteko Batzordea euskal administrazio publikoen arteko lankidetzan instituzionalerako erakunde gisa eratzen da, lege honetan aipatutako politika publikoak diseinatu, landu eta gauzatzeko.

2. Inklusiorako Erakundearteko Batzordeko burua Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan eskumena duen sailburua izango da.

Idazkari-funtzioak, berriz, diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko eskumenak esleitura dituen sailburuordetzako goi-kargudun batek beteko ditu.

3. Inklusiorako Erakundearteko Batzordeak hamabi batzordekide izango ditu:

- a) sei, Eusko Jaurlaritza ordezkatzuz,
- b) hiru, foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bana,
- c) hiru, udalak ordezkatzuz,

Eusko Jaurlaritza ordezkatzeko duten pertsonak Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan eskumena duen sailburuak izendatuko ditu, eta inklusioaren, gizarte-politiken, hezkuntzaren, enpleguaren, osasunaren eta etxebizitzaren arloetan eskumena duten sailen ordezkariak bermatuko du.

Foru-aldundi bakoitza ordezkatzeko duen pertsona inklusioaren arloan eskumena duen saileko titularra izango da.

Udalerriak ordezkaturiko dituzten pertsonak Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan eskumena duen sailburuak izendaturiko ditu, ezarpenik handiena duen euskal udalerrien elkarteak proposatuta. Nolanahi ere, alkateak edo zinegotziak proposatu beharko dira.

4. inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularra Batzordearen bileretara joango da, hitzarekin baina botorik gabe, bileren xedea hurrengo artikuluko d) eta e) letretan aipatzen diren funtzioak betetzea denean eta, nolanahi ere, Batzordeko kideen gehiengoak hori erabakitzen duenean.

5. Inklusiorako Erakundearteko Batzordearen araubidea eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkaturiko dira. Deialdiak, bileren garapena eta aktak, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

Era berean, Batzordearen osaera, hartutako erabakiak eta bileren aktak argitaraturiko dira.

139. artikulua.- Inklusiorako Erakundearteko Batzordearen funtzioak

1. Inklusiorako Erakundearteko Batzordeak honako funtzio hauek ditu esleitura:

- a) Inklusiorako Euskal Planaren proposamena lantzea.
- b) Lurralde- eta toki-esparruko plan eta programei eta inklusioaren inguruko foru- eta toki-mailako arau-xedapenei buruzko aholkularitza ematea.
- c) Inklusioaren arloko erantzukizuna duten euskal administrazio publiko guztietatik informazioa jasotzea onartzen dituzten plan eta programen betetzearen jarraipen eta ebaluazioari eta inklusioaren inguruko arau-xedapenen aplikazioari buruz.
- d) Lege honetan aurreikusitako arloetan euskal administrazio publikoen jarduketak koordinatzeko beharrezkoak diren neurriak har daitezen bultzatzea, bereziki kontuan hartuta jarduketa horiek garatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen azterketa.
- e) Kudeaketaren kalitatea hobetzeko ekintza koordinatuak proposatzea, 142. artikuluan adierazitako ebaluazioan oinarrituta.
- f) Gizarte-larrialdietarako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak udalen artean banatzeko irizpideak aztertzea eta, hala badagokio, haien berrikuspina proposatzea.
- g) Inklusiorako Euskal Planaren jarraipena egitea.
- h) Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren inguruan egindako ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea.
- i) Legez edo erregelamenduz esleitzen zaion beste edozein.

2. Funtzioak betetzean, 142. artikuluan adierazitako ebaluazioaren emaitza hartu beharko du kontuan, eta, hala badagokio, ebaluazioaren gomendioetatik aldentzeko erabakia arrazoitu beharko du.

II. KAPITULUA-KONTSULTA ETA PARTE-HARTZEA

140. artikulua.- Inklusiorako Euskal Kontseilua

1. Inklusiorako Euskal Kontseilua aholkurako eta parte hartzeko organo gisa eratzen da, eta Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan eskumena duen sailari atxikita egongo da.

2. Inklusiorako Euskal Kontseiluaren osaera, kideen izendapena, araubidea eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira. Deialdiak, bileren garapena eta aktak, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

Era berean, Batzordearen osaera, hartutako erabakiak eta bileren aktak argitaratuko dira.

141. artikulua.- Inklusiorako Euskal Kontseiluaren funtzioak

1. Inklusiorako Euskal Kontseiluari dagokio honako funtzio hauek betetzea:

a) Nahitaezko txostenak egitea, honako kasu hauetan:

- Diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko lege-aurreproiektuak eta haien erregelamenduzko garapena.

- Diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko dekretu-proiektuak.

- Inklusiorako Euskal Plana eta diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko plan orokorrak eta sektorialak, betiere haien jarduketa-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa bada.

b) Eusko Jaurlaritzari aholkularitza ematea eta ekimenak proposatzea Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari lotutako edozein arlori buruz.

c) Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen oinarritzko beharrak detektatu eta aztertzea, Inklusiorako Erakundearteko Batzordeari proposatzeko behar horiei aurre egiteko garatu beharko liratekeen jarduketa-ildoak.

d) Inklusioaren arloan esku hartzen duten agenteen iradokizunak, informazioa eta proposamenak egin eta jasotzea.

e) Diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloko erantzukizuna duten euskal administrazio publiko guztien aldetik plan orokor eta sektorialen betetzearen jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea.

f) Legez edo erregelamenduz esleitzen zaion beste edozein.

2. Funtzioak betetzean, hurrengo artikuluan adierazitako ebaluazioaren emaitza hartu beharko du kontuan, eta, hala badagokio, ebaluazioaren gomendioetatik aldentzeko erabakia arrazoitu beharko du.

IX. TITULUA-INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN EBALUAZIOA ETA INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOAK**I. KAPITULUA - EBALUAZIOA****142. artikulua.- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa**

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari hauek ebaluatuko zaizkio: funtzionamendua, emaitzak, kalitatea eta kudeaketa-egituren eta haien osagaien eragina.

Ebaluazioak sistemaren funtzionamendua hobetzeko ondorioak eta gomendioak bilduko ditu.

2. Ebaluazioa bi urtean behin egingo da, eta Inklusiorako Erakundearteko Batzordeari, Inklusiorako Euskal Kontseiluari eta Eusko Legebiltzarrari igorriko zaie.

Ebaluazioa publikoa izango da, eta eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, foru-aldundien eta udalen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egoitza elektronikoetan, bai eta ebaluazioa egiteko ardura duen organoaren egoitza elektronikoan ere.

3. Ebaluazioa Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak egingo du.

II. KAPITULUA-INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOAK

143. artikulua.- Sorkuntza eta araubide juridikoa

1. Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa sortzen da, administrazio-organo espezializatu gisa, eta eskumen-esparru izango du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa, berrikuntza eta ikerketa, bazterketaren prebentzioan eta desagerraraztean esku hartzeko gaitasunak garatu eta etengabe hobetzeko tresnak diren heinean.

2. Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa kide bakarreko organo gisa sortzen da. Titularra inklusio-politiken azterketa eta ebaluazioari lotutako arloetan ospe handia eta gutxienez hamabost urteko esperientzia duten pertsonen artean izendatuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe, diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaio.

144. artikulua.- Independentzia

Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak erabateko independentzia funtzionalarekin eta objektibotasunarekin jardungo du bere funtzioak betetzean.

Organo horren titularrak eta hari atxikitako langileek ezin izango dute erakunde publiko edo pribatuaren instrukziorik eskatu edo onartu.

145. artikulua.- Funtzioak

Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak honako funtzio hauek ditu esleitura:

a) Ebaluazioaren esparruan:

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa egitea, 142. artikuluan adierazitakoa.

2. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren kalitate-adierazleak diseinatu, aldizka eguneratu eta argitaratzea.

3. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko informazioa zabaltzea, ahalik eta gardentasun handiena bermatuz haren irismenari eta funtzionamenduari dagokienez, eta

4. Gizarteratzeko eta enplegararritasuna hobetzeko programak ontzeko aplikatu daitezkeen kalitate-protokoloak eta kalitate-estandarrak landu eta aplikatu daitezkeen bultzatzea.

b) Ikerketaren esparruan:

1. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren xede diren gizarte-beharrei eta zerbitzu eta prestazioen eskariari buruzko ikerketa bultzatzea.

2. Gizarteratze- eta bazterketa-egoeren arrazoi eta faktoreak eta Euskal Autonomia Erkidegoan duten bilakaera aztertzea.

3. Zerbitzuak arretaren kudeaketa, kostua eta kalitatea kontuan hartuta aztertzea, haien etengabeko hobekuntza sustatzeko eta haien garapena eta bilakaera bideratzeko.

4. Lege honetan jasotako prestazio ekonomikoek biztanleria osoan duten estaldura-tasa eta haien nahikotasun ekonomikoa ebaluatzea.

5. Ikerketak egitea Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren edozein elementuri, xede dituen beharrei edo xede dituen biztanleria-profilei buruz.

c) Berrikuntzaren esparruan:

1. Proiektu esperimentalak egin daitezen sustatzea, ebidentzian oinarritutako praktikaren ikuspegitik. Proiektu horiek, dagokien inpaktuaren ebaluazioa egin ondoren eta eraginkorrak izanez gero, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osora hedatu ahal izango dira.

2. Gizarteratzearen arloan dauden gizarte-eskariak aztertzea eta esku hartzeko proposamen berritzaileak planteatzea.

3. Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko politiken arloan Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zein Estatuko edo nazioarteko esparruan garatutako jardunbide egokiak identifikatu, aztertu eta zabaltzea.

d) Prestakuntzaren esparruan, euskal administrazio publikoekin elkarlanean aritzea Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari esku hartzen duten agente eta profesionalen prestakuntzan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari lotutako esparruetan bereziki.

146. artikulua.- Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularraren estatutu pertsonala

1. Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularraren estatutu pertsonala honako hau izango da:

a) Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, Gobernu Kontseiluan erabakitako dekretu bidez, diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan eskumena duen sailaren titularrak proposamen arrazoitua eginda, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.

Izendapen-dekretuak hau ere izendatuko du: kargua hutsik geratzeagatik, absentziagatik edo gaixotasunagatik Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularra ordeztuko duen pertsona (edo pertsonak). Pertsona horrek titularrari eskatutako betekizun berak bete beharko ditu, eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren aldeko txostena izan beharko du.

b) Aldaezina izango da, eta bost urteko agintaldia izango du, karguaz jabetzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren jabetuko da karguaz.

Agintaldia iraupen bereko aldietan luzatu ahal izango da.

c) Goi-karguduntzat hartuko da, zerbitzu berezien egoeran geratuko da aurretik funtzio publiko bat betetzen ari bazen, eta kargu publikodunen jokabide-kodea eta interes-gatazkak erregulatzen dituen legeriaren mende egongo da.

2. Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularra honako arrazoi hauengatik baino ezin izango da bere postutik kendu:

- a) Heriotza.
- b) Agintaldiaren amaiera.
- c) Karguari idatziz uko egitea.
- d) Betebeharren ez-betetze larria.

e) Askatasunaz gabetzeko zigorra edo enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna absolutu edo bereziko zigorra jasotzea.

- f) Bere funtzioa betetzeko ezintasuna, gerora sortua.

Kargu-uztea edo kargutik kentzea Gobernu Kontseiluan erabakitako dekretu bidez formalizatuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Eusko Jaurlaritzak hartuko du d), e) eta f) letretan aurreikusitako arrazoiengatik kargutik kentzeko erabakia, horretarako bideratutako espedientearen egin, interesdunari entzun eta Inklusiorako Euskal Kontseiluak txostena egin ondoren.

147. artikulua.- Baliabide pertsonalak eta materialak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak behar bezala funtzionatzeko behar dituen baliabide pertsonalen eta materialen eskuragarritasuna bermatuko du.

Lehenengo xedapen gehigarria.- Oinarrizko zenbatekoa lege hau indarrean jartzen den egunean.

Lege hau indarrean jartzen denean, 31. artikuluan aurreikusitako oinarrizko zenbatekoaren hilekoa bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun indibidual bati dagokion hileko errenta bermatuaren berdina izango da.

Bigarren xedapen gehigarria.- Diru-sarrerak bermatzeko sistemen eta gizarte-zerbitzuen sistemen elkarrengarritasuna eta elkarren arteko konexioa.

1. Lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten sailek beren sistemen eta aplikazioen elkarrengarritasuna eta elkarren arteko konexioa bermatuko dute, honako helburu hauekin:

- a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak oinarrizko gizarte-zerbitzuei gizarte-diagnostikoaren eskaerak bitarteko elektronikoen bidez baino ez egitea, eta
- b) gizarte-zerbitzuek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonalean txertatu beharreko gizarte-diagnostikoko eta plan pertsonalizatuko datuak bitarteko elektronikoen bidez baino ez helaraztea, bai eta aipatutako Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak direnak ere.

2. Gizarte-zerbitzuek, aurreko paragrafoan aipatutako sistemak eta aplikazioak erabiltzen ez badituzte, bertan xedatutakoa bete ahal izateko beste sistema elektronikoko batzuk gaitu beharko dituzte epe berean.

3. Lehenengo paragrafoan aipatzen den agindua gauzatzen duten sistemak eta aplikazioek Elkarrengarritasun eta Segurtasun Eskema Nazionalak betetzen direla bermatuko dute.

Hirugarren xedapen gehigarria.- Triaie-tresna

Lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, 110.2 artikuluan aurreikusitako triaie-tresna onartuko du Lan eta Enplegu Sailak.

Laugarren xedapen gehigarria.- Politika fiskalak eta diru-sarrerak bermatzeko politikak.

Lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, Eusko Jaurlaritzak azterlan bat bidaliko dio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari, gaitzat hartuta ea egoki den zerga-kenkari aurreratu itzulgarriak sartzea edo politika fiskalen eta diru-sarrerak bermatzeko politiken artean integrazio hobea lortzea ahalbidetuko duten beste neurri batzuk hartzea.

Bosgarren xedapen gehigarria.- Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren jardueraren hasiera.

Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak bere jarduerari hasiera emateko eguna organoaren titularraren izendapena argitaratu eta biharamuna izango da.

Seigarren xedapen gehigarria.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko kontsignatutako kredituak udalerrien artean banatzea.

Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako funtsak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean banatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da. Era berean, udal batzuek erabakitzen badute baliabide gehiagorekin osatzea Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek gizarte-larrialdietarako laguntzetarako egindako esleipenak, udal horiekin jarraitu beharreko konpentsazio-mekanismoa ere erregelamendu bidez zehaztuko da.

Zazpigarren xedapen gehigarria.- Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako esleitutako zenbatekoak foru-aldundiei edo udalaz gaindiko erakundeei zuzenean eskualdatzea.

Foru-aldundiek gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketa beren gain badute, Euskadiko toki-erakundeei buruzko legerian aurreikusitako baldintzetan, edo udalek kudeaketa partekatuko formulen alde egiten badute partzuergoen, mankomunitateen edo beste formula batzuen bidez, gizarte-larrialdietarako laguntzen funtsak kudeatzeko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak aldundien eta aipatutako erakundeen esku utziko ditu udal bakoitzari esleitutako zenbatekoakoak.

Lehenengo xedapen iragankorra.- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaeren araubide iragankorra.

Lege hau indarrean jartzean izapidetzen ari diren diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaerak lege honetan xedatutakoaren arabera ebatziko dira. Horretarako, izapidetzeko dokumentazio osagarria eskatuko da, beharrezkoa izanez gero.

Bigarren xedapen iragankorra.- Etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarriaren araubide iragankorra.

Indarrean jarri arte Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea garatzeko erregelamendu-xedapenak, hau da, etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari eta eskubide hori subsidiarioki asebeteko duen prestazio ekonomikoen sistemaren ezarpenari buruzkoak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen II. tituluaren I. kapituluko 2. atalean aurreikusitako etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarria aplikatzen jarraituko da, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortu, izapidetu, aldatu eta azkenduko du.

Nolanahi ere, aurreko lerrokadan aipatzen diren erregelamenduzko xedapenak indarrean daudenean, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren iraupena ezin izango da bi urtetik gorakoa izan, prestazio hori aitortu edo berritu den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota, prestazio hori automatikoki iraungiko da, hargatik eragotzi gabe titularrek etxebizitzarako

prestazio ekonomikoa eskuratzea edo etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzea, haren araudiak xedatutakoaren arabera.

Hirugarren xedapen iragankorra.- Enplegurako pizgarrien araubide iragankorra.

39. artikuluan xedatutakoaren arabera enplegua lortzea eta enpleguan irautea sustatzen duten mekanismoak aratuko dituen erregelamendua indarrean jarri arte, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Agindua, oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzekoa, aplikatzen jarraituko da.

Nolanahi ere, pizgarrien aplikazioa mugagabea izango da, eta ezin izango da gehieneko iraunaldi bati lotuta egon.

Laugarren xedapen iragankorra.- Inklusiorako Erakundearteko Batzordearen araubide iragankorra

Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordea, lege hau indarrean jartzen denean, Inklusiorako Erakundearteko Batzordea izatera igaroko da, eta, araudi espezifiko onartzen ez den bitartean, batzordearen funtzionamendu-arauak onartuko ditu, betiere 138. eta 139. artikuluetan xedatutakoarekin bateraezinak ez badira.

Nolanahi ere, batzordearen osaera eta eginkizunak aipatutako artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

Bosgarren xedapen iragankorra.- Inklusiorako Euskal Kontseiluaren araubide iragankorra

Lege hau indarrean jartzen denean, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua Inklusiorako Euskal Kontseilua izatera igaroko da, eta haren osaera eta funtzionamendua onartuko ditu funtzionamenduko araudi espezifiko onartzen ez den bitartean, 140. eta 141. artikuluetan xedatutakoarekin bateraezina ez bada.

Seigarren xedapen iragankorra.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtsaren araubide iragankorra

1. Lege hau indarrean jartzen denean Gizarte Ongizateko Funtsaren prestazio ekonomikoak aitortuta dituztenek prestazio horiek jasotzen jarraituko dute maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuan aurreikusitako moduan eta baldintzetan —EAEko Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioak arautzen dituen adinekoentzat eta lanerako ezinduentzat—.

2. Lege hau indarrean jartzen denean ebazteko dauden Gizarte Ongizateko Funtsaren prestazio ekonomikoak aitortzeko eskaerak ebazteko, EAEko Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioak adinekoentzat eta lanerako ezinduentzat arautzen dituen maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen dira, lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiez gain, beste hauek ere:

- a) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- b) 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- c) 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa, lege honen aurka doan guztian.

d) 129/1986 Dekretua, maiatzaren 26koa, EAEko Gizarte Ongizateko Funtzaren pentsioak arautzen dituen adinekoentzat eta lanerako ezinduentzat.

e) 1/2000 Dekretua, urtarrilaren 11koa, Gizarteratze Hitzarmenak arautzen dituen, lege honen aurka doan guztian.

Azken xedapenetatik lehenengoa.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legea aldatzea

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen 2. artikularen 3. paragrafoa aldatzen da; honela geratuko da idatzita:

«3.- Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren xedea bere zerbitzuen erabiltzaileak artatzeko sistema modernizatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea da.

Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ziurtagiri elektronikoak erabiliko ditu dokumentuak identifikatzeko eta sinatzeko, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduan, baita, hala badagokio, autentifikatzeko beste prozedura batzuk edo bere zerbitzuen erabiltzaileak eta prestazioen onuradunak identifikatzeko sistema biometrikoak ere.

Azken sistema horiek erabiltzea nortasun-agiri nazionalaren, identifikazio fiskaleko zenbakiaren, atzerritarraren nortasun-txartelaren edo identifikazio-agiri baliokidearen bidezko identifikazioaren ordezkia izango da beti, eta justifikatu egin beharko da pertsonak modu unibokoan eta fede-emailean identifikatu behar direla, identifikaziorako zailtasunei lotutako beren eskubideen mugak edo bazterketak ezabatu behar direla, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestazioen eta zerbitzuen kudeaketa hobetu behar dela.

Haien tratamenduan, segurtasun- eta berme-neurri egokiak aplikatuko dira, erantzukizun proaktiboaren printzipioaren eta datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera».

Azken xedapenetako bigarrena.- Erregelamenduzko garapena.

Gobernu Kontseilua eta diru-sarrerak bermatzeko arloan eskumena duen saileko titularra gaitzen dira lege honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzaten, beren eskumenen esparruan.

Azken xedapenetatik hirugarrena.- Deslegeztatzea

Diru-sarrerak bermatzearen arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio 35. artikuluan aipatzen den indize zuzentzailea aldatzeko (ezingo da izan % 15etik gorakoa), bai eta 45.3, 48.2 eta 77.2 artikuluetan xedatutakoa aldatzeko ere.

Azken xedapenetatik laugarrena.- Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.